txostena informe 2010

gaindegia

Izenburua: Gaindegia Txostena 2010 / Informe Gaindegia 2010

Egilea:
GAINDEGIA - Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia

Argitaratzea:
GAINDEGIA - Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Martin Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain
Gipuzkoa
Tel. +34 943 304 365
www.gaindegia.org
gaindegia@gaindegia.org

Indexatzeko: Euskal Herria, ekonomia, gizartea, garapena, kohesioa, Euskal Herriko ekonomia

Argitalpen batzordeko zuzendaria:
Joxerra Bustillo Castrexana

Koordinatzailea:
Irati Azkue Leunda

Aholku batzordea:
Joxerra Bustillo, Jose Mari Zendoia, Xabier Lekuona, Bego Zubia, Eugenio Etxebeste, Kepa Gordejuela, Iñaki Egaña.

Gaindegia Txostena 2010 argitalpeneko kolaboratzaileak:
Joxerra Bustillo, Juan Jose Ibarretxe, Marta Luxán, Unai Martín Roncero, Joseba Barandiaran, Nekane Altzelai, Mikel de la Fuente, Xabier Aierdi, Catalina Chamorro, Peio Olhagaray, Sagrario Zabaleta, Asier Minondo, Itziar Navarro, Pedro Mari Olaeta, Mikel Zurbano, Nekane Jurado, Mertxe Larrañaga, Arantxa Manterola, Iker Bizkarguenaga, Iker Aranburu, Pepe Aizpuru, Juan Angel Monreal, Juan Mari Arregi, Xabier Aja, Imanol Esnaola.

Kazetari lanak:
Estitxu Elduaien
Itzulpenak: Mercedes Camblor, Iñigo Azkue

Lehenengo edizioa:
Andoain, 2011ko ekaina

Copyright:
© GAINDEGIA - Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia

Diseinua eta maketazioa:
nabarreria.com
Tel.: 948 22 71 25

Inprimaketa:
Gráficas Iratxe

Lege gordailua:
SS-598-2011

Gaindegiak ez ditu bere egiten argitalpen honetan kolaboratzaileek adierazten dituzten iritziak

Argitalpen honek ondorengoen babesa jaso du:

gizarte kutxa · UDALBIDE · Lezoko Unibertsitateko Udala · Bergarako Udala

Antzuolako Udala · azpeitia udala · *Alegiako Udala* · *Berriatuko Udala* · *Urretxuko Udala* · Usurbilgo Udala · OIARTZUNGO UDALA

Aurkibidea

Sar hitza _____5

Hitzaurrea _____6

Euskal Herria 2010 adierazleetan _____10

· Galeria nagusia _____12

· Monografikoak _____17

– Lan merkatua _____17

– Adierazle koiunturalak _____19

– I+G _____18

– Enpresa jarduera eta demografia _____20

– Iparraldeko argazkia _____22

– EBko erregioen mailako adierazleak _____23

– Immigrazioa _____24

– Formakuntza _____25

Zifratan gakoa _____26

Adituen analisia _____28

Eztabaida foroa **(Berria)** _____54

Urteko azterlanak _____59

Prentsan jasotakoa _____66

Euskal Herriko eragile sozio-ekonomikoen oinarrizko gida _____71

Joxerra Bustillo Kastrexana
Gaindegia Txostena
Argitalpeneko
Zuzendaria

sar hitza / introduction

Gaindegia behategiak laugarren urtez dakarkizu, irakurle, urteko txostena. Aurten, krisi ekonomikoak eraginda eta behategiaren aurrekontu-hersturen ondorioz, aurreko urteetan baino azal edo itxura apalagoa du akaso. Hala ere, mamiak ez du inolako kalterik izan, punta puntako edukiak baitakartza aurten ere: goi-mailako kolaboratzaileen eta adituen ekarpenak, eta atal berri bat, Eztabaida Foroa. Zailtasunak zailtasun, aurrera darraigu Euskal Herriko eragile sozioekonomikoentzat oso baliagarria den tresna bat eskaintzeko lanean, jarduera sozioekonomikoen atzean dauden ildo nagusiak hauteman ahal izango baitituzte orri hauetan zehar.

Argitalpen honek aztertzen duen urtea zaila izan da alor ekonomikoan, sozialean eta politikoan, krisiak gogor jotzen jarraitu baitu, eta langabeziak ere goranzko joerari eutsi baitio. Egoera zail horren ondorioz, atzerakada nabarmen bat izan dute ongizateko estatua deritzonaren hainbat lorpenek. Krisiaren beste eragin nabarmenetako bat izan da Euskal Herriaren ideia barneratzeko eta indartzeko saioek ez dutela aurrerapen handirik izan gizarte-eragileen eta herritarren artean, egoera ekonomikoa gogorra denean zaila izaten baita berehalako premietatik, egunerokotasunetik eta emaitza-kontuen errealitatetik harago begiratzea. Paradoxa handi bat agerrarazten digu egoera horrek: instituzio nazional propioak izango bagenitu, askoz ere modu eraginkorragoan egingo genioke aurre krisiari, Euskal Herri burujabeago batek izango lituzkeen tresnak baliatuta.

Igaro berri zaigun urtea atariko urte bat izan dela esan dezakegu, aurten eta datorren urtean ikusiko baititugu iaz egindako lan guztien emaitzak: zehaztu egingo dira Gaindegiak sorreratik izan dituen jardun-irizpideak, indartu egingo ditu bere autonomia eta aniztasuna, eta izaera profesionalagoa izango du; betiere, Euskal Herriaren eta kohesio nazionalaren iparrorratzak erakutsitako bidea egiteko. Balio horiek guztiek behategiaren gizarte-oinarria handitu behar dute, eta, ondorioz, gero eta herritar eta eragile gehiagorengana iritsi behar dute hark egindako lanek eta ikerketek.

Egun bizi dugun krisia petrolio gordinaren garestitze itzelak 1973. urtean abiatu zuen krisiaren parekoa edo handiagoa da ezbairik gabe, baina ez dugu ahaztu behar krisia zenbat eta handiagoa izan, orduan eta indar handiagoa hartuko duela hura gainditzen duenak. Beraz, krisiari indarrez eta argitasunez aurre egiten eta hura gainditzen asmatzen badugu, zabaldu egingo da gure proiektuaren bidea, hurrengo krisi handia lehertu artean, bederen. Begira eta goza itzazu, irakurle, txostenaren edukiak, eta egin dezagun elkarrekin gure geroaren bidea, gero eta lan bizigarriagoa izango baita Euskal Herriaren egoera sozioekonomikoa aztertu, neurtu eta azaltzea.

Cette quatrième édition du Rapport Annuel de l'Observatoire Gaindegia est plus modeste que les précédentes, en raison de la crise économique générale et de la nécessaire réduction des frais qui s'impose. Mais ce format moins impactant ne nous empêche pas de présenter des contenus ambitieux, de nouvelles rubriques, comme le Forum de Débat, et de continuer à compter sur une équipe de collaborateurs et d'analystes de premier ordre. Malgré toutes les difficultés, nous continuons à avancer et à offrir aux acteurs socio-économiques du pays un outil qui leur permette de détecter les courants de fond dans ce domaine.

L'année analysée dans la présente publication s'est avérée difficile sur le plan économique, social et politique. Une année où la crise est restée parmi nous, où le chômage a continué de croître et où les conséquences de cette situation compliquée ont continué d'éroder l'État-Providence. En outre, la crise a contribué à banaliser les efforts visant la pénétration et la diffusion de l'idée d'Pays Basque auprès des partenaires sociaux et des citoyens en général. Quand l'économie va mal, il s'avère plus compliqué d'aller au-delà des priorités immédiates, du jour à jour et du compte de résultat. Le paradoxe est que si nous étions capables de nous doter de nos structures institutionnelles nationales propres, nous pourrions contourner d'une manière beaucoup plus efficace la prochaine crise, grâce aux instruments mis en place par une Pays Basque plus souveraine.

L'année écoulée peut être interprétée comme une période de préparation, qui portera ses fruits cette année et la suivante. Des fruits qui se traduiront par une plus grande spécificité des critères qui ont régi les activités de Gaindegia depuis sa création, tels que son autonomie de fonctionnement, sa pluralité et son caractère professionnel, le tout au service de l'idée d'Pays Basque et de la cohésion nationale. Des valeurs qui doivent contribuer à l'expansion du corps social de l'entité et à la plus large diffusion de ses activités et travaux de recherche au sein de la société civile basque.

Plus la crise est profonde et plus nous en sortirons renforcés, si nous sommes capables de la surmonter. La crise actuelle est comparable, voire plus grave, à celle déclenchée en 1973, suite à la flambée des prix du pétrole. Par conséquent, si nous sommes capables de résister et de la surmonter avec énergie et intelligence, nous aurons consolidé notre viabilité, au moins jusqu'à la prochaine tempête. Je vous invite à profiter du contenu de ce rapport et à nous accompagner dans les voyages que nous allons, sans le moindre doute, entreprendre dans un proche avenir. Décrire, quantifier et analyser la réalité socio-économique d'Pays Basque va certes continuer à être, et de plus en plus, une tâche passionnante.

Konfiantza, edo hobeto esanda, deskonfiantza kontua

Juan José Ibarretxe
Lehendakari ohia eta Unibertsitateko Irakaslea

Ohorea da niretzat Gaindegiaren gonbita jaso izana 2010. urteko balantze sozioekonomikoa egiteko. Ekonomia errealak krisi finantzarioa gogor sentitu duen urte honetan konfiantza falta izan da ezaugarririk nabarmenena. Konfiantza falta honi egozten zaio, hein handi batean, nazioarteko finantza-merkatuak hain zorrotz aztertzea Europar Batasuneko estatu kide batzuen zor subiranoa, rating agentzien bidez adierazten dena. Espainia ere estatu horien artean dago.

"Zor subiranoaren krisi" deitu zaion honen erakusgarri deigarriena, kanpo-zorraren arrisku-primak igo izana da; igoera honek, aldi berean, garestitu egiten du nazioarteko merkatuetan estatuek bilatzen duten finantzazioa. Defizit publikoak direla eta, gero eta zailagoa eta garestiagoa da dirua kanpoan lortzea. Gainera, defizit publiko handia duten herriek, diru askoz gehiago pagatu behar dute, "diferentzialak" handiagoak direlako; eta horrek zalantzan jar dezake kasu batzuetan hasitako susperraldi ahula, eta krisitik irtetea ere luzaraz dezake.

Grezia izan zen EBZk (Europako Banku Zentralak) eta NDFk (Nazioarteko Diru Funtsak) erreskatatu zuten lehena uda amaieran. Merkatuen hegazkortasun handiko testuinguruan, krisi handi baten eraginpean zegoen Irlanda; azkenean banku handiak, Allied Irish Bank, EBS Building Society y Irish Nationwide Building Society) nazionalizatu behar izan zituen; eta EBZk eta NDFk esku hartu behar izan zuten. Horretan gelditu beharrean, olioaren pare, etengabe ari da fenomenoa hedatzen Europar Batasunaren hegoaldean zehar, Portugal eta Espainia mehatxatuz, beste batzuen artean. Horrenbesterainokoa da zor subiranoari aurre egiteko estatuek duten ahalmenari buruzko konfiantza falta, non estatu batzuk eurogunetik atera daitezkeela ere kontuan hartzen hasi baitira. Hala gertatuko balitz, zaila da jakitea zein eragin izango lukeen mundu osoko sisteman.

Eredu ekonomiko berri baten beharra, horixe da krisi honetako irakasgairik nabarmenena. Guztiz globalizatua dagoen mundu honetan, orain arte inoiz ez bezala geratu da kili-kolo nazioarteko finantza-sistemaren egonkortasuna. Arkitektura finantzarioa, erregulatzaileen eta zentzuzko begiraleen zeregina, alerta-sistemarik eza... etorkizunean hobetu beharreko alderdietako batzuk baino ez dira.

Hauskortasun eta konfiantza falta ezin handiagoko testuinguru honek eragin handia du Euskal Herrian gertatzen denean ere. Hemen, aipatu berri ditugun mementoko gertakariez gain, sakonagoa den joera ere ikus daiteke, egiturazkoa, herritarrengan eragin larria duena. Sakonera handiko mugimendua da, etengabe aurrera doana, arrainak ohartu gabe gora egiten duen marearen pare, Alvin Toffler-ek bere Hirugarren olatua liburuan maisuki deskribatu zuen bezala. Pirinioen hegoaldean Euskadiko eta Nafarroako Autonomia Erkidegoen eskumenak birzentralizatzeaz ari naiz; Frantziak ere antzeko joera zentripetoa du Iparraldearekiko. Baina ez da, inola ere, ezusteko mugimendua; aitzitik, zentralitateak kontu handiz planifikaturiko ikuspegi eta estrategia partekatu bati zor zaio.

Sakoneko joera honi beste bat gehitzen zaio, Euskaditik bertatik datorrena. Euskal erakundeek benetako obsesioa dute "desberdintasunak ezabatzeko", guztiak berdinak egiteko. Badirudi lotsagarri gertatzen zaizkiela gizartean txertaturik dauden geure ezaugarri propioak, geure idiosinkrasia, geure kultura; eta lotsagarri gertatzen zaizkielako saiatzen dira barrutik horiek guztiak desagerrarazten. Hau da bigarren sakoneko joera. Bi estatuek bultzatzen duten kanpoko joera horrek, eta Euskadiko zenbait erakundek bultzatzen duten barruko joerak, biek egiten dute Euskadi besteen pareko, besteen "berdin" egitearen alde, bai ekonomikoki, bai sozialki eta baita kulturalki ere. Hori da haientzat "normalizazioa". Ez dute uste balio- eta ikuspegi-aniztasuna aberastasuna denik; ez dakite aniztasunak aberastasuna dakarrela. Ikuspegi estukoak dira. Beste al-

Inoiz baino beharrezkoagoa da geure nortasunaren ezaugarriak gordetzeko buru-belarri lan egitea

dean, gaurko joera aurrerakoienak aurkituko ditugu, Hugues Lagrange soziologoak bere Le déni des cultures (Kulturen ukazioa; 2010eko iraila) lanean defendatzen dituenak bezalakoak; gizarteko arazoak aztertzean, irizpide etnikokulturalak ere kontuan hartu behar direla defendatzen dutenak, hori baita bidea, haien ustez, besteak beste eskola-porrota, indarkeria, emakumeen esklusioa edo abstentzio politikoa saihesteko.

Bi joera hauen indarrak batzeak eman du bere fruitua: per capita aberastasunaren igoera geldotu da, zorpetze publikoa areagotu da (batez bestekoaren parean jartzeraino), langabezia nabarmen igo da, euskararentzako laguntzak murriztu dira, Euskadiren nazioarteko presentzia gutxiagotu da. Eta gure seme-alabentzat funtsezkoak diren gaietan ere ikusi dugu eragin hori: EUSTATek 2011ko apirilean jakitera eman dituen datuen arabera, Berrikuntzari dagokionez, EBko batez bestekoaren azpitik geratu gara 2010ean, azken hamar urteetan eginiko ahalegin erraldoiaren ondorio, 2008an eta 2009an Europako batez bestekoaren gainetik ibili ondoren.

Gizartearen eta lurraldearen ikuspegitik ere nabarmena da eragina. Espainiako finantza-sistemaren birmoldaketa eta berregituratzea, fokua aurrezki-kutxetan ipini duena. Kutxek gehiegizko arriskuak hartu dituzte higiezinen merkatuan; prezioak hondoratzeak, eta, beraz, berme gisa emandako aktiboen balioa ere hondoratzeak eragina izan du entitate hauen balantzean eta emaitzetan. Hau guztia oinarri hartuta, diru-agintaritzak eta Espainiako gobernuak justifikatu egin dute kutxetan esku hartzea.

Autonomia Erkidegoek dituzten eskumenak alde batera utzirik, guztiek bete beharreko oinarrizko arauetan gauzatu da erakundeen interbentzio drastikoa. Honek esan nahi du kudeaketa eraginkorra izan duten kutxei (horien artean euskal kutxei) eta gainerakoei, guztiei trataera bera eman zaiela. Batzuen eta besteen arteko bereizketa ez da lortutako emaitzen arabera egin, baizik eta kutxek berezkoa duten izaeraren arabera (diodanaren erakusgarri da berme-koefiziente desberdinak ezarri izana sozietatearen izaeraren arabera: berme horiek zorrotzagoak izan dira kutxentzat, kutxa izaera zutelako besterik gabe). Hitz batean, kutxa guztiak behartu nahi dituzte banku bihurtzera, gehienbat bat-egite hotzen bidez (SIP). Horrek kutxen funtsezko ezaugarria desagerraraziko du (finantza-bitartekaritza), eta etorkizunean fundazio berezi gisa irautera kondenatuko ditu.

Kutxek finantza-sistemaren erdia ordezkatzen dute; azken mendean gorde dute beren izaera soziala, beren jatorrizko lurraldearekiko lotura, eta lurralde horren garapen sozio-ekonomikorako konpromisoa (hala gertatu da Euskadin). Hori guztia galtzea ere, birzentralizazioaren adibide baino ez da. Espainiako Bankuak ez ditu ongi bete bere eginkizunak, nahita utzi baitie finantza-entitate batzuei higiezinen sektorean kontzentratzen arriskua. Baina gero ez du inolako autokritikarik egin, are gutxiago erantzukizunik onartu horrela jokatu izanagatik.

Testuinguru honetan, inoiz baino beharrezkoa da geure nortasunaren ezaugarriak gordetzeko buru-belarri lan egitea, ez besteenak baino hobeak direlako, geureak direlako baizik. Inoiz baino beharrezkoagoa da buru-belarri lan egitea Euskal Herriak estatuaz gaindiko elkarteetan bete-betean parte hartzeko duen eskubidearen alde, beste errealitate batzuen ondoan, geure ekarpena ere egin ahal izateko. Horrelako helburuak dira Gaindegiarenak ere, ezinbesteko zaizkigunak gizartearen garapena geure izateko moduan oinarritu dadin, Euskal Herriko gizon-emakume gehienek partekatzen duten idiosinkrasian oinarritu dadin. Hitz batean, ezinbesteko zaizkigu horrelako helburuak herri gisa konfiantza berreskuratzeko.

Question de confiance… ou plutôt de méfiance

Juan José Ibarretxe
Ex-président et Professeur d'Université

C'est un grand honneur pour moi d'être invité par Gaindegia à faire le bilan socio-économique de 2010. Le facteur qui caractérise le mieux cette année, marquée par la crise financière qui s'est fait sentir avec force dans l'économie réelle, est le manque de confiance. Qui est notamment la cause de l'examen minutieux auquel les marchés financiers internationaux ont soumis la dette souveraine de plusieurs États membres de l'Union européenne, verbalisé par les agences de rating et qui concerne également l'Espagne.

L'effet le plus frappant de cette « crise de la dette souveraine » est l'augmentation de la prime de risque de la dette extérieure, qui fait augmenter à son tour le coût de financement des États sur les marchés internationaux. Face à la sécheresse des marchés nationaux, en plein processus de désendettement et d'ajustement, les déficits budgétaires élevés nécessitent des ressources extérieures de plus en plus coûteuses et qui impliquent des titres de créance plus élevés pour les pays, au point de mettre en péril la timide relance amorcée dans certains cas et reportant ainsi leur sortie de la crise.

La vague d'interventions débute avec le sauvetage de la Grèce par la BCE et le FMI à la fin de l'été, suivi, dans un contexte de volatilité extrême des marchés, de l'intervention de l'Irlande, touchée par une profonde crise bancaire, qui se termine par la nationalisation de ses grandes banques , Allied Irish Bank, EBS Building Society et Irish Nationwide Building Society). Loin de s'arrêter, le phénomène se répand, comme une traînée de poudre, au sud de l'Union européenne, et atteint le Portugal et l'Espagne, entre autres. Le manque de confiance dans la capacité des États à s'acquitter de leur dette souveraine est tel que certains envisagent même la possibilité de quitter la zone euro, avec les conséquences imprévisibles que cela entraînerait pour l'ensemble du système mondial.

Parmi les leçons à tirer de cette crise, il faut mentionner la nécessité d'un nouveau modèle économique. La stabilité du système financier international et mondialisé est remise en question comme jamais auparavant. L'architecture financière, le rôle de la règlementation prudentielle et de supervision, l'absence de systèmes d'alerte ne sont que quelques-uns des aspects à améliorer à l'avenir.

Ce contexte de fragilité et de manque de confiance extrême, impacte profondément sur Pays Basque, où, outre les phénomènes conjoncturels mentionnées ci-dessus, on constate également une tendance de fond, structurelle, affectant gravement les citoyens. Il s'agit d'un mouvement qui progresse inexorablement, comme la marée, et cependant imperceptible pour les poissons, qu'Alvin Toffler décrit magistralement dans son livre la Troisième vague. En ce qui nous concerne : le processus de recentralisation des pouvoirs engagé par la Communauté Autonome d'Euskadi et Navarre dans le sud des Pyrénées et son parallèle de force centripète exercée par la France en Pays Basque Nord, comme conséquence de la situation d'urgence et de gravité générée par la crise. Il ne s'agit, en aucun cas, d'un mouvement occasionnel, mais obéissant, au contraire, à une vision et une stratégie partagées et parfaitement planifiées par la centralité.

Ce contexte actuel coexiste avec une seconde force impulsée de l'intérieur d'Euskadi : la politique acharnée des institutions basques de « supprimer les différences », de « mettre tout le monde sur un pied d'égalité » vers le bas, comme si les signes identitaires propres, idiosyncrasiques, culturels, enracinés dans la société étaient à tel point embarrassants qu'il faille les supprimer de l'intérieur, comme une manifestation de cette tendance sous-jacente. Ces deux courants, l'extérieur impulsé par les deux grands États, et l'intérieur encouragé par certaines institutions publiques, visent l'égalité économique, sociale et culturelle d'Euskadi, à travers la « normalisation », qui

Il est plus que jamais nécessaire de travailler dur en faveur d'une vision distinctive des signes de notre propre identité

ne reconnaît pas l'avantage de la diversité des valeurs ni des points de vue et agit à courte vue, ignorant que la diversité est une richesse. En contrepoint, les tendances les plus avancées aujourd'hui dans le monde, telles que celles proposées par le sociologue Hugues Lagrange dans son livre Le déni des cultures (septembre 2010), qui invitent à considérer les critères ethniques et culturels lors de l'étude des problèmes sociaux, comme un moyen d'éviter des phénomènes tels que l'échec scolaire, la violence, la réclusion des femmes et l'abstention politique, entre autres.

Le résultat de cette combinaison de forces est le frein à la croissance du revenu par habitant, l'accroissement (pour se situer dans la moyenne) du niveau de la dette publique, la remarquable progression du taux de chômage, la réduction des aides à l'euskara, la non-reconnaissance du Département basque, la réduction de la présence internationale d'Euskadi, et d'autres questions clés pour l'avenir des futures générations, comme le fait d'avoir reculé en 2010 - selon les données publiées par l'EUSTAT en avril 2011 – jusqu'à nous situer en dessous de la moyenne de l'UE en matière d'innovation, après les efforts considérables que nous avions fait comme pays au cours des 10 dernières années, qui nous avaient permis de dépasser la moyenne européenne en 2008 et 2009.

Quant à la dimension sociale et territoriale, le processus de reconversion et de restructuration du système financier espagnol, concentré sur les Caisses d'Épargne, illustre tout ce qui précède. L'intervention massive par l'autorité monétaire et le gouvernement espagnol est justifiée par leur concentration excessive de risque sur le marché immobilier (affecté par l'effondrement des prix et, donc, par la valeur des actifs), qui met en péril l'équilibre et les résultats de ces entités.

La drastique intervention institutionnelle se traduit par une règlementation de base obligatoire et contraignante, instaurée en marge de la juridiction territoriale des communautés autonomes, appliquant ainsi la même norme aux Caisses d'Épargne à la gestion déficiente (notamment les basques) et à celles bien gérées. Une discrimination basée non seulement sur les résultats obtenus, mais sur leur propre nature (coefficients de garantie différents selon la nature des entreprises : plus exigeants pour les Caisses d'Épargne). Et obligeant ainsi, en quelque sorte, les Caisses d'Épargne à se convertir en banques, notamment par des fusions à froid (SIP), qui les vident de leur propre essence (l'intermédiation financière) et les condamnent à survivre à comme des fondations spéciales.

La perte du caractère social, du lien territorial et de l'engagement en faveur du développement socio-économique, défendu par la moitié du système financier au siècle dernier vis-à-vis de leurs régions d'origine (comme dans le cas d'Euskadi), est également un exemple de recentralisation. Et le tout sans le moindre soupçon d'autocritique ou de responsabilité face au manquement évident de la Banque d'Espagne à ses obligations, en permettant consciemment la concentration du risque sectoriel de certaines entités financières, qui a déclenché le processus de perte d'identité.

Dans ce contexte, il est plus que jamais nécessaire de travailler dur en faveur d'une vision distinctive des signes de notre propre identité, ni meilleurs ni pires que ceux de nos voisins, mais tout simplement différents : en faveur du droit du peuple basque à réaliser une vision de pleine participation et intégrée dans des unités qui dépassent le niveau de l'État, coexistant avec d'autres réalités et contribuant au fonds commun, avec notre propre contribution. Cet objectif, de même que ceux impulsés par Gaindegia, sont donc essentiels pour développer notre société à partir d'une idiosyncrasie partagée par la plupart des citoyens qui vivent, apprécient et aiment Pays Basque. Bref, pour regagner notre confiance en tant que peuple.



Biztanleria eta Lurraldea

Marta Luxán Serrano / Unai Martín Roncero
Soziologoak · UPV/EHUko Irakasleak

2010. urtean Euskal Herrian 3.106.800 pertsona bizi dira eta azken hamar urtetan izandako hazkundea migrazio mugimenduen ondorioz gertatu da batez ere. Egun Euskal Herrian 149 biztanle/km^2-ko dentsitatea badugu ere, populazio gehiena Hegoaldean eta tamaina handiko udalerrietan bizi da, lurraldearekiko banaketa oso desorekatua izanik. Bestalde, Europarekin alderatuz gero, Euskal Herriko biztanleriaren dentsitatea altuagoa da, hau da, biztanle gehiago dugu kilometro karratuko.

Adin-taldeen arteko banaketari dagokionez, biztanleriaren zahartzea areagotzen ari da, 65 urte eta gehiagokoen proportzioa gero eta handiagoa baita (%19a 2010. urtean). Zenbait demografok zahartze demografikoaz baino bizi-iraupenaren demokratizazioaz hitz egiten du, prozesuaren alde positiboak azpimarratu nahian.

Beste adin-taldeei dagokienez, azken hamar urtetan 15 urte beherakoen kopurua mantendu da (%13a baino zerbait gehiago), adin zentraletan daudenen proportzioa pitin bat gutxitu den bitartean. Zahartze demografikoak sozialki onuragarriak diren ondorio ugari baditu ere, izango dituen eragin kaltegarriei arreta handiagoa eskaini ohi zaie. Europarekin alderatuz gero, Euskal Herrian pertsona nagusien proportzio nabarmen altuagoa dela ondorioztatzen dugu.

Jaiotza eta heriotza tasak aztertzean, 2010ean mila biztanleko ia 10 jaiotza eta 9 heriotza gertatu direla ikus dezakegu. Hau da, 2001. urteko datuekin alderatuz gero, mila biztanleko haur bat gehiago jaio da eta, heriotzei dagokionez, oso tasa antzekoa dugu. Europar Batasuneko datuei erreparatzen badiegu, Euskal Herriko tasak Europar Batasuneko batez bestekotik gertu daude, gurean txikiagoak badira ere. Edozein kasutan, Euskal Herrian ikertutako epean jaiotza-tasa handitu egin da, beraz egoera zertxobait aldatzen ari dela ondoriozta dezakegu. Etorkizunari begira, jaiotza eta heriotza-tasen joeraz gain, migrazio mugimenduen nondik norakoak erabakigarriak izango dira.

Populazio gehiena Hegoalden eta tamaina handiko udalerrietan bizi da, lurraldearekiko banaketa oso desorekatua izanik

Biztanleria eta lurraldea	Urtea	Euskal Herria		Europar Batasuna-27		AEB		Japonia	
Biztanleria (milaka)	2000-2010	2.909,12	3.106,80	482.767,71	501.103,42	282.193,48	310.233,00	126.697,28	126.804,00
Azalera eta biztanleriaren dentsitatea (bizt./Km^2)	2000-2010	139,34	148,83	112,20	116,62	30,8	33,86	344,82	344,58
Biztanleria adin taldeka (%) <=14	2000-2010	13,5	13,82	17,24	15,60 5	21,36	20,16 5	14,58	13,49 5
Biztanleria adin taldeka (%) >=65	2000-2010	17,76	19,07	15,60	17,20 5	12,43	12,89 5	17,37	22,20 5
Jaiotzak (1000 biztanleko)	2001-2009	8,91	9,93	10,38	10,75	14,00	13,83	9,00	8,00
Heriotzak (1000 biztanleko)	2001-2009	8,90	9,03	9,90	9,70	8,00	8,38	8,00	10,00

Iturria: INE, INSEE, EUROSTAT, US Census Bureau.
[5] Azken datuak 2009 urtekoak.

Ekonomia: aberats txikia

Joseba Barandiaran
Ekonomialaria

Ekonomia [3]	Urtea	Euskal Herria		Europar Batasuna-27		AEB		Japonia	
BPG biztanleko (EAPn, €tan)	2001-2009	23.572	31.064	19.800	23.600	31.000	36.800	22.500	25.800
Lanaren produktibitatea enplegatuko (€)	2001-2009	56.323	72.691	46.884	54.144	64.459	78.297 [1]	44.639	54.060 [1]
Enpresa inbertsioa (BPGren %)	2001-2009	26,05	25,67	20,24	19,05	19,66	15,72	24,67	21,15
I+Gko gastua (BPGren %)	2001-2009	1,13	1,83	1,86	2,01	2,71	2,77 [2]	3,12	3,44 [1]
Esportazioak (BPGren %)	2006-2009	26,93	23,02	39,60	36,60	11,00	11,20	16,10	12,60
Inportazioak (BPGren %)	2006-2009	26,00	17,02	39,20	35,60	16,70	13,90	14,90	12,30
Kanpo-saldoa (BPGren %)	2006-2009	0,93	6,00	0,40	1,00	-5,70	-2,70	1,30	0,30
Pertsona aktiboko errenta erabilgarria (€)	2001-2007	27.977	36.924	-	-	-	-	-	-

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE, NEI, INSEE.
[1] Azken datuak 2007 urtekoak.
[2] Azken datuak 2008 urtekoak.
[3] 2011 urtean BPGaren gaineko adierazle guztiak berrikusi dira.

XXI. mendeko lehen hamarkada oparoa izan da Euskal Herriaren aberastasun ekonomikoarentzat. Nabarmentzekoa biztanleko Barne Produktu Gordinean (BPG) izandako aurrerakada.

- %31,8ko hazkunde metatua izan du 2001-2009 epealdian, taulako beste gune ekonomikoek baino nabarmen handiagoa: EB-27an %19,2 hazi da biztanleko BPGa, AEBetan %18,7 eta, azkenik, Japonian %14,7.
- Kopuru absolutuetan, 2009an EB-27k zuen biztanleko BPGa, Euskal Herriak 2001an zuenaren parekoa da: EB-27ren batez bestekoaren 8 urte aurretik dabil Euskal Herria; Europa osoa ez baita Alemania.
- Euskal Herriak 2009an duen maila AEBk 2001ean zuen bertsua da: 8 urteko atzerapena, beraz, potentzia hegemoniko ohiarekiko.
- Japonian ekonomia eta populazio hazkunde apala bateratu dira. Azken adierazle horretan duten antzekotasunak, biztanleko BPGaren hazkunde handia ahalbidetu du ordea Euskal Herrian (Japonian ez bezala). Jaiotza eta immigrazio tasa baxuen abantaila hori, epe erdian hazkunde eta ongizaterako mehatxu bihur liteke ordea.

Beraz, Euskal Herria XXI. mendean herrialde aberats gisa azaltzen da. Biztanleko BPGak ordea ez du deus adierazten aberastasun horren banaketaz eta, hortaz, hazkunde ekonomikoa ongizate sozialarentzako baldintza beharrezkoa izan liteke; ez ordea nahikoa.

Esportazio eta inportaziok lekuko, ekonomia txiki eta irekia da Euskal Herrikoa

Ezinbestean, populazio hazkunde apala eta biztanleko BPG igoera bateratzeko, enplegatuko lanaren produktibitatearen igoera handia gertatu da: %29,1ekoa. Tartea jan dio AEBri, %21,5 hazi baitzen han. 2009an Japonia eta EB-27 Euskal Herriak 2001ean zuen mailaz azpitik daude.

Enpresa inbertsioen adierazleak BPGaren portzentaje handiagoa erakusten du Euskal Herrian epealdi osoan, gainontzeko gune ekonomikoetan baino. Akaso Hegoaldeko sistema fiskal berezia medio, enpresa inbertsioa erlatiboki handiagoa da Euskal Herrian eta, aldiz, sektore publikoarena txikiagoa.

I+G-ko gastua zazpi hamarren handitu arren (2009an %1,83 izateraino), 2010erako Lisboako Itunak markatzen zuen %3ko helburua urrun ageri da Europan eta taulako emaitza baxuenak ditu Euskal Herriak, Japoniak ia bikoiztu egiten duelarik bere I+G gastua.

Ezinbestean, esportazio eta inportazioak lekuko, ekonomia txiki eta irekia da Euskal Herrikoa (energia eta lehengaiak inportatu eta, batik bat, produktu manufakturatu eta erdi manufakturak saltzen dituena). EB-27 ere ekonomia ireki lez ageri da, 27 estatuok elkarri saldutakoa kanpo sektorean zenbatzen delako.

Gizartea

Nekane Altzelai
NUPko Irakaslea

Bigarren hezkuntza gainditu duten herritarren tasak erakusten duen bilakaeraren arabera, Euskal Herriko hiritarrek, ikasketa mailari dagokionez hobekuntza esanguratsua egin dute, nahiz eta Europako bataz bestekoarekin alderatuz, maila hau, oraindik, baxuagoa den.

Hala ere, aipagarria da, goi hezkuntzako ikasketak gero eta garrantzi handiago hartzen ari direla, lan merkatuak prestatutako esku lana eskatzen duelako batez ere. Zentzu honetan, 20 eta 29 urte bitarteko hiritarren artean graduatutakoen portzentajea Europar Batasuneko altuenetako bat da, zientzia eta teknologian graduatuak gehiengoa direlarik. Datu hau Finlandiako kasuarekin alderatuta, adibide adierazgarria da.

Honela, 2008. urte arte, BPGaren hazkunde itzelarekin bat egiten duten urteetan, enplegu tasak gorako joera nabarmena izan zuen, inguruko ekonomiak baino askozaz azkarrago handitu zen (2001. urtean Euskal Herriko enplegu tasa %61,1ekoa zen eta Finlandiakoa %68,1; 2007an Euskal Herrikoa %68,25 zen eta Finlandiakoa %70,3), honela 2007. urtean langabezia tasa, teknikoa izatera iritsi zen.

Baina urte horretatik aurrera enplegu tasa nabarmen jaitsi da eta Europako gainontzeko herrialdeetan baino azkarrago (2009. urterako Euskal Herriko enplegu tasa %61,1eko mailaraino jaitsi zen, aldiz Finlandiakoa %70,3an mantendu zen), honela lan merkatuak ekonomiaren koiunturarekiko duen sentsibilitatea eta behinbehinekotasuna aditzera ematen du.

Bestalde, aipagarria da lan merkatuaren jarrera desberdina dela gizonezko edo emakumezkoen kasuan.

Gizarte babesa, BPGaren portzentajetan emanda, azken hamarkadan konstante mantendu dela esan genezake, eta Europar Batasuneko bataz bestekoarekin alderatuz maila askoz baxuagoan. Egoera hau, BPGaren hazkundea, gizarte babeserako gastuaren hazkundea baino proportzio altuagoan eman delako gertatu dela azal genezake

Aldiz deigarriak egiten dira, urtez urte, pobrezia arriskuan dagoen hiritar tasaren aldaketak. Jarrera hau, gizarte babeserako onartu diren neurri desberdinen eragina aintzat hartuz uler daiteke. Baina kontutan izan behar dugu, azken hiru urte hauetan langabeziagatiko laguntza jasotzen duten hiritarren kopuruak gora egin duela, pentsionista direnen kopuruak ere gora egin duela, bai eta Eukal Herriko erakunde desberdinek ematen dituzten laguntzen onuradun kopuruak ere, aldiz gastua nominalki bere horretan mantendu da, honek esan nahi du onuradun bakoitzak jasotzen duen diru kopurua gero eta txikiagoa dela.

Gizartea	Urtea	Euskal Herria		Europar Batasuna-27		AEB		Japonia	
Hezkuntza maila (%) [4]	2001-2009	34,43	41,30	37,82	42,57 [2]	-	-	-	-
Zientzia eta teknologiako graduatuak (milako)	2003-2007	22,48	24,38	12,30	13,80	10,90	10,10	13,20	14,40
Enplegu-tasa (15-64 urte) (%)	2000-2010	59,49	63,48	63,40	64,60 [5]	74,10	67,60 [5]	68,90	70,00 [5]
Emakumeen enplegu-tasa (%)	2000-2010	40,04	58,72	54,1	58,60 [5]	67,8	63,40 [5]	56,7	59,80 [5]
55-64 urte bitartekoen enplegu-tasa (%)	2001-2009	35,46	41,24	38,8	46,00	58,60	60,60	62,00	65,50
Langabezia-tasa (%)	2002-2010	-	-	8,92	9,59	5,78	9,63	5,36	5,06
EAEn, EUSTATen arabera	2002-2010	7,72	9,67	-	-	-	-	-	-
Hegoalden, INEren arabera	2002-2010	8,65	10,64	-	-	-	-	-	-
Emakumeen langabezia-tasa (%)	2002-2010	-	-	9,70	9,50	5,60	8,62	5,10	4,58
EAEn, EUSTATen arabera	2002-2010	11,50	9,44	-	-	-	-	-	-
Hegoalden, INEren arabera	2002-2010	13,04	11,19	-	-	-	-	-	-
Iraupen luzeko langabezia-tasa (%)	2002-2009	-	-	4,00	2,98	0,50	1,50	1,70	1,40
EAEn, EUSTATen arabera	2002-2009	2,81	1,96	-	-	-	-	-	-
Hegoalden, INEren arabera	2002-2009	3,69	2,98 [8]	-	-	-	-	-	-
Pobrezian murgiltzeko arrisku-tasa (%) [6]	2005-2009	9,77	9,32	16,40	16,30	-	-	-	-
Gizarte babesa (BPGren %) [7]	2001-2006	20,00	19,90	26,41	26,71	-	-	-	-

Iturria: INCEE, EUROSTAT, INE, INSEE. [2] Azken datuak 2008 urtekoak. [4] Gutxienez bigarren hezkuntza dutenak. [5] Azken datuak 2009 urtekoak. [6] Erabilitako metodologia: Europar Batasunean, 2000 urtetik aurrera Lisboako Estrategian onartua, oinarrizko errentaren medianaren %60. [7] 2011 urtean BPGren gainean egindako berrikuspenaren araberakoa. [8] 2010 urtean 4,07ko balorea hartzen du tasak INEren arabera.

Pobrezia-arriskua neurtzeko metodoari buruzko oharra

Nekane Jurado
Lizentziatua da Ekonomian, Zientzia Aktuarial eta Finantzarioetan, Psikologia Klinikoan, eta master bat egin du Ogasun eta Finantza Publikoan / ELKARTZEN gizarte-mugimenduko kide da / GAINDEGIAko zuzendaritza-batzordeko kide da

Europar Batasunak medianaren %60ko metodoa erabiltzen du 2000. urteaz geroztik, hau da, Lisboako Estrategia onartu zuenetik[1]. Horrenbestez, kontuan izan behar da neurri estatistiko horrek balioen kontzentrazioaren kontrako joera adierazten duela. Bestela esanda, zenbat eta handiagoa izan errenten kontzentrazioa, orduan eta txikiagoa izango da medianaren balioa. Horrela jokatuta, Pobreziaren Atalaseko balioa txikiagotu egiten da, eta, noski, jende gutxiago kontabilizatzen da atalase-balio horretatik behera. Esan dezakegu maniobra politiko bat izan dela Pobreziaren Atalasea kalkulatzeko modua aldatzea, Europar Batasuneko estatu kideetan pobrezia pixkanaka gora egiten ari dela ezkutatzeko, soldata gero eta prekarioagoaren ondorioz.

Adibidez: pentsa dezagun bi herrialdek aberastasun-kantitate bera dutela (errenta edo aberastasuneko 50.000 unitate), eta A herrialdean errentak kontzentratuago daudela B herrialdean baino, azken horretan errenta hobeto banatuta dagoelako. Bi herrialdeetan 10 pertsonak osatutako lagin bat har dezakegu urtean eskuratzen duten errentaren arabera, eta haien oinarrizko estatistikak kalkula ditzakegu, Pobrezia Atalasea zehazteko. Agerikoa da aberastasunaren eta pertsonen kantitateak berdinak badira, batez besteko errenta berbera izango dela bi herrialdeetan, baina interesgarria da ikustea zer paradoxa agerrarazten diguten medianak eta, haren bidez, Pobreziaren Atalaseak.

Adibideak gardentasunez azaltzen digu egoera: A herrialdean pertsonen %60 ez da iristen batez besteko errenta eskuratzera, eta B herrialdean, berriz, portzentajea %40koa da[2]. A herrialdeko pertsona pobreenen aberastasuna edo errenta bikoizten dute B herrialdeko pertsona txiroenek, baina datuek esaten digute B herrialdean dagoen pobrezia-ehunekoa askoz txikiagoa, erdia, dela A herrialdean. Ikusi dugu zer balio duen Europar Batasuneko adierazle horrek; beraz, agerikoa da Euskal Herriko erakunde publikoek pobrezia-arriskuari buruz ematen dizkiguten datuak erabat distortsionatuta daudela, errenten kontzentrazioa oso handia baita.

Esan dezakegu maniobra politiko bat izan dela Pobreziaren Atalasea kalkulatzeko modua aldatzea, Europar Batasuneko estatu kideetan pobrezia pixkanaka gora egiten ari dela ezkutatzeko

	Eskuratutako errenta A Herrialdea	Eskuratutako errenta B Herrialdea
1. pertsona	10.000	9.000
2. pertsona	10.000	7.000
3. pertsona	9.000	7.000
4. pertsona	6.000	6.000
5. pertsona	3.000	5.000
6. pertsona	3.000	5.000
7. pertsona	3.000	4.000
8. pertsona	3.000	3.000
9. pertsona	2.000	2.000
10. pertsona	1.000	2.000
Batez bestekoa	**5.000**	**5.000**
Mediana	**3.000**	**5.000**
Medianaren %60 PA	**1.800**	**3.000**
Pobrezia %	**%10**	**%20**

Iturria: Jurado, N (2010): "Mujeres en precario: crisis social y feminización-infantilización de la pobreza".

1.- Balio estatistiko bat da mediana, errentaren balioa kasu honetan, eta bi zati berdinetan banatzen du biztanleria. Batez besteko diru-sarreren eta medianaren arteko diferentziari begiratuta, ikusten da errenta-kontzentrazio handia ematen dela eskalaren goiko aldean. Diferentzia hori %29koa da Euskal Autonomia Erkidegoan.

2.- Baina datuak aldatu egiten dira medianarekiko; izan ere, medianaren azpitik daude, A herrialdean, pertsonen %20, eta pertsonen %40 B herrialdean, eta Pobreziaren Atalasea medianaren %60an finkatzen denez, datuek diote pobrezia handiagoa dela B herrialdean, hau da, berdintasun handiagoko herrialdean.

Enplegu tasaren bilakaera							
Enplegu tasa sektoreka (%)		**2008**	**2009**	**2010**	**2008-2009**	**2009-2010**	**2008-2010**
Araba	Orotara	55,79	52,94	52,35	-2,86	-0,59	-3,45
	Nekazaritza	1,19	0,99	1,13	-0,20	0,14	-0,06
	Industria	18,28	15,69	14,89	-2,59	-0,80	-3,39
	Eraikuntza	3,90	3,60	3,20	-0,30	-0,40	-0,70
	Zerbitzuak	32,43	32,66	33,13	0,23	0,47	0,70
Bizkaia	Orotara	51,34	49,56	49,48	-1,77	-0,08	-1,86
	Nekazaritza	0,53	0,46	0,36	-0,07	-0,10	-0,17
	Industria	10,89	9,75	9,72	-1,14	-0,03	-1,17
	Eraikuntza	4,55	4,37	4,22	-0,18	-0,15	-0,33
	Zerbitzuak	35,37	34,98	35,18	-0,39	0,20	-0,19
Gipuzkoa	Orotara	55,32	52,67	52,34	-2,65	-0,33	-2,99
	Nekazaritza	0,64	0,27	0,34	-0,37	0,07	-0,31
	Industria	16,07	14,38	14,67	-1,70	0,30	-1,40
	Eraikuntza	4,61	4,10	3,62	-0,51	-0,48	-0,99
	Zerbitzuak	33,99	33,92	33,71	-0,08	-0,21	-0,29
Nafarroa Garaia	Orotara	55,28	52,03	50,91	-3,25	-1,12	-4,37
	Nekazaritza	2,36	2,34	2,08	-0,03	-0,26	-0,29
	Industria	15,06	14,59	12,93	-0,47	-1,66	-2,14
	Eraikuntza	6,09	4,63	4,12	-1,46	-0,51	-1,97
	Zerbitzuak	31,76	30,46	31,79	-1,30	1,32	0,03
Iparralde	Orotara	47,51	47,03	46,55	-0,48	-0,47	-0,96
	Nekazaritza	2,14	2,12	2,10	-0,02	-0,02	-0,04
	Industria	6,10	6,04	5,97	-0,06	-0,06	-0,12
	Eraikuntza	3,73	3,69	3,65	-0,04	-0,04	-0,08
	Zerbitzuak	35,55	35,18	34,83	-0,36	-0,35	-0,72
Euskal Herria	Orotara	53,13	50,87	50,43	-2,26	-0,44	-2,70
	Nekazaritza	1,14	1,00	0,94	-0,14	-0,06	-0,20
	Industria	13,21	12,03	11,66	-1,18	-0,37	-1,55
	Eraikuntza	4,73	4,22	3,91	-0,51	-0,31	-0,82
	Zerbitzuak	34,05	33,62	33,92	-0,44	0,31	-0,13

Iturria: EUSTAT, INSEE, INE.

Langabezi tasaren bilakaera %	**2008-2010**	
	EUSTAT	**INE**
Araba	7,30	6,44
Gipuzkoa	4,10	2,97
Bizkaia	5,67	3,91
Nafarroa Garaia	5,12	5,11
Iparralde	1,35	1,35
Euskal Herria	5,01	4,09

Iturria: EUSTAT, INSEE, INE.

Langabezi tasaren bilakaera %	**2007-2010**	
	EUSTAT	**INE**
Araba	7,71	6,27
Gipuzkoa	4,82	3,33
Bizkaia	6,03	4,36
Nafarroa Garaia	7,06	7,05
Iparralde	1,71	1,71
Euskal Herria	5,79	4,75

Iturria: EUSTAT, INSEE, INE.

EHko enplegu tasa %	**2007**	**2008**	**2009**	**2010**
Emakumeak	59,19	60,24	58,03	58,70
Gizonak	77,30	75,94	70,14	69,84

Iturria: EUSTAT, INSEE, INE.

Establezimenduen demografia					
		2006	2007	2008	2009
Iparralde	Industria	1.877	1.766	1.773	1.919
	Eraikuntza	2.534	2.830	2.900	3.103
	Zerbitzuak	20.140	20.532	21.215	21.955
	Guztira	24.551	25.128	25.888	26.977
Araba	Industria	2.452	2.524	2.478	2.410
	Eraikuntza	3.669	4.186	4.758	4.720
	Zerbitzuak	18.050	19.575	19.505	19.661
	Guztira	24.171	26.285	26.741	26.791
Gipuzkoa	Industria	5.713	5.913	5.796	5.783
	Eraikuntza	10.465	11.482	13.177	12.494
	Zerbitzuak	50.086	53.730	52.760	52.432
	Guztira	66.264	71.125	72.137	70.709
Bizkaia	Industria	6.603	6.774	6.714	6.691
	Eraikuntza	12.905	14.158	16.713	16.465
	Zerbitzuak	76.363	80.968	80.873	81.437
	Guztira	95.871	101.900	104.838	104.593
Nafarroa Garaia	Industria	4.360	4.507	4.637	4.876
	Eraikuntza	7.339	7.850	8.202	7.270
	Zerbitzuak	34.407	36.131	36.716	36.894
	Guztira	46.016	48.402	49.462	48.954
Euskal Herria	Industria	21.005	21.484	21.398	21.679
	Eraikuntza	36.912	40.506	45.750	44.052
	Zerbitzuak	199.046	210.936	211.069	212.379
	Guztira	256.873	272.840	279.066	278.024

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE.

Euskal Herriko establezimendu kopuruaren bilakaera, 2006-2009							
	2006	2007	2008	2009	2006-2009 (%)	2007-2009 (%)	2008-2009 (%)
Iparraldea	24.551	25.128	25.888	26.977	9,88	7,36	4,21
Araba	24.171	26.285	27.896	26.791	10,84	1,93	-3,96
Gipuzkoa	66.264	71.125	72.137	70.709	6,71	-0,58	-1,98
Bizkaia	95.871	101.900	104.838	104.593	9,10	2,64	-0,23
Nafarroa Garaia	46.016	48.402	49.462	48.954	6,38	1,14	-1,03
Guztira	256.873	272.840	280.221	278.024	8,23	1,90	-0,78

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE.

Establezimenduak nortasunaren arabera	
2006	Jabegoa bertakoa %
Araba	90,71
Bizkaia	90,85
Gipuzkoa	94,07
Nafarroa Garaia	93,72
Lapurdi	84,68
Nafarroa Beherea	93,67
Zuberoa	92,22
Euskal Herria	91,46

Iturria: Sirenne, Dirae eta Nafarroako Merkataritza Ganbara.

		2006	2007	2008	2009
Lanaldi osoa	Gizonezkoak	64,06	64,03	62,78	61,89
	Emakumezkoak	35,91	35,97	37,22	38,10
Lanaldi partziala	Gizonezkoak	17,22	17,08	16,76	16,03
	Emakumezkoak	82,94	82,93	83,18	84,07
Lanaldi guztiak	Gizonezkoak	57,42	57,19	56,47	55,35
	Emakumezkoak	42,58	42,81	43,53	44,65

Iturria: EUROSTAT.

Sektoreka batazbesteko langile kopuruaren bilakaera establezimenduko					
		2006	2007	2008	2009
Araba	Industria	19,0	18,2	19,9	17,7
	Eraikuntza	3,2	2,5	2,2	2,1
	Zerbitzuak	4,7	4,4	4,5	4,5
	Guztira	5,9	5,5	5,5	5,3
Bizkaia	Industria	16,7	16,1	16,4	14,7
	Eraikuntza	2,3	2,3	2,1	1,9
	Zerbitzuak	4,0	3,8	3,8	3,8
	Guztira	4,8	4,5	4,5	4,4
Gipuzkoa	Industria	15,8	15,9	16,1	14,6
	Eraikuntza	3,5	3,4	2,7	2,7
	Zerbitzuak	4,4	4,2	4,4	4,3
	Guztira	5,1	4,9	4,8	4,7
Nafarroa Garaia	Industria	16,6	16,0	17,0	15,9
	Eraikuntza	4,2	4,7	3,9	3,4
	Zerbitzuak	4,9	4,7	4,5	4,4
	Guztira	5,9	5,7	5,6	5,4
Iparralde	Industria	7,4	8,3	8,3	7,7
	Eraikuntza	3,3	3,2	3,1	2,9
	Zerbitzuak	4,2	4,2	4,0	3,9
	Guztira	4,4	4,4	4,2	4,1
Euskal Herria	Industria	15,8	15,6	16,2	14,6
	Eraikuntza	3,3	3,2	2,7	2,5
	Zerbitzuak	4,4	4,2	4,2	4,2
	Guztira	5,2	5,0	4,9	4,7

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE.

Establezimendu kopuruaren bilakaera sektoreka (gordinak)				
		2007-2008	2007-2009	2008-2009
Araba	Industria	-46	-114	-68
	Eraikuntza	572	534	-38
	Zerbitzuak	-70	86	156
	Guztira	456	506	50
Bizkaia	Industria	-60	-83	-23
	Eraikuntza	2.555	2.307	-248
	Zerbitzuak	-95	469	564
	Guztira	2.938	2.693	-245
Gipuzkoa	Industria	-117	-130	-13
	Eraikuntza	1.695	1.012	-683
	Zerbitzuak	-970	-1.298	-328
	Guztira	1.012	-416	-1.428
Nafarroa Garaia	Industria	130	369	239
	Eraikuntza	352	-580	-932
	Zerbitzuak	585	763	178
	Guztira	1.060	552	-508
Iparralde	Industria	7	153	146
	Eraikuntza	70	273	203
	Zerbitzuak	683	1.423	740
	Guztira	760	1.849	1.089
Euskal Herria	Industria	-86	195	281
	Eraikuntza	5.244	3.546	-1.698
	Zerbitzuak	133	1.443	1.310
	Guztira	6.226	5.184	-1.042

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE.

Enpresa kopurua langile kopuruaren arabera %				
2010	Guztira	Mikroenpresak (0-9)	10-49 artean	50etik gora
Araba	100,0	92,9	6,0	1,1
Gipuzkoa	100,0	94,6	4,5	0,8
Nafarroa	100,0	93,5	5,4	1,1
Bizkaia	100,0	94,3	4,7	1,0
Iparraldea	100,0	93,1	6,1	0,8

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE. * Lehenengo sektorean salbuesturik.
Oharra Nafarroa Garairako: altetan aintzat hartu dira orain bi urte aktibatuta zeuden enpresen ber-aktibazioa.

Lanbide banaketa zonaldeka	Etxe, herri, dep. berekoak	Kanpotarra	Orotara	% kanpotarra	% bertakoak
Nekazariak					
Kostaldea	197,76	11,62	209,38	5,55	94,45
Bitarteko zonaldea	1.097,87	15,98	1.113,85	1,44	98,56
Barnekaldea	3.053,41	11,88	3.065,29	0,39	99,61
Orotara	4.349,04	39,48	4.388,52	0,90	99,10
Artisauak, komertzialak eta enpresa kudeatzaileak					
Kostaldea	5.135,59	695,54	5.831,13	11,93	88,07
Bitarteko zonaldea	4.141,48	280,28	4.421,75	6,34	93,66
Barnekaldea	4.516,85	95,57	4.612,42	2,07	97,93
Orotara	13.793,92	1.071,38	14.865,30	7,21	92,79
Goi-mailako kuadro eta lanbide intelektualak					
Kostaldea	12.083,05	2.819,99	14.903,04	18,92	81,08
Bitarteko zonaldea	7.149,02	898,37	8.047,39	11,16	88,84
Barnekaldea	5.295,83	263,26	5.559,09	4,74	95,26
Orotara	24.527,90	3.981,62	28.509,52	13,97	86,03
Maila ertaineko lanbideak					
Kostaldea	13.980,01	3.468,03	17.448,04	19,88	80,12
Bitarteko zonaldea	7.126,09	1.134,65	8.260,74	13,74	86,26
Barnekaldea	2.852,66	295,75	3.148,41	9,39	90,61
Orotara	23.958,76	4.898,43	28.857,19	16,97	83,03
Enplegatuak					
Kostaldea	21.799,93	3.867,97	25.667,90	15,07	84,93
Bitarteko zonaldea	9.623,45	1.023,32	10.646,77	9,61	90,39
Barnekaldea	4.280,23	308,01	4.588,24	6,71	93,29
Orotara	35.703,61	5.199,30	40.902,91	12,71	87,29
Esku-langileak					
Kostaldea	35.326,98	5.685,82	41.012,80	13,86	86,14
Bitarteko zonaldea	17.482,75	1.638,11	19.120,86	8,57	91,43
Barnekaldea	8.917,58	591,09	9.508,68	6,22	93,78
Orotara	61.727,32	7.915,02	69.642,34	11,37	88,63

Iturria: INSEE 2007.

Langile ohiak	Bertakoak	Dep. Berekoak	Kanpotarrak	Orotara	Bertako+dep bereko
Kuadro eta erdi mailako langile ohiak					
Kostaldea	11.502	796	1.403		12.298
Bitarteko zonaldea	3.225	329	472		3.555
Barnekaldea	1.315	147	139		1.462
Orotara	16.043	1.273	2.015	19.332	17.316
Nekazari ohiak					
Kostaldea	737	47	96		784
Bitarteko zonaldea	1.307	16	96		1.324
Barnekaldea	3.270	27	126		3.298
Orotara	5.315	92	318	5.726	5.407
Artisauak, komertzialak eta enpresa kudeatzaile ohiak					
Kostaldea	4.517	302	262		4.820
Bitarteko zonaldea	1.695	140	160		1.835
Barnekaldea	1.239	52	95		1.292
Orotara	7.452	495	518	8.466	7.948
Enplegatu eta esku-langile ohiak					
Kostaldea	23.932	1.261	1.026		25.193
Bitarteko zonaldea	7.793	581	856		8.375
Barnekaldea	4.925	347	446		5.273
Orotara	36.651	2.191	2.329	41.171	38.842

Oharra: Etxe-herri-departamendu berekoak zein kanpotarrak azken bost urteko bizitokia kontutan hartutako sailkapenaren arabera.

	ISCED 0-6 biztanleri osoarekiko %		ISCED 1 eta 2 % biztanleri osoarengan		ISCED 3 eta 4 % 15 eta 24 urte bitarteko biztanleriarengan		ISCED 5-6 % biztanleri osoarekiko	
Guztira	2000	2009	2000	2009	2000	2009	2000	2009
European Union								
Région wallonne	26,00	26,23	11,89	11,11	56,36	-	3,29	3,64
Germany	20,50	19,96	11,22	9,96	35,01	35,18	2,50	2,97
Aquitaine	22,03	20,97	11,02	10,57	34,84	33,37	3,03	3,09
Itä-Suomi	23,84	24,28	11,62	9,98	49,36	60,39	4,10	4,80
Euskal Herria	20,24	20,12	9,53	9,92	25,23	27,84	4,42	3,35

	ISCED 3GEN (Batxilergoa eta baliokideak) ISCED 3 mailako guztiengan		ISCED 5 eta 6 % ikasle guztiengan (ISCED 0 eta 6 bitarteko guztiak)		ISCED 5 eta 6 ko ikasleen proportzioa 20 eta 24 urte bitarteko biztanleriarengan %		ISCED 6 % ikasle guztiekiko	
Total	2004	2009	2000	2009	2000	2009	2000	2009
European Union	39,43		14,55		48.9	:	-	-
Région wallonne	38,67	37,82	12,65	13,89	53,66	:	-	0,46
Germany	38,78	46,78	12,20	14,90	45,40	49,77	-	-
Aquitaine	42,85	54,50	13,77	14,72	51,66	53,83	0,61	0,44
Itä-Suomi	38,55	30,41	17,21	19,77	72,22	84,11	0,89	0,90
Euskal Herria	55,50	53,55	21,81	16,66	58,13	67,21	0,78	0,62

ISCED 6 % ikasle guztiekiko								
	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Gizonezkoak								
European Union	0,44	0,49	0,50	0,49	0,56	-	0,48	-
Région wallonne	0,42	0,41	0,40	0,40	0,40	0,37	0,45	0,52
Germany	-	-	-	-	-	-	-	-
Aquitaine	0,64	0,67	0,65	0,59	0,51	0,50	0,50	0,50
Itä-Suomi	0,65	0,62	0,67	0,63	0,67	0,62	0,73	0,65
Euskal Herria	0,76	0,76	0,79	0,78	0,73	0,66	0,58	0,59
Emakumezkoak								
European Union	0,37	0,43	0,45	0,44	0,53	-	0,45	-
Région wallonne	0,26	0,24	0,24	0,24	0,25	0,26	0,32	0,40
Germany	-	-	-	-	-	-	-	-
Aquitaine	0,54	0,56	0,54	0,52	0,39	0,38	0,39	0,39
Itä-Suomi	1,16	1,06	1,16	1,06	1,20	1,18	1,26	1,16
Euskal Herria	0,81	0,77	0,79	0,81	0,76	0,69	0,61	0,65

Iturria: EUROSTAT.

ISCED MAILAK	Mailaren ezaugarriak
0	Lehen Hezkuntzatik beherakoa
1	Lehen Hezkuntza
2	Derrigorrezko Bigaren Hezkuntza DBH
3	DBH Ondorengo Hezkuntza
4	
5	Goi Mailako Hezkuntza
6	Goi Mailako Hezkuntza: Diploma aurreratuak eta Doktorego tesiak

Zifratan gakoa

2010 urteko ekonomia eta gizarteko zifra adierazgarriak

84

2010ean 84 langile hil ziren lan istripuan; 2009ko kopuru bera. Lau urtean %28,2 murriztu da hildakoen kopurua. Lurraldeei erreparatuz, ezbeharren kopurua urritu egin da, batez ere Bizkaian, aldea %45,83a izanik.

Iturria: LAB sindikatua.

210.160

Euskal Herrian 2010. urtean 210.160 atzerritar zenbatu ziren, horietatik 99.599 emakumeak ziren eta gainontzeko 110.561 gizonezkoak; feminizazio tasa, beraz, %47, 4koa. Jatorriz, etorkinen %41 Latinoamerikarra zen, %28a EBtik zetorren, %15,5 Magrebetik eta %3,38, berriz, Txinatik. Euskal Herrira gerturaturiko etorkinen artean, Amerika eta Latinoamerikar jatorrizkoen gehiengoa emakumezkoa zen, %58, gainerako herrialdeetan ez bezala.

Iturria: EUSTAT, INSEE, INE.

123,14

20 urtetik beheragoko 100 gazteko, adineko –65 urtetik gorako– 123 pertsona zeuden Euskal Herrian 2010ean. Zahartze tasarik altuena Bizkaian eta Iparralden pilatzen zen bitartean %151,09 eta %147,23 hurrenez hurren, tasarik baxuena Nafarroa Garaian jazo zen %110ekin. Joera horrek bat egiten du dependentzia tasarekin. Izan ere, Iparraldeko eta Bizkaiko adinduak baitira dependentzia tasarik altuena bizi dutenak %35,31 eta %30,23rekin, Euskal Herrikoa %28,71 den bitartean.

Iturria:INE, INSEE.

11,09

2009 urtean Nafarroa Garaian 1000 biztanleko 11,09 haur jaio zen eta Iparraldean 8,46. Nahiz eta azken lurralde honen datua Euskal Herriko bataz bestekoaren (9,85) azpitik egon, Iparralden soilik bikoiztu da ugalkortasun tasa 1999-2009 hamarkadan. Araban ugalkortasun tasa 10,45ekoa izan zen 2009an, Gipuzkoan 10,33koa eta Bizkaian 9,28koa.

Iturria: INE, INSEE.

20

2006-2010 urte artean internet konexioa duten etxebizitzen kopurua %19 igo da Araba, Bizkai eta Gipuzkoan eta %20 Nafarroa Garaian. Nahiz eta Hegoaldean etxebizitzen bi herenek konexioa izan, %65 eta %62 hurrenez hurren, EBko antzeko ezaugarri sozio ekonomikoak dituzten erregioekin alderatuta, badu zer hobeturik. Austriako Tirol, Salzburg eta Vorarlberg erregioetan portzentajea %73-77 artekoa da eta Östra Mellansverigeko erregioan, Suezian, %88koa.

Iturria: EUROSTAT.

9,52

Iparraldeko demografiari erreparatuz, Lapurdi izan da, 2000-2009 urte artean jaiotza tasaren bilakaera positiboa izan duen bakarra, 2.384 haur, %12ko hazkundea. Nafarroa Beherean eta Zuberoan, jaiotzak %9,52 eta %7,20 murriztu dira. Alta, heriotza kopuruarekin ez da gauza bera eman: aztertu epealdian, Nafarroa Beherean soilik murriztu dira heriotzak, %6,22, Lapurdin eta Zuberoan areagotu diren bitartean, %14,40 eta %3,85.

Iturria: INSEE

5.495.946

Euskal Herriko aireportuetako bidaiari kopurua 2010 urtean zehar 5.495.946koa izan zen. Bidaiari gehien garraiatzen dituen aeroportua Bilbokoa da, ia lau milioirekin. Bestelako zifretan, Miarritzeko aeroportuan ia milioi bat bidaiarik hegan egin zuten eta Hondarribin eta Iruñean ia 300.000k. Trafikorik apalena Gasteizko aeroportuak izan zuen 42.073 bidaiarirekin. Datuok EBko erregioekin alderatuz, 2009ko datuei erreferentzia eginez, Kataluinian 34.000.000 bidazti izan ziren eta Düsseldorfen, esaterako, 20.115.000.

Iturria: Bilbo, Iruñea, Hondarribi, Gasteiz, Miarritzeko aeroportuak, EUROSTAT.

-7,4

Gizarte segurantzan eraikuntza sektorean afiliatutakoen portzentajearen hazkundea negatiboa izan da 2008tik aurrera. 2008an, aldaketa -0,6 koa izan zen eta 2010eko azken lauhilekoan -7,4koa Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, Nafarroa Garaian aldiz, -2,4tik -7,9 igaro ziren aipatu epealdian. Guztizko kredituen bariazioak ere aldakuntza eman zuen, 12,2 eta 7,4 izatetik EAEn eta Nafarroa Garaian 2008an, 1 eta 1,6 izatera igaro ziren 2010eko 3. hiruhilekoan.

Iturria: FUNCAS.

95,6

Mundu mailan, 2050erako CO^2aren jaulkipenaren %85 murriztea 2000 urtearekiko, biztanleko eta urteko 0,43 t CO^2 gutxitzea lekarke. Euskal Herriaren kasuan, EAEn %95,6 jaitsi beharko lukete jaulkipenek, urtez urte %6,1eko erritmoan, Nafarroa Garaian %93,8 %5,4ko erritmoan eta Iparralden %5,2ko erritmoan %93.

Iturria:Bueno, Gorka: Escenario de reducción de emisiones de CO^2 en Euskal Herria, horizonte 2050.

-1,36

2008-2009 urte artean, Euskal Herrian, zerbitzu alorreko enpresen bilakaera negatiboa izan zen, %-1,36, aurreko urteko bilakaera ez bezala, positiboa izan baitzen %2,08. Joera alderantzizkoa izan zuen industria sektoreak, 2007-2008 urte artean enpresen kopurua %0,41 jaitsi baitzen baina 2008-2009an %1,25 igo.

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE.



Adituen analisia

- Zahartzaroaren argazkia.
- Euskal enpresen internazionalizazioa.
- Immigrazioa.
- Erretiro adina.

Testuaren jatorrizko hizkuntza: euskara

Euskal Herriko zahartzaroaren argazkia eta azterketa

Marta Luxán Serrano, Unai Martín Roncero
Soziologoak · UPV/EHUko Irakasleak

Gaindegiak artikulu hau idazteko eskatu zigunean, zahartzaroari baino zahartze prozesuari buruz idatzi behar genuela ulertu genuen, bai eta idatzi ere. Gerora, gaizki ulertua konpontze aldera, zahartzaroaren argazkia "ateratzen" saiatu garen honetan, egoeraz prozesuari buruz baino informazio gutxiago dugula ohartu gara. Alegia, zaila dela egun Euskal Herrian dauden adinduen profilari buruzko datuak eskuratzea. Dakigunez, Euskal Herri osorako datuak lortzea lan nekagarria da, estatistika erakunde desberdinetara jo behar dugu eta erakunde horiek lurralde-esparru, egutegi eta datuak jasotzeko irizpide ezberdinak erabiltzen dituzte. Edozein kasutan, hona hemen gure argazki makinaren fruituak!

Berez, XXI. mendea hasi zenetik gaur arte Euskal Herriko zahartze indizea 120 baino altuagoa izan da

Datu Talaiak 2006an (Euskal Herria Datuen Talaiatik 2006, Udalbiltza-Txalaparta) argitaratutako txostenean Euskal Herria Europako Batasuneko herri zaharturena dela irakur dezakegu eta, nahiz eta alderaketa egiteko datu berririk ez izan, egun antzeko egoera dugula baieztatzeko zalantzarik ez dugu. Hau da, gero eta adindu gehiago dagoela gure artean eta, bizitza-itxaropenak aurrera egin ahala, 65 urte baino gehiago dutenen kopurua areagotu egingo dela. Berez, XXI. mendea hasi zenetik gaur arte Euskal Herriko zahartze indizea 120 baino altuagoa izan da, hau da 100 gazteko 120 adindu baino gehiago izan dugula hamarkada osoan zehar. Dependentzia tasa aztertuz gero -hots, zenbat adindu lan egiteko adinean dagoen 100 pertsonako– bilakaera paraleloa aurkitzen dugu, orokorrean handitu egin den adierazlea baita: 2000. urtean ia ehuneko 26a izatetik ehuneko 29tik gertu egotera pasa da 2010. urtean.

Lurraldeen arteko desberdintasunak direla eta, alde handiak daude. 2006.ko datuen arabera, 65 urte eta gehiagoko populazioa ehuneko 16a da Araban eta ia ehuneko 26a Zuberoan. Beste lurraldeetako proportzioak balio hauen artean daude, Iparralde eta Hegoaldearen arteko ezberdintasuna azpimarragarria da (%22a eta %18a). Orokorrean, zenbat eta lurralde eremu txikiagoetara jo, orduan eta alde handiagoak topatuko ditugu: udalerrien arteko ezberdintasunak lurraldeen artekoak baino garrantzitsuagoak dira. Era berean, aurretik aipatutako indizeei dagokienez, zahartze eta dependentzia, lurraldeen artean antzeko diferentziak aurkitu ditugu. Ipar Euskal Herriak eta, ondoren, Bizkaiak dituzte indizerik altuenak hamarkada osoan eta Arabak txikienak. Nafarroa Garaian aldaketa azpimarragarria gertatu da, azkeneko urteetan zahartze indizea apaldu egin baita. Aldaketa hau inmigrazioarekin lotu behar dugu, ezen nahiz eta adinduen kopuruak gora egin, etorritako atzerritar gazteen eraginez bere pisu erlatiboa gutxitu egin baita.

Baina utz ditzagun alde batera zenbakiak eta pentsa dezagun pertsonengan. Adinduei buruz orokorki hitz egin al dugu? Gauza bera da 67 urteko emakumea izatea Angelun edota 82 urteko gizona Arrespalditzan? Aukera berdinak al dituzte 65 urte baino zaharragoak diren guztiek? Osasun egoera bera?

Adinduen artean ezaugarri oso desberdinetako pertsonak daude; argazki makinari nolako objektiboak jarri, halako erretratuak lortuko. Has gaitezen adinarekin. Beste foro batzuetan esan dugunez, bizitza luzatu izanak adinen berdefinzioa ekarri du, jakin badakigualako urte luzeak biziko ditugula eta ziurtasun hau pertsonala izateaz gain, soziala ere badelako. Honek adinekoa izatea zer ote den, zahar izateko adinaren hautematea aldatu du. Gaur egun 65 urteko pertsona osasuntsuari ez diogu zaharra deitzen. Era berean, gaur egun 70 urte izateak ez du zer ikusirik XX. mendearen hasieran 70 urte izateak esan nahi zuenarekin. Berez, laugarren adinaren kontzeptuak aldaketa hauei erantzuten die, 65 eta 90 urteko pertsonen arteko antzekotasun bezain besteko desberdintasunak baitaude.

Oso interesgarria deritzogu adinen berdefinizio honetan sakontzeari, lan merkatuaren logika alde batera utzi eta bizitzaren beste esparruetan oinarritutako adinen definizioa egiteari, alegia. Bada garaia lan merkatuak gure bizitza definitu zein irudikatzerakoan duen zentralitatearekin apurtzeko, bizitza bera sistemaren muina bilakatzeko eta, eraginez, adin sailkapena eraldatzeko.

Alda dezagun objetiboa, orain generoari helduko diogu. Izan ere, zahartzaroaren feminizazio ez dugu gertaera berria

eta, generoen bizi-itxaropenen arteko aldea laburtzen ez den bitartean, areagotuko den prozesua izango da. Jakin badakigu emakumeak gizonak baino urte gehiago bizi direla, 80 urtetik gorakoen artean emakumezkoen kopurua nabarmen handiago dela. Bestalde, emakumeek bakarka moldatzeko gaitasun gehiago dute, eguneroko beharrak asetze aldera batez ere. Fenomeno bien ondorioz, bakarrik bizi diren pertsonen artean emakume adindua dugu hedatuen dagoen profila.

Askotan bakarrik bizi diren pertsonen portzentaje altuak portaera demografiko postmodernoekin lotu izan badira ere -emantzipatzeko bide alternatiboen islatzat adibidez- Euskal Herrian bestelako irakurketa egin behar dugu. Egun, gurean bakarrik bizi diren pertsonen gehiengoak 65 urte baino gehiago ditu eta, gehienetan, ez dute bakarrik bizitzea erabaki, alargun geratu dira, eta horren ondorioz, bakarrik. Erabaki ez izanak eta, batez ere, alarguntzeak bakardadearen sentipena areagotzen du. Bakarka bizitzea askotan demografikoki zein sozialki positibotzat jotzen bada ere, aztertzen ari garen kasuetan bakardadeak pobrezia eta egunerokotasunari aurre egiteko zailtasunak lagun ditu eta, gehienetan, ondorio kaltegarriak.

Badakigunez, osasuna eta adina estuki lotuta daude eta zenbat eta adineko pertsona gehiago, orduan eta eritasun eta menpekotasun egoerak zabalduago. Gaur egungo adinduak iraganekoak baino osasuntsuagoak badira ere, besteen zaintzak behar dituen pertsonen kopurua handitu egin da. Populazioaren egiturari erreparatuz gero, joera hau epe labur zein ertainera mantendu egingo dela ondoriozta dezakegu. Are gehiago, zaintza behar honek kolokan jar dezake gaur egungo sistema soziala, merkatuaren beharrei pertsonen beharrei baino garrantzi gehiago ematen dien sistema alegia. Merkatuaren eskakizunak eta, batez ere emakumeek egindako zaintza lanak uztartzeko ezintasun honi "zaintzaren krisialdia" deitu izan dio zenbait autorek. Zahartze demografikoa balizko krisialdi honen iturburu bakarra ez izan arren, eragin zuzena du beregan eta zaintza lanak eta ardurak berbanatzeko beharra agerian uzten du.

Amaia Pérez Orozcok adierazi duenez, estatuak eta enpresak ez daude ardura hauek bereganatzeko prest eta honek, besteak beste, bi ondorio ditu: zaintza lanen merkantilizazioa eta emakumeak zaintza lanetan kobratu gabe edota oso gaizki pagatuta aritzea. Honek guztiak desberdintasun sozialak areagotzen ditu eta, zer esanik ez, adineko pertsonengan eragin berezia du. Pérez Orozcok egindako bidea jarraituz, gure ustez egoera honek bizitza eta kapitalaren arteko gatazka bere gordintasunean ikustarazteko aukera ezin hobea ematen digu, zaintza guztion ardura dela aldarrikatzekoa. Onar dezagun, Sira del Ríorekin batera, zaintza lanetan parte ez hartzea jarrera prokapitalista dela, horrela zaintzaren esparrua jendartea iraultzeko abagune bilaka dezakegulako.

Bestalde, pertsona adinduak oso egoera ekonomiko desberdinak dituzte. Alde batetik, kotizaziopeko pentsio eta laguntza pentsioen arteko aldea nabaria da eta, bestalde, bizitzan lortutako errekurtsoak mota askotakoak izan daitezke. Lehenengoari dagokienez, egun zenbait pentsio pobrezia mugatik behera dago, hala nola alarguntasunezko batzuk. Honek zahartzaroa pobrezian bizitzeko aukera eta, bereziki, pobreziaren feminizazioa areagotzen ditu, emakume heldu ugari egoera honetan baitago. Bigarrenari dagokionez, Nafarroako pentsionisten asanbladak duela gutxi salatu duen moduan, pertsona helduak beraien senideen "koltxoia" izaten dira askotan, dirua, denbora eta etxebizitzaren eremuetan. Hau da, askotan bizitzan zehar metatutako baliabideak familiarren beharrak asetzera bideratzen dituzte eta beraien denbora, emakumeena batez ere, familietako nagusiak zein txikiak zaintzeko erabiltzen dute.

Bukatzeko, gure ustez egungo pertsona adinduek zer esan handia dute gure jendartean, haietako asko modu aktiboan hartzen baitute parte bizitzaren esparru desberdinetan eta desiratzen dugun etorkizuna irudikatzean osagai garrantzitsua direlako. Hori dela eta, zahartzaro berrituaren eta adineko pertsonen nahi eta beharrak aldatzen ari direlako, jendarteak hirugarren adinekoei egiten dizkien eskakizunak eta eskaintzak berrantolatzeko premia duelakoan gaude.

Nazioarteratzean oraindik aireratzen

Euskal enpresak ahalegin handia ari dira egiten nazioarteratzen. Eskarmentu handia dute esportazioetan, eta atzerriko lurraldeetan lantegia irekitzen ere ari dira, poliki-poliki. Merkatu emergenteak, ordea, bigarren mailan daude esportazioen rankinean.

Euskal enpresen esportazioak bide onetik doaz. 2010eko datuak eskuan, Hegoaldeko enpresek, esaterako 2.600 milioitik gorako esportazioak izan dituzte. Eta aurreikuspenen arabera, datuak hobetuz joango dira. Alemaniara eta Frantziara, herrialde horietara joaten dira esportazio gehienak. Euskal enpresetatik inportatzen duten herrialdeen zerrendan Txina 14. postuan dago, Brasil, 15.ean, India, 21.ean eta Errusia, 25.ean.

Egungo merkatu emergenteenak dira Txina, Brasil, India eta Errusia. Txinarekiko harreman profesionalak bereziki bizkortu eta indartu dituzte euskal enpresek. Azken bi urtetan, berrehun enpresa inguruk zabaldu dituzte bertan lantegiak, eta enpresa txiki eta ertainak dira horietako asko. Brasil, India eta Errusian ere, ari dira pixkanaka-pixkanaka sartzen. "Baina pausu luze eta sakonagoak eman behar dira". Hala uste du Txema Gisasola Fagor Electrodomésticos-eko zuzendari nagusiak. Enpresa horrek ahalegin berezia egin du nazioarteratzen; orain bost urte fakturazioaren %70a Espainian lortzen baitzuen, eta egun kopuru hori baita atzerrian fakturatzen duena. Gisasolaren ustez, "euskal enpresei suspertze bidean dauden merkatuetara salto egiteko kultura eta produktuen egokitzea falta zaie", eta horretan ahalegin berezia egin behar dela uste du.

Inplantazioan egin behar dute ahalegina adituen arabera. Esportazioez haratago, merkatu emergenteetan lantegiak zabaldu behar dituzte, modu iraunkorrean bertan egoteko. Are gehiago: benetan bertakotzeko, hango langileekin egin beharko lukete enpresa, hango lan egiteko modura eta enpresa kulturara egokituta. Eta ez hori bakarrik: internazionalizazioa enpresako langile guztiek sinistu eta gauzatu behar dutela diote.

> *Txinarekiko harreman profesionalak bereziki bizkortu eta indartu dituzte euskal enpresek*

Bide luzea dago egiteko, beraz. Nazioarterako bidaian aireratzen ari dira, oraindik, euskal enpresa gehienak. Baina bidaia hasita dago: enpresa garrantzitsuenak jada nazioarteratzearen puntan daude: Irizar, Fagor Electrodomesticos, Aernnova, Viscofan, Cie Automotive... horiek dira adibide garbienak. Eta enpresa txiki eta ertainak ere ari dira mugitzen: estatistikek argi erakusten dute atzerriko merkatuetan sartzeko ahalegin handiagoa egiten ari direla, eta ez soilik esportazioetan, inplantazio komertzial eta produktiboen aldeko apustua ere gero eta argiagoa da. Azken bi urtetan, %50 hazi dira atzerriratzeko prometan egindako eskariak, eta beste are gehiago ugaritu dira martxan jarritako proiektuak.

> *Internazionalizazioa enpresako langile guztiek sinistu eta gauzatu behar dute*

Lurraldeen joera ere aldatzen ari da: Txinarako eta Europa ekialderako egin dira proiektu berriak martxan jartzeko ekimen gehienak. Aurreikuspenen arabera, berriz, epe motzera, Txina mantendu egingo da, eta India eta Errumanian egingo dira ahalegin gehienak.

Baikor ikusten dute, hortaz, etorkizuna enpresari eta agintariek. Argi dute krisiari aurre egiteko atzerriko merkatuetan egin beharko dela ahalegina, eta horretarako lanak aurreratuta daudela dirudi.

Estitxu Elduaien

Ehko exportazio eta inportazioak, 2006-2009



Iturria: INCEE, EUROSTAT, INE, INSEE

Testuaren jatorrizko hizkuntza: gaztelania

Enpresen nazioartekotzearen sustapena 2010. urtean Araba, Bizkai eta Gipuzkoan

Catalina Chamorro Silgado
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Nazioartekotze Zuzendaria

Azken bi urteotan bizi dugun egoera dela-eta, argi geratu da kanpoko merkatuetan ohiko moduan jarduten duten enpresak gaur egun lehiakorragoak direla eta krisiari aurre egiteko hobeto prestatuak daudela. Beraz, zenbat eta enpresa gehiago nazioartekotu, orduan eta erresistentzia handiagoa izango dugu gorabehera ekonomikoen aurrean. Horren ondorioz, nazioartekotzea lehentasunezko ardatza da, hain zuzen ere, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren lehiakortasuna hobetzeko eta handitzeko politikaren lehentasunezko jardunardatza.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren 2010 – 2013 Enpresa Lehiakortasuneko Planaren ardatz estrategikoetako bat ekonomia irekia da. Adierazitako dokumentuaren ikuspegitik, euskal ekonomiaren nazioartekotzea prozesu integral gisa ulertzen da, merkatu-ikuspegia, produkzio-ikuspegia eta gizarte-ikuspegia biltzen dituen prozesu gisa, hain zuzen ere.

Ikuspegi berri horri jarraiki, Planeko ekonomia irekiaren ardatzean honako jardun-ildo hauek finkatu dira:

- Enpresei eta erakundeei laguntzea, ikuspegi globala izaki joka dezaten.
- Inbertsiorako, talenturako eta turismorako eskualde erakargarri baten irudia zabaltzea, gure produkzio-sarea dibertsifikatzen lagunduko duten enpresa-proiektuak erakartzeko.

Euskal ekonomiaren nazioartekotzea prozesu integral gisa ulertzen da, merkatu-ikuspegia, produkzio-ikuspegia eta gizarte-ikuspegia biltzen dituen prozesu gisa

2009. urtean 18,9 milioi euroko aurrekontua onartu zen hasieran, eta 2011. urtean 21,6 milioi euroko aurrekontua dugu

Esparru horretan, Nazioartekotze Zuzendaritzak lau helburu nagusi lortu nahi ditu:

- Enpresak nazioartekotzeko prozesuak bultzatzea, plan estrategikoak lantzen lagunduz atzerriko jardueren erregulartasuna bermatzearren.
- Gaitasun profesionalak eta sozialak dituzten pertsonak garatzea ekonomia irekiaren erronkei erantzuteko, hezkuntza-prozesutik hasita; mugigarritasun geografikoa, karrera-planak, atzerriko profesionalak atzematea... bultzatuz.
- Euskal esportazioen helburu geografiko eta sektoriala dibertsifikatzea. Merkatu berriak bilatzea; dinamismo handiagokoak eta trakzio-gaitasuna dutenak. Eta produkzioa eta esportazioak eduki teknologiko eta balio erantsi handiagoko produktuetara bideratzea.
- Kanpoko jarduerak erakartzen laguntzea. Proiekzio eta potentzial handiko sektoreak —zerbitzu-sektorea, esaterako— garatzeko interesa finkatuz.

2010. urtean, helburu horiek betetzeko lan egin dugu, enpresa, entitate, elkarte eta unibertsitateko lizentziadunei zuzendutako zerbitzu eta laguntza-programen bidez. Itzuli beharrik gabeko laguntza-programak eman ditugu, baita finantza-laguntza ere, baldintza hobeagoetan, enpresei nazioartekotze-planak landu, berrikusi eta gauzatzen laguntzeko eta atzerrian filialak (merkataritza-arlo-

2010. urtea positiboa izan da euskal esportazioetarako; batik bat, aurreko urteko joera kontuan izanik, izan ere, kanpo-merkatuetako salmentak %30 inguru murriztu baitziren

koak eta/edo produkziokoak) martxan jartzeko, banaka edo batera.

Ekimen berriak ere izan dira, oso arrakastatsuak eta enpresek positiboki balioetsi dituztenak; hain zuzen ere, Brasilera eta Txinara egindako Enpresa Misioak, Merkataritza Ganberen laguntzarekin.

Nazioartekotzeko beka-programak ere gorakada handia izan duela nabarmendu behar dugu; 2010ean 10 gazte gehiagok jaso dute nazioartekotzearen gaineko prestakuntza, eta etorkizunean gehiago izango dira.

Enpresek merkatu berrietan sartzeko moduari buruz hausnartu behar dute, eta horretarako, laguntza handia izaten dute bai Industria Sailetik bertatik, baita bestela ere; besteak beste, honako hauen eginkizuna nabarmendu behar dugu: sektore-elkarteak, klusterrak eta merkataritza-ganberak, enpresen nazioartekotze-prozesua errazteko eta indartzeko prest eta prestatuta dauden agente diren aldetik.

Azken bi ekitaldietan, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntzak nabarmen handitu dira esparru honetan, nahiz eta egoerak bultzatuta aurrekontua eskas samarra izan; beraz, esan gabe doa enpresen jardunean kanpoko merkatuak txertatu eta finkatzeari garrantzi handia eman diogula. 2009. urtean 18,9 milioi euroko aurrekontua onartu zen hasieran, eta 2011. urtean 21,6 milioi euroko aurrekontua dugu; hazkunde handia gertatu da. 2010ean, hasierako aurrekontua 7,3 milioi euro izan zen PROINTER programan, eta 3,7 milioi euro gehitu genizkion, enpresa asko aurkeztu zirelako eta proiektuen bolumena ere handiagoa izan zelako kanpo-merkatuetan kuotak hobetu eta nazioko merkatuaren egoera negatiboari aurre egitearekin loturik.

Kanpo Merkataritza 2010

2010. urtea positiboa izan da euskal esportazioetarako; batik bat, aurreko urteko joera kontuan izanik, izan ere, kanpo-merkatuetako salmentak %30 inguru murriztu baitziren. Urtarriletik azarora bitarte, kanporako euskal salmentak modu esanguratsuan hazi ziren, %22,1 baino gehiago. Esportaturiko guztizkoak 16.151 milioi eurotik gorako balioak lortu ditu.

Inportazioen kasuan antzeko portaera izan da, %23 inguruko hazkundeak izanik hamaika hilabete hauetan, eta industria-jardueraren susperraldi positiboaren adierazle gisa ikus daiteke hori.

2010eko urtarriletik azarora bitarte, esportazio espainiarrek ere gora egin dute, baina ez EAEkoek adina; hain justu, %17,5. Erkidegoko gure bazkide nagusien artean dinamismo handia izan da, bereziki, euro-gunean.

Euskal enpresa eta produktuetarako merkatu interesgarriei buruzko txostena berriki eguneratu denez, zera aurreratu dezakegu, gure ohiko bezero-merkatuez gain (EB 15eko herrialdeak, Frantzia eta Alemania, bereziki, nabarmenduta), gure jarduna beste hainbat merkatutan ere indartu beharko dugula. Merkatu handienak eta aukera handiko sektore ugari dituztenak baino ez ditugu aipatuko, batzuk aipatzearren: Estatu Batuak, Txina, India, Brasil, Polonia, Mexiko, Turkia, Aljeria eta Errusia.

Gaur egungo joerari eusten badiogu, gure bezero-merkatu nagusiek abiarazitako susperraldiaren bideari eusten badiote, eta gure enpresek kanpoko merkatuen alde lanean jarraitzen badute orain arte bezala, 2011. urtea ere ona izango dela aurreikus dezakegu esportazioei dagokienez, eta hori, zalantzarik gabe, oso lagungarria izango litzateke hasiberria dugun susperraldiaren bidean aurrera egiteko.

Gaur egungo joerari eusten badiogu 2011. urtea ere ona izango dela aurreikus dezakegu esportazioei dagokienez

Iparraldeko enpresen egoera eta internazionalizazioaren erronka

Peio Olhagaray
Ekonomia-garapeneko zuzendaria
Baionako CCI Euskal Herria

Zaila da Iparraldeko enpresen internazionalizazio-egoera aztertzea, lau arrazoi hauek direla medio:

1. Esportazioak aztertzeko erabiltzeko metodoak esportazioko/inportazioko lekuko departamentuari erreparatzen dio; hau da, kanpora bidaltzen diren salgaien jatorrizko abialekuari, eta ez enpresa esportatzailearen egoitzari. Horixe bera gertatzen da inportazioekin; izan ere, inportatzen diren salgaien helmuga erreala erregistratzen da, eta ez inportatzailearen egoitza. Adierazi behar da, horrez gain, departamentuetako datuek ez dituztela aztertzen material militarren salerosketak.
2. Ezin da Iparralde fidagarritasun osoz kokatu internazionalizazioaren mapan, estatistika-iturriek ez baitute barruti-mailako estatistikarik ematen. Departamentuetako datuak ematen dira, eta ezinezkoa izaten da lurralde-esparru txikiagoko daturik lortu. Arau horrek, ordea, badu salbuespenik, datu xehakatuak lor baitaitezke petroliotik eratorritako produktuekin, gas naturalarekin eta elektrizitatearekin (gasbide eta goitentsioko lineatakoak).
3. Talde handietako enpresek egin ohi dituzte esportagarriak izan daitezkeen industria-jarduera nagusiak; beraz, esportazioen bolumena eta balioa ez da instituzioaren datuen artean erregistratzen, esportaziozerbitzua ematen duen entitatearen datuen artean baizik.
4. Industria-jarduera horietako batzuek produktu erdiburutuak instalatu eta muntatzera mugatzen dira (material aeronautikoak, aparailu elektriko eta elektronikoak, etab.), eta beste leku batzuetan osatzen dira entregatu baino lehen. Jarduera horiek balio-katearen erdian kokatzen direnez, zaila izaten da euskal enpresek nazioartean egiten dituzten jarduerak zehaztu eta identifikatzea.

Ezin da Iparralde fidagarritasun osoz kokatu internazionalizazioaren mapan, estatistika-iturriek ez baitute barruti-mailako estatistikarik ematen

Hala ere, esperientziak esaten digu Iparralden bete-betean errepikatzen direla eskualde-joerak, nahiz eta ñabardura bereizgarri batzuk ere hautematen diren.

Lehen joera adierazgarria: esportazioen eta inportazioen beherakada orokorra

Ekonomiaren dezelerazioa agerikoa den garaiotan, mundumailako merkataritza-trukeak %12 jaitsi dira 2009. urtean, eta Frantziako kanpo-merkataritza ere atzera egiten ari da, nabarmen.

Akitanian joera hori bera ikusten da, esportazioek eta inportazioek beherakada handia izan baitute 2008. eta 2009. urteetan. Esportazioen beherakada handiena 2009. urteko hirugarren hiruhilekoan gertatu da, eta inportazioena, berriz, 2009ko bigarren hiruhilekoan. Krisi ekonomiko orokorraren ondorioz gertatu dira fluktuazio edo gorabehera horiek, eta 2009ko erditik aurrera indar handiagoz azaleratu dira.

Akitaniak berezitasun batzuk ditu Frantziako gainerako eskualdeekiko, eta horien artean, azpimarratzekoak dira nekazaritza-produktuen, nekazaritzako elikagaien eta aeronautikako eta espazioko industriaren esportazioak.

Iparraldeko enpresek ere ildo hori bera jarraitu dute, beren nazioarteko merkataritza-jarduerek behera egin baitute 2008. urtetik aurrera, eta 2010. urtearen amaiera aldera soilik erakutsi du goranzko joera apal bat.

Bigarren joera adierazgarria: industria-produktuen gailentasuna, esportazioen eragile nagusi diren aldetik

Gehien esportatzen diren produktuen artean ditugu nekazaritzako elikagaiak, aeronautikako produktuak, produktu metalurgikoak, oihalgintzakoak, farmaziakoak eta ekipamendu-ondasunak.

Azken hiru urteotan, produktu gutxiren esportazioek izan dute gorakadarik (balioan behintzat). Esportazio-tramiteen kopurua, gainera, %20 jaitsi da, eta horren arrazoi nagusia izan da Iparraldeko jarduera-esparru nagusietako batek, uretako jardueren esparruak, behera egin duela.

Produktu askoren esportazioek behera egin dute etengabe 2007tik aurrera, eta horien artean, gehien jaitsi direnak dira produktu metalurgikoak eta galdaketakoak, nekazaritza-produktuak, eta industria aeronautiko, egurgintza, papergintza, kartoigintza eta uretako jardueren industriako produktuak.



Gorabidean dauden herrialdeak: BRIC eta Asia.

Hiru produktuk egin dituzte, 2009an, esportazio guztien %40, hurrenkera honetan: aeronautika-produktuek, farmazia-produktuek eta elikagaiek.

Hirugarren joera adierazgarria: eskualde edo erregioko merkatuan egiten dituzte enpresa ertain eta handiek salerosketa gehienak

Gaur egun, Iparraldeko 720 enpresak egiten dute beren negozio-bolumenaren zati bat atzerrian, eta enpresa horien %75 hogei langile baino gehiagokoak dira. Iparralden erroldatuta dauden 15.000 enpresen arteko liderrak dira.

Konparazio bat egiteko aukera ematen digute Aduanetako Eskualde Zuzendaritzako datuek; izan ere, datu horien arabera, Akitaniako 7.248 enpresak egin dituzte esportazio-jarduerak 2009. urtean.

Europa izaten da Iparraldeko enpresa gehienen esportazioen eta inportazioen jomuga, enpresa gutxik egiten baitituzte negozioak Ekialde Ertaineko eta Asiako enpresekin.

Hori jakinda, hiru kategoria hauetan bana dezakegu merkatua:

- Merkatu naturala, hau da, Frantzia eta inguruak, bertako produktuen hartzaile nagusiak.
- Barne-merkatua, hau da, euro-gunea.
- Nazioarteko merkatua, hau da, esportazio handia, Eurogunetik kanpora egiten dena.

Azken hamarkadatan, Europa eta Amerikako herrialdeek baino hazkunde handiagoa izan dute Asiako herrialdeek eta gorabidean doazen herrialdeek (Brasil, Errusia, India eta Txinak). Horrez gain, krisia haiek baino azkarrago gainditzen ari dira.

Europako zonaldea da esportazioen bezero nagusia (mendebaldeko herrialdeak, Europa erdialdeko eta ekialdeko herrialdeak, eta garai bateko herrialde sobietarrak, Estatu Independenteen Erkidegoan bildu direnak), zonalde horretako herrialdeetara joan baitira, 2009. urtean, esportazioen ia %70. Europar Batasuneko kide ez diren herrialdeetara egiten dira esportazioen %7. Bezero onenak Espainia, Alemania, Erresuma Batua eta Belgika dira, eta, haien atzetik, Europako iparraldeko herrialdeak.

Bertako enpresa batzuek, ordea, lortu dute merkatu handietan sartzea eta horietara egiten dituzten esportazioei eustea. Balio erantsi handiko jarduerak eta irudiarekin lotutakoak lantzen dituzte; hala nola, luxuzko elikagaiak, industria-produktuak eta ekipamenduak, farmazia- eta medikuntza-produktuak eta teknologia konplexuak.

Inportazioen alorrean, Europar Batasuna da euskal enpresen hornitzaile handiena, eta haren atzetik daude Europar Batasuneko kide ez diren herrialdeak eta, produktu erdi landu batzuen kasuan, Asia.

Iparraldeko bezero eta hornitzaile gehienek murriztu egin dute eskualdean egindako erosketen eta salmenten kopurua 2008an eta 2009an.

Espainiak bizi duen krisi larriak merkataritza-jardueraren dezelerazio handia eragin du, eta bertan behera geratu dira industria-lankidetzako ekimen batzuk, bazkide espainiarrek ezin izan dietelako aurre egin beren konpromisoei.

Akitanian erosten duten herrialdeen artean, bertako enpresen esportazioen bolumen apal bat hartzen duten he-

Baionako portua.

rrialdeek izan dute, oro har, bilakaera positiboa (Danimarkak, Finlandiak eta Luxenburgok). Hala ere, nabarmendu behar da, 2008/2009 urteetan, joera positiboa izan dutela Herbehereetara eta Italiara egindako esportazioek.

Euskal Herrian, eta zehazki, Pirinio Atlantikoetako departamentuan (Girondan), hazkunde-fase bat izan da 2005. urtetik aurrera, baina 2008. eta 2009. urteetan alderantzikatu egin da joera hori, esportazioek nabarmen egin baitute behera.

Laugarren joera adierazgarria: esportazioaren ordez, internazionalizazioa

Sarritan, Frantzian eta Iparralden, internazionalizazioaren kontzeptua esportaziora mugatu ohi da.

Hala ere enpresek badute, gaur egun, erronka handiagorik. Produktuak esportatzeaz gain, gai izan behar dute beren jarduerak nazioartean kokatu eta zabaltzeko; hau da, esportazioak eta inportazioak (sourcing - hornidura-iturriak topatu) egin behar dituzte, eta nazioartean kokatu.

Alemaniaren, Euskadiren eta beste kide europar batzuen jardunak erakusten digu internazionalizazio-estrategiak

Europako zonaldea da esportazioen bezero nagusia; bezero onenak Espainia, Alemania, Erresuma Batua eta Belgika dira, eta, haien atzetik, Europako iparraldeko herrialdeak

aberastasuna sortzen duela tokian-tokian, baldin eta estrategia hori epe luzeko ikuspegi batez lantzen bada. Emaitzak, noski, ez dira automatikoak izaten, baina lehiaren globalizazioaren ondorioz, salerosketa- eta trukatze-fluxuak ugaritu egin dira, eta azken horiek, munduko edozein lekutatik abiatu ondoren, gure merkatu naturaletan barneratzen dira. Errealitate horrek handitu egiten du merkatu naturaletan eta etxeko merkatuetan posizioak galtzeko arriskua, eta kanpo-merkatuetan sartzeko aukerak zail ditzake.

Beren garapen-prozesuan, zailtasun eta erronka ugari gainditu behar dituzte gure enpresek:

1. Etxeko merkatuari eta nazioarteko merkatuari begirako jardun-kultura landu behar da enpresa guztietan.
   Kultura hori lantzeko, hizkuntzak ikastea sustatu behar da, nazioartean balia daitezkeen trebetasunak garatzeko gaitasuna eskuratu behar da, eta epe motzeko estrategia batean parte hartzeko borondatea izan behar da. Erronka handia da gure enpresentzat, lehia gogorra baitute gaur egun eta izango baitute gerora, bai nazioartean, bai beren merkatu naturalean bertan.
2. Enpresa-elkarketak sustatu eta indartu behar dira, internazionalizazioan sakontzeko.
   Enpresen arteko lankidetza-prozesu horiek hazkunderako oinarri egokia izan daitezke, aukera ederrak eman baititzakete norberaren eskaintza osatzeko eta merkatu handiagoetara iristeko. Orain gutxi, Biharteaan ganberaren bidez (Gipuzkoa eta Baionako merkataritza-bazkunek sortutakoa), sektore bereko enpresen arteko lankidetza-ekimenak abiarazi dira Gipuzkoa eta Iparraldeko enpresen artean, eta ekimen horiek argitasunez agerrarazten dute elkarketa horiek egokiak eta interes handikoak direla beste merkatu batzuetara zabaltzeko.
3. Internazionalizazioari laguntzeko mekanismoak abiaraztea eta inplementatzea.
   Frantzian, Akitanian eta Iparralden ez dago internazionalizazioaren alderdi giltzarrietako bati finantzalaguntza publikoa emateko mekanismorik; hau da, ez da atzerrian enpresak sortzeko finantza-babesik ematen. Hala ere, sustatzen eta ematen dira laguntza partzialak aldez aurretiko merkatu-azterketak egiteko, bezeroak izan daitezkeenak bilatu eta prospekzioak egiteko, eta bezero-arriskuari aurre egiteko. Dena den, prestaketa-etapa hori igaro eta enpresak erabakitzen duenean non kokatu nahi duen, azken horrek ez du botere publikoen laguntza ekonomikorik eskuratzen, eta ez dugu ahaztu behar hori dela bide bakarra bertako enpresen iraunkortasuna bermatzeko.

Testuaren jatorrizko hizkuntza: gaztelania

Nafarroak doi-doi lortu du 229,9 milioi euroko esportazioak egitea Afrikara

Sagrario Zabaleta

Nafarroako enpresek 143,7 milioi euro saldu dituzte Maroko, Aljeria eta Tunezen. Hala dio Ana Cañadak, Merkataritza Ganberako kideak: "kontinenteko 54 herrialdeek ematen dituzte negozio-aukerak".

Nafarroako enpresek doi-doi lortu zuten iaz, azaroa bitartean, 229,9 milioi euroko esportazioak egitea Afrikara, hau da, 2009. urtean baino %15,4 gutxiago, Kanpo Merkataritzako Icex Institutuaren hileko txostenaren arabera.

Afrikara egiten dira Nafarroako esportazioen %3,3, eta haien hartzaile nagusiak dira Magrebeko herrialdeak (Aljeria, Maroko eta Tunez, egun giro politiko goria bizi dutenak) eta Hegoafrika, haiek hartzen baitituzte esportatutako 229,9 milioietatik 191,6. Haien atzetik daude Mauritania, Angola, Ekuatore Ginea, Egipto, Gabon eta Libia, besteak beste.

"Ziur asko, Nafarroako esportatzaileek Aljeria, Maroko eta Tunez hautatzen dute Espainiatik gertu daudelako eta, itxura batean, nahiko eskura daudelako, nahiz eta, kulturaren ikuspegitik, alde handiak dauden haien artean. Hegoafrika ere herrialde erakargarria izan daiteke, mentalitate europarrena duen Afrikako herrialdea delako eta beste herrialde batzuek baino erosteahalmen handiagoa duelako". Hori diosku Ana Cañadak, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberan enpresen internazionalizazioaz arduratzen den pertsonak.

Iraultza abian da "Aldaketa politiko, sozial eta ekonomikoak"

Afrika urre gorria da Nafarroarentzat, 54 herrialde eta mila milioi biztanle baititu. "Denetik behar dute –esaten digu Ana Cañadak–: oinarrizko janariak, arropak, oinetakoak, garraiobideak, autoetako piezak, azpiegiturak, etxebizitzak eraikitzea, etab."

Foru-komunitateko enpresek tren horretara igo behar dute, aspaldi igo baitira tren horretara Europako herrialde ugari —garai bateko harreman kolonialen haritik gehienak— eta Txina. Hau gogoratzen digu Cañadak: "Asiako erraldoia inbaditzen ari da kontinente osoa, eta esaten digute haien lehiatzaile handienak Afrikan fabrikatzen duten txinatarrak direla".

Cañadak nabarmentzen du Nafarroak, kontinente horrentzat hain funtsezkoa den une historiko honetan, "askotariko produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituela, oso ondo egoki daitezkeenak herrialde horien premietara". Tunez eta Egiptoko herrierreboltekin hasi zen 2011 urtea, eta, haien ondorioz, kargutik kendu zituzten Ben Alí eta Hosni Mubarak presidenteak. Hau nabarmentzen du Cañadak: "Orain Siriak, Jordaniak, Mauritaniak, Marokok, Yemenek eta beste herrialde batzuek ere arrisku hori bera bizi dute. Herrialde horietan hamarkada askotan izan da boterea diktadoreen eskuetan, baina, ia ziurtasun osoz esan daiteke aldaketa politiko, sozial eta ekonomikoak biziko dituztela, erregimen politikoak aldatzearekin batera. Magrebeko herrialdeetan eta kontinente horretako beste lurralde batzuetan gertatzen ari diren aldaketek merkatu-ekonomiaren bidea zabal dezakete". Foru-komunitateko enpresariek adi egon behar dute suerta daitezkeen negozio-aukerak baliatzeko; hala ere, azken urte hauetan, Ganberak zenbait merkataritza-ekimen abiarazi ditu herrialde horietan, Nafarroako enpresen partaidetzarekin.

Hassiba Sais da Merkataritza Ganberak Aljerian duen sustatzailea, eta zintzo eta gordin mintzo zaigu: "Herrialde horietan sartzeko aukera baliatzen ez duten enpresek merkatu-galera bat izango dute gerora". Hispargel aholkularitza-enpresako langile den aldetik, Aljeriako merkatuan sartzeko aholkularitza eta laguntza ematen du emakume aljeriar honek 2009. urteaz geroztik, eta hau gaineratu digu: "gaur egun Nafarroako hiru enpresaren berri eman dezaket, azpiegituren eta herri-lanen sektoreetan dihardutenak; horrez gain, beste enpresa batzuek ere interesa azaldu dute, ekipo- eta kontsumo-ondasunen sektoreetan lan egiteko". Herrialde sortu berria eta inportatzailea da Aljeria, 34 milioi biztanle ditu, eta Abdelaziz Buteflika da herrialde horretako erregimen militarreko burua. Tunez eta Egiptoko gertakariek eragina izan dute herri horretan "auzoko herriak dira eta hainbat harreman ditugu haiekin" esan digu. Hala ere, Hassiba Saisen hitzetan, "aljeriarrek garesti ordaindu zituzten, aurreko hamarkadan, gerra zibilaren ondorioak, eta orain lan egiteko eta herrialdea berpizteko gogoz daude". Gobernuak, 2010 eta 2014 urteen bitartean, 280.000 milio euroko Bost Urteko Plan bat sustatu du. "Aljeria da, gaur egun, horrelako plan bat egin eta bete dezakeen herrialde bakarra" diosku. Hassiba Saisek nabarmendu digu irudi oker bat zabaltzen dela; izan ere, kontrakoa esaten bada ere, "Aljeriako enpresariak fidelak dira, baina, harreman ekonomikoei eusteko, zuzeneko harremanak izan behar dira haiekin, funtsezkoa baita aurrez aurreko kontaktu etengabea izatea". Ana Cañada bat dator bere lankidearekin: "Sektoreak berak asko baldintzatzen du izan daitekeen arrakasta, baina saiatuak izan behar dugu, pertsona egokiak topatu, hara joan eta

kontaktuak zaindu behar ditugu. Mendebaldeko Afrikan, esaterako, banatzaileak zorro edo jardun anitzekoak izaten dira maiz, hau da, janariak, eraikuntza materialak edo automobiletako piezak eros ditzakete aldi berean". Emerito enpresako merkataritza-zuzendari Hugo Arteagaren hitzetan, erronka nagusia "lehen bezeroa lortzea da, eta, horretarako, ezinbestekoa da merkataritza-lankide egokiak izatea; horrez gain, kontuan izan behar da azterketa-fasean egiten den gastu ekonomikoa ez dela epe motzean berreskuratzen". Mendabiako enpresa hori 1964an sortu zen, eta "jarraitasunez" lan egiten du Aljerian.

Mendabiatik beste kontinente batera

Emerito: ontziratzeko industria-makinak

Mendabiako enpresa batean lan egiten du Arteagak, ontziratzeko industria-makinen sektorean. Enpresak erabaki zuen bere produktuak Europara, Latinoamerikara, AEBra, Indiara eta Magrebera eramatea, eta, gaur egun, bere fakturazioaren %60 eta %80 bitarte osatzen du esportazioetatik. Hala diosku Arteagak: "Maroko izan da Emerito enpresako makineria Afrikan sartzeko tranpolina, eta kontinente hartako merkatu handiena da gaur egun guretzat. Hala ere, Aljerian ere egiten dugu lan, eta, azken bi urteetan, makineria instalatu dugu Hegoafrikan, Egipton, Gabonen, Maurizio Uharteetan eta Ghanan". Afrikan, sektore hauek dira Emerito enpresako produktuen hartzaile: arrain-kontserbak, zukuak eta saltsak, esnekiak, barazkiak eta lekaleak. Arteagak iragarri digu merkatu-azterketak egiteko asmoak dituztela, epe ertainean, Tunez, Angola eta Libian.

Orkoiendik Marokora, Gineara...

Nuevo Sistema Modular: obretako etxolak eta aurrefabrikatuak

Nuevo Sistema Modular enpresako zuzendari-kudeatzailea da Angel Mª Goñi, eta nabarmendu digu, bere eskarmentuan oinarrituta, bezeroak lortzea eta haien fideltasuna irabaztea dela lantegi zailena Afrikan. "Uste genuen eskakizun teknikoak eta kalitate-irizpideak apalagoak izango zirela merkatu horietan, baina ez da hala gertatu, eskakizun zorrotzak eta oso maila handiko teknikariak topatu baititugu", azpimarratu du.

Nafarroako enpresa horrek Orkoienen du egoitza, eta 1995ean sortu zen, jarduera-alor hauek lantzeko: eraikuntza industrializatua, obretako etxolen salmenta eta alokairua, modulu aurrefabrikatuak eta modulu-multzoak. Negozioa Afrikara zabaltzea erabaki zuen enpresak, "merkatuak zabaltzeko eta bezero-zorroa handitzeko".

Enpresak saltzen dituen produktuak hezkuntzan, osasun-sektorean, etxebizitza sozialetan eta industria-sektorean erabil daitezke, eta Angolan, Marokon eta Ekuatore Ginean banatzen ditu, bere kabuzko banaketak eginez edota Espainiako enpresen laguntzaile moduan jardunda. "Gaur egun, baterako proiektuak egiten ari gara Angola, Kamerun, Egipto eta Kenyan, bai industria-sektoreetan, bai etxebizitza sozial edo etxebizitza merkeen sektorean", nabarmendu du.

Enpresa Mauritaniari begira jarri da, eta batik bat herrialde horretako industria-segmentuari (zulaketak eta herri-lanak), eta, horrez gain, "barneko merkatu-azterketak egin ditugu hezkuntza-eraikuntzen sektorean, osasunaren sektorean eta etxebizitza sozialen sektorean", diosku Goñik. Ertamerikan eta Hego Amerikan egiten dituzten salmentak ere aintzat hartuta, nazioartean lortzen du enpresak bere fakturazio osoaren %30.

Bisita ofizialak

Angola eta Hego Sudan

Goñik aitortzen du kontinente horren gertutasuna eta merkatu-hobi berriak bilatzeko premia izan direla, haientzat, Afrikara zabaltzeko arrazoiak. Hala ere, nabarmentzekoa da kontrako bidea ere egiten dutela Afrikako herrialdeek, Nafarroara bidaltzen baitituzte ordezkari instituzionalak, inbertsioak egiteko herrialde aproposak direla adierazteko. Aste gutxi dira Iruñan izan dela Angolako Inbertsio Pribaturako Agentzia Nazionaleko Nazioarteko Harremanetarako kabineteko zuzendaria, Antonio Prata jauna. Gurean egin zuen egonaldian, Angolak industrializazioaren alorrean eta dibertsifikazio ekonomikoaren ildotik abiarazi dituen estrategien berri eman zuen, sektore hauek nabarmenduz: energia berriztagarriak, nekazaritzako industriaren garapena, uren eta hondakinen tratamendua eta katastroaren kudeaketa. Hego Sudan da nabarmendu daitekeen beste herrialde bat; izan ere, aurten lortu du independentzia, eta Afrikako 54. herrialdea dugu. Madrilen izan berri da herrialde horretako ordezkaritza bat, Ganberen Kontseilu Nagusiarekin bildu eta inbertsioak eskatzeko. Nafarroako enpresentzat "aukera handia da Hego Sudan" azpimarratzen du Ana Cañadak. Egiteko asko dago herrialde horretan, sektore ugari indartu behar baititutzte: energia hidraulikoa, uren tratamendua, planta termikoak, errepideak (errepideen 46 kilometro soilik daude asfaltatuta) trenbide eta telekomunikazioetako azpiegiturak, etxebizitzen eraikuntza eta zerbitzuen sektorea, besteak beste.

"Nafarroak zabaltzeko aukera berri bat du Afrikan", horixe dio Afrikako merkatuetan aditua den Ana Cañadak. Hala ere, hau aitortzen du: "Administrazioak irmoki babestu beharko lituzke gure enpresak epe ertain eta luzerako plangintza estrategiko baten bidez, kontinente horrek dituen beharrizanen, arriskuen eta aukeren berri izan dezaten".

Cañada ziur dago Nafarroa "Afrikaren deiari erantzuteko listo" dagoela, baina gaineratzen du enpresariek "herrialde horien alde arriskatzeko borondatea" izan behar dutela.

Diario de Noticias egunkaritik jasotako artikulua, 2011/02/21

Lanean ezinbestean

Etorkinek lanpostuak "lapurtzen" dituztela. Gizarte laguntzen kontura bizi direla. Gero eta gehiago direla... Krisi ekonomikoak areagotu eta okertu egin ditu immigrazioaren gaineko aurreiritziak. Baina estatistikak eta gobernuz kanpoko erakundeek bestelakoa diote: ez dira hainbeste, eta guztiak ez dira lanera etortzen.

Hego Amerikatik, Magrebeko lurraldeetatik, eta Europa ekialdetik. Hiru gune horietatik etortzen dira Euskal Herrira immigrante gehienak. Hala diote estatistika ofizialek eta gobernuz kanpoko erakundeek egindako estimazioek. Hizkuntzaren ondorioz, Hegoaldean daude Hego amerikar gehienak, Magrebeko lurraldeetatik datozenak joera gehiago dute Iparraldera jotzeko.

Hego Amerikatik, Magrebeko lurraldeetatik, eta Europa ekialdetik etortzen dira Euskal Herrira immigrante gehienak

Faktore ekonomikoei erantzuten diete gehienek, datu ofizialen arabera. Eta krisi garaian errezelo ugari piztu ditu horrek gizartean. Baina etorkinekin lanean aritzen diren erakundeen arabera, estatistika ofizial horiek beraiek bihurtzen dituzte ekonomiko etorkin asko. "Espainiako eta Frantziako immigrazio legeek lana lehenesten dute naziotasuna materako garaian; naziotasuna lortzeko ia beharrezkoa da lanean urte batzuetan aritzea, eta ondorioz, berez lanera etorri ez diren askok lanean hasi behar izaten dute". Hala azaldu du June Fernandezek, SOS Arrazakeriako kideak.

Baina datuen atzean bestelako errealitateak daude. "Humanizatu egin behar dira zenbaki horiek, legeak behartuta etorkin ekonomiko bihurtu diren etorkin horiek istorio pertsonal ezberdin mordoa dituztelako". Prestakuntza handiko jendea etortzen da askotan, goi tituludunak, euren esperientzia eta jakituria hobetzera etortzen direnak. Baina jende horrek paperak lortzeko lana behar du derrigor, eta azkenean etxeko lanetan hasi behar izaten du paperak lortu eta bere benetako asmoak betetzen saiatzeko. Bizimodua aldatzera eta esperientzia bila etortzen diren askok ere bide hori aukeratu behar izaten dute azkenean. Lan kontuengatik ez ezik, genero indarkeriagatik eta iheslari politiko gisa etortzen direnak ere badaude.

Integrazioari dagokionez, hizkuntzak eta kultur hurbiltasunak garrantzi handia du

Lurralde ezberdinetako etorkinek profil ezberdinak dituzte. Hego Amerikatatik etortzen direnak, esaterako, emakumeak dira gehienak, eta proiektu familiarrekin etortzen dira: familia ekartzeko egiten dute lan. Magrebetik etortzen direnak, berriz, gizonezkoak dira gehienak, eta proiektu familiarrarekin etortzen direnak asko badira ere, bakarrik etortzen diren gazteak eta adingabeak gero eta gehiago dira. Europa ekialdetik etortzen direnen kasuan, berriz, gisa guztietako egoerak daude.

Integrazioari dagokionez, hizkuntzak eta kultur hurbiltasunak garrantzi handia du. Hala, Hegoalden askoz hobeto integratzen dira hegoamerikarrak, eta zailtasun handiagoak dituzte Magrebekoek. Iparralden, berriz, alderantziz gertatzen da.

"Eta hala ere, ez dira hainbeste". Etorkinak gero eta gehiago direnaren ustea usteltzat jotzen du SOS arrazakeriak. Eta estatistikek arrazoi ematen diote: azken hiru urteetako ikerketek diote Euskal Herrian etorkinen kopurua ez dela biztanleriaren %6,5a baino handiagoa. Eta krisiaren eraginez immigrazioa gelditzen ari dela diote aurreikuspenek.

Hego Ameriketatik etortzen direnak, esaterako, emakumeak dira gehienak, eta proiektu familiarrekin etortzen dira: familia ekartzeko egiten dute lan

Estitxu Elduaien

Immigrazioa Euskal Herrian

Xabier Aierdi Urraza
Soziologoa · UPV/EHUko Irakaslea

Euskal Herrian 3.100.000 biztanle inguru bizi da egun: hamarretik bederatzi Hegoaldean eta bat Iparraldean. Herrialdeka, Bizkaian bizi da biztanleria osoaren %37,1, Gipuzkoan %22,7, Nafarroa Garaian % 20,5, eta Araban eta Iparralden %10 inguru.

1.- Grafikoa. **Euskal Herriko biztanleriaren banaketa herrialdeka, ehunekotan (Hegoalde 2010, Iparralde 2008)**

1.- Taula. **Euskal Herriko egungo biztanleria herrialdeka (Hegoaldea 2010, Iparraldea 2008)**

Datu hauetarako Espainiako INEren 2010ko errolda eta Frantziako INSEEren 2008koa erabili ditugu. Ez dago egon, gaur egun behintzat, datu homogeneizatu orokorragorik[1]. Are gehiago, Iparralden udalerrietako datu orokorrak besterik ez ditugu eta immigrazio datu hurbilenak kantoi mailakoak dira. Horregatik hainbat pasartetan labur ibil gintezke. Baina, edonola ere, immigrazioaren gaurkotasuna aipagarri da azken hamar urteotan Hegoaldera heldu den kanpo-biztanleriaren ondorioz[2], eta, immigrazioaren zenbakiak ezagutze aldera, zorionez, Hegoaldeko datu eskuragarriak Iparraldekoak baino osatuagoak dira.

Euskal Herriak emigrazio eta immigrazio prozesu ugari bizi izan ditu, garai batzuetan immigrazioak eta emigrazioak txandakatuz, beste zenbaitetan aldi berean gertatuz, herrialde batzuk igorleak izan diren bitartean besteak hartzaileak zirelarik. Immigrazio prozesuek gainera bere historia modernoa zeharkatu dute eta baldintzatu ere egungo identitate, kultur eta errealitate politikoa. Aniztasun hauen atzean populazioaren aniztasunaren osaera dago. Horrela, Euskal Herrian bizi den %71,5 euskal lurraldean jaio da, ia %20 edo Frantziako edo Espainiako lurraldeetan, %7,2 atzerritarra da eta %1,6 atzerrian jaio da, baina frantses edo espainiar nazionalitatearekin.

2.- Taula. **Lurralde desberdinen biztanleriaren osaera jaioterriaren arabera (Hegoalde 2010, Iparralde 2008)**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa Garaia	Iparralde	Guztira
Euskal lurraldeetan	66,6	71,2	77,1	73,6	58,7	71,5
Frantzian edo Espainian	23,9	21,8	15,9	13,1	31,3	19,7
Atzerrian baina Estatuko nazionalitatea	0,6	1,0	1,0	2,0	5,6	1,6
Atzerritarrak	8,9	6,0	6,0	11,2	4,3	7,2
Guztira	100	100	100	100	100	100
Guztira (gordin)	313.819	1.152.658	705.698	630.578	282.003	3.084.756

1.- INSEE, Recensement de la population. Populations légales en vigueur à compter du 1º janvier 2011. Arrondisements, cantons, comunes (64 Pyrenees-Atlantiques) Paris, décembre 2010. Populazioa datuak 2008koak badira, immigrazioari buruzkoak 2007koak dira.

2.- Hegoaldeko datuei dagokienean lurraldeetakoa 2010ko urtarrilak 1eko datu probisionalak dira, baina udalerri eta eskualdeetakoak ateratzear dauden arren 2009ko urtarrilak 1ekoak dira.

Jaioterria etnikotasunaren faktore gisa hartzen badugu, Gipuzkoa da bertan jaiotakoez gehien osatua dagoen lurraldea eta Iparralde, ostera, gutxien duena[3]. Tartean, gainontzeko lurraldeak ditugu. Bertakoen presentzia areagotu egin da biztanleriaren ikuspuntutik esanguratsuak ez diren guneetan, horrela hainbat eta biztanle kopuru eskasagoa hainbat eta immigrazio tasa txikiagoa eta hainbat eta biztanleria bertokoagoa.

4.- Grafikoa. **Iparraldeko kantonamenduetan biztanleria bertan jaiotakoen ehunekoa eta kantonamendu bakoitzak Iparraldeko biztanlerian duen pisuaren arabera**



Begi bistakotzat hartua izango den erlazio hau oso erabakigarria da gero identitate edo hizkuntz kontuetara jaisten garenean, elkarren arteko ukipen eskasak hizkuntz sozializazioa zaildu egiten duelako. Euskararen zabalkunderako gainera oso datu kezkagarria dugu: Hegoaldera heldu den immigrarien %15 baino ez da hezkuntza sistematik pasatuko, beraz ukipen hau bakarrik eman liteke toki oso lokaletan, eta ezin da bermatu egungo parametroetan hurbilketa estrukturalik. Areago, immigrarien %70 luzea 18 eta 44 urte artean dago.

Atzerritarren tasa datuei erreparatuz, 2. Taula, immigrazio atzerritarraren tasarik handiena Nafarroa Garaian dugu (%11,2) eta txikiena Iparralden (%4,3). Euskal Herriko bataz bestekoa %7,2 da[4].

Aztertzen badugu lurraldeka zelan banatzen diren bertako, atzerritar eta biztanleria osoa, Araba dugu zelanbait eta, neurri eskasagoan, Gipuzkoa, banaketa orekatuena dutenak. Bizkaian, ostera, biztanleria guztiaren %37,9 bizi da, baina atzerritar etorkinen %31. Kontrako egoera erakusten du Nafarroa Garaiak, biztanleriaren %20 barne hartzen du, baina atzerritarren ia %32. Iparralden %9,4 eta %5,5 bizi da, hurrenez hurren. Osaera hauek oso erabakigarriak dira beren efektuetan eta integrazio prozesuei dagokienean, beherago ikusiko dugun moduan.

2.- Grafikoa. **Biztanleria osoa, bertakoa eta atzerritarren banaketa lurraldeka**



Immigrazio kopuru esanguratsuenak eta baita portzentajeak ere Nafarroa Garaiko hiru eskualdetan (Tuteraldea –%13,6–, Erribera Garaia –%12,1– eta Iruñerria –%10,1–) eta Arabako Lautadan –%9– agertzen dira (3. Taula). Bestalde, portzentajerik altuena Hendaiako kantonamenduarena da, %17,5. Hendaiako kasua beste kontaketa arazo ezagun baten erakusle da, atzerritar gisa edo ez-frantsez gisa agertzen den asko ere Hegoaldeko euskaljatorrikoak baitira, baina kontaketa honek hiru datu eskatuko lituzke: jaioterria, nazionalitatea eta nazionalizazio prozesurik bizi izan duen pertsonak. Momentuz honelako datu zehazturik ez dugu Hegoaldean eta Iparralden bai, baina ez udalerrika. Iparraldeko immigrazioaren banaketak Hendaia inguruaren garrantzia erakusten digu, 10 atzerritarretik lau bertan bizi direlarik. Gainontzeko kantonamenduei dagokienean, Baiona, Miarritze, Angelu eta Donibane Lohitzunek osatzen duten multzoan beste lau bizi da. Beraz, bost kantonamendu hauetan etorkinen %82 eta biztanleria osoaren %57,6 bizi da (5. Grafikoa eta 6. taula). Immigrazioa kostaldean kokatzen da eta gainontzeko kantonamenduetan eta batez ere barnekoenetan %18 baino ez. Ezin izan dugu nazionalitate zehatzen araberako daturik lortu ezta kontinenteka ere. Sexuaren arabera %51,7 gizonezkoa da eta %48,3 emakumezkoa eta adinaren arabera ez da Hegoaldera etorritakoaren besteko gaztea.

3.- Gainera, ditugun datuen arabera oinarritzat departamentua hartu dugu, dauden datuek ez dute uzten eta zehaztasun gehiago lortzen.

4.- Zenbait pasarte eta koadrotan beste portzentaje batzuez ari bagara erreferentziazko urtearen ondorioz da. Horrela, datu orokor edo lurraldetakoentzako 2010 badugu Hegoaldean eta 2008 Iparralden, eskualde eta kantonamenduentzat erreferentziazko urteak 2009 eta 2007 dira hurrenez hurren.

6.- Taula. **Eskualde eta kantoien immigrazioa tasa eta immigrazioaren banaketa eskualde eta kantoika (Hegoalde, 2009; Iparralde, 2007)**

Eskualde eta kantoiak	Bertakoak	Atzerritarrak	Biztanleria	Immigrazio tasa (%)	Immigrazioaren banaketa eskualde eta kantoika
Atharratze	3.188	28	3.216	0,9	0,0
Iholdi	4.256	43	4.299	1,0	0,0
Donapaleu	9.143	60	9.203	0,7	0,0
Hazparne	8.349	84	8.433	1,0	0,0
Garazi	6.262	91	6.353	1,4	0,0
Bastida	6.721	114	6.835	1,7	0,1
Bidaxune	5.095	128	5.223	2,5	0,1
Baigorri	5.666	157	5.823	2,7	0,1
Maule-Lextarre	9.865	181	10.046	1,8	0,1
Arabako mendialdea	2.993	191	3.184	6,0	0,1
Hiriburu	14.866	261	15.127	1,7	0,1
Arabako Ibarrak	5.253	308	5.561	5,5	0,1
Bokale	7.171	333	7.504	4,4	0,2
Uztaritz	22.175	347	22.522	1,5	0,2
Ezpeleta	14.368	365	14.733	2,5	0,2
Gorbeia Inguruak	7.916	461	8.377	5,5	0,2
Pirinioaldea	14.967	696	15.663	4,4	0,3
Lohizune	23.662	761	24.423	3,1	0,4
Angelu	37.144	780	37.924	2,1	0,4
Errioxa Arabarra	10.339	948	11.287	8,4	0,4
Biarritz	25.731	1.090	26.821	4,1	0,5
Arratia-Nerbioi	21.954	1.215	23.169	5,2	0,6
Kantauri Arabarra	32.615	1.456	34.071	4,3	0,7
Enkarterriak	29.708	1.520	31.228	4,9	0,7
Markina Ondarroa	24.855	1.825	26.680	6,8	0,8
Tolosaldea	45.050	2.090	47.140	4,4	1,0
Baiona	42.188	2.305	44.493	5,2	1,1
Plentzia-Mungia	50.174	2.733	52.907	5,2	1,3
Deba Goiena	59.168	2.754	61.922	4,4	1,3
Gernika-Bermeo	43.094	2.777	45.871	6,1	1,3
Deba Beherea	52.034	2.889	54.923	5,3	1,3
Estellerria	37.804	3.098	40.902	7,6	1,4
Ipar mendebaldea (NG)	56.782	3.540	60.322	5,9	1,6
Erdialdeko Ekialdea (NG)	37.911	3.556	41.467	8,6	1,6
Urola Kostaldea	67.987	4.134	72.121	5,7	1,9
Goierri	62.892	4.798	67.690	7,1	2,2
Hendaia	23.964	5.066	29.030	17,5	2,3
Durangaldea	90.885	5.488	96.373	5,7	2,5
Bidasoa Beherea	71.701	5.708	77.409	7,4	2,6
Erribera Garaia	54.149	7.457	61.606	12,1	3,5
Tuteraldea	88.090	13.910	102.000	13,6	6,4
Donostialdea	306.007	18.486	324.493	5,7	8,6
Arabako Lautada	228.682	22.657	251.339	9,0	10,5
Iruñerria	340.875	38.370	379.245	10,1	17,8
Bilbo Handia	826.003	50.427	876.430	5,8	23,4
Guztira	2.939.702	215.686	3.155.388	6,8	100,0

4.- Grafikoa. Hegoaldeko immigrazioaren emakume tasa azpikontinenteka (2010)



3.- Taula. Immigrazio tasak eskualdeka (Hegoalden) eta kantonamenduka (Iparralden)

Hegoaldeko eskualdeak	Bertakoak	Atzerritarrak	Biztanleria	%
Kantauri Arabarra	32.615	1.456	34.071	4,3
Gorbeia Inguruak	7.916	461	8.377	5,5
Arabako Lautada	228.682	22.657	251.339	9,0
Arabako mendialdea	2.993	191	3.184	6,0
Errioxa Arabarra	10.339	948	11.287	8,4
Arabako Ibarrak	5.253	308	5.561	5,5
Donostialdea	306.007	18.486	324.493	5,7
Goierri	62.892	4.798	67.690	7,1
Tolosaldea	45.050	2.090	47.140	4,4
Urola Kostaldea	67.987	4.134	72.121	5,7
Deba Goiena	59.168	2.754	61.922	4,4
Bidasoa Beherea	71.701	5.708	77.409	7,4
Deba Beherea	52.034	2.889	54.923	5,3
Arratia-Nerbioi	21.954	1.215	23.169	5,2
Durangaldea	90.885	5.488	96.373	5,7
Enkarterriak	29.708	1.520	31.228	4,9
Gernika-Bermeo	43.094	2.777	45.871	6,1
Bilbo Handia	826.003	50.427	876.430	5,8
Markina Ondarroa	24.855	1.825	26.680	6,8
Plentzia-Mungia	50.174	2.733	52.907	5,2
Ipar Mendebaldea (NG)	56.782	3.540	60.322	5,9
Pirinioaldea	14.967	696	15.663	4,4
Iruñerria	340.875	38.370	379.245	10,1
Estellerria	37.804	3.098	40.902	7,6
Erdialdeko Ekialdea (NG)	37.911	3.556	41.467	8,6
Erribera Garaia	54.149	7.457	61.606	12,1
Tuteraldea	88.090	13.910	102.000	13,6
Iparraldea	269.814	12.194	282.008	4,3
Guztira	2.939.702	215.686	3.155.388	6,8

Iparraldeko kantoiak	Bertakoak	Atzerritarrak	Biztanleria	%
Bokale	7.171	333	7.504	4,4
Bidaxune	5.095	128	5.223	2,5
Ezpeleta	14.368	365	14.733	2,5
Hazparne	8.349	84	8.433	1,0
Iholdi	4.256	43	4.299	1,0
Bastida	6.721	114	6.835	1,7
Maule-Lexterre	9.865	181	10.046	1,8
Baigorri	5.666	157	5.823	2,7
Lohizune	23.662	761	24.423	3,1
Garazi	6.262	91	6.353	1,4
Donapaleu	9.143	60	9.203	0,7
Atharratze	3.188	28	3.216	0,9
Ustaritz	22.175	347	22.522	1,5
Hendaia	23.964	5.066	29.030	17,5
Hiriburu	14.866	261	15.127	1,7
Angelu	37.144	780	37.924	2,1
Biarritz	25.731	1.090	26.821	4,1
Baiona	42.188	2.305	44.493	5,2
Iparraldea	269.814	12.194	282.008	4,3

Immigrarien jatorria kontinenteka oinarri hartuta, 3. Grafikoa, ezberdintasun nabarmenak aurki genitzake lurraldeen artean. Hegoaldeko bataz besteko banaketak %31,6 Europakoa dela erakusten badigu, %21,8 Afrikakoa, %42,1 Amerikakoa eta %4,4 Asiakoa, Bizkaian latinoamerikarren presentzia zeharo handiagoa da, Gipuzkoan Europarrena altuagoa eta Afrikarrena eskasagoa, Araban Magrebtarrena handiagoa eta Nafarroa Garaian Europarrak gehiago dira eta Latinoamerikarrak eskasago. Zoritxarrez, ez dugu honelako ze-

haztasunik Iparralderako eta INSEEren txosten labur baten bidez Akitaniako datu orokor batzuen banaketara baino ezin gaitezke heldu[5]. Txosten honen arabera, %60 europarra da, gehienak EB-15koak, %30 afrikarra eta %7 asiarra (4. Taula).

5.- Grafikoa. **Hegoaldeko lurraldeak immigrazioren osaeraren arabera kontinenteka, 2010.**



4.- Taula. **Hegoaldeko lurraldeak immigrazioren osaeraren arabera kontinente eta azpikontinenteka, 2010.**

Iritzi publikoan eta gizarte-diskurtsoetan oso hedatua dagoen arren, lurraldekako jatorri desberdindu hauek ez dira inolaz ere uholde deskontrolatuen emaitza, immigrazio fenomenoan erabaki politikoek trabatzen dutena jendarteak erregulatzen du eta. Partaidetza sozialak etorrerei arrazionalitatea gainjartzen dio eta aukeratzen den (ez berez datorren) immigrazioa bertako premietara egokitzen da stock-effect (tantaka) mekanismoaren bitartez, banan bana sare, ibilbide eta autobideak sortzen direlarik. Ikuspegik, Immigrazioaren Euskal Behatokiak, bizileku-aldaketaz[6] egin zuen ikerketa baten ondorioz, immigrazioaren %75 beren sorterritik zuzenean etorri dela eta hauetatik %80 bidai bakar bat egin duela egiaztatu zuen. Beste era batera esanda, hamarretik seik dagoeneko bertan bizi den nazio-kide baten deiari erantzunez bidai bakar bat egin du. Gizarte premiak eta immigrariak, euren familia-sareen bidez, fluxu askoren erregulatzaileak dira.

Hegoaldeko lau lurraldeen osaera ezberdina ulertzeko Laparraren ahalmen integratzaile terminoa erabiliko dugu. Ahalmen honek harreman estua du gizarte bateko egitura produktiboarekin, beronek baldintzatzen baititu hala immigrazio kopuruak nola jatorri-osaerak. Ahalmen honen arabera Gipuzkoa eta Bizkaiko egiturak zurrunak dira: industrialak dira eta lan indar espezializatua eskatzen dute, ez dute nekazaritza esanguratsurik eta eraikuntza ez da sektore kopurutsua. Ondorioz, immigrazio tasak oso txikiak dituzte. Beste muturrean Nafarroa Garaia daukagu, egitura askoz dibertsifikatu, osatuago eta orekatuagoarekin. Araba tartean dago, nekazaritza apur batekin eta eraikuntzaren presentzia nabarmen batekin. Baina Hegoaldeko euskal lurralde guztiek beharrizan berbera konpartitzen dute: zaintza pertsonala, menpekotasunaren kudeaketa eta egitura demografikoak sortu dituen soldatapeko sektore berriak. Gure eremuan immigrazioaren kontratatzailea ez da industria, edo ez dira sektore industrialak soilik, familia baino. Horregatik,

1)aurreko migrazio mugimenduekin erkatuta, Hegoaldera etorri den immigrazioak feminizazio tasa hain handia du (5. grafikoa),

2) eta, besteak beste, Latinoamerikarren pisua ehunekotan oso esanguratsua da.

5.- INSEE Aquitaine, "La population des ménages aquitains compte 175.000 immigrés en 2005", Le quatre pages, 173 zbkia, 2008, Bordele, Frantzia. Txostentxo honen arabera Afrikako immigrari gehienak Magrebtarrak dira eta Europarrak batez ere Portugal eta Espainiar nazionalitatedunak.

6.- Beatriz Otero, Bizileku aldaketak EAE-n, 2002-2006, Ikuspegi, Bilbo, 2009.

3) Beraz, EAEn eskatzen den profil arruntenetarikoa emakume latinoamerikarra[7] da. Presentzia hau gainera areagotu egingo da. Nafarroa Garaian esan bezala ugariagoa da jarduera sektoreen arteko egoera eta jatorriak ere ugariagoak dira, lan espezializatuaz gain, lan intentsiboa ere eskatzen delarik lurralde honetan.

Askotan dei-efektua aipatu eta existitzen bada ere, premia-efektua askoz garrantzizkoagoa da, eta premi horiei aurre egiteko normalean harreman kulturalak ditugun lurraldean bilatzen dira. Espainiako kasuan immigrazio hobetsi bat dago, Latinoamerikakoa. Immigrazio latinoamerikarrak integrazio arazo gutxiago planteatzen dio espainiar estatuari eta horren ondorioz ezartzeko eta hiritartasuna eskuratzeko irizpide eta lege-trabak askoz arinagoak eta errazagoak ditu jatorri honetako immigrariak.

Hamar herrialde garrantzitsuenen artean bi magrebtar (Aljeria eta Maroko), bost latinoamerikar (Kolonbia, Ekuatore, Bolivia, Brasil eta Peru) eta hiru europar (Errumania, Portugal eta Bulgaria) ditugu. Lurraldeka presentzia ezberdina dute eta aipatu bezala bakoitzeko ahalmen integratzailearekin oso lotuta daude (5.taula).

6.- Taula. Immigrarien jatorrizko nazionalitate garrantzizkoenak lurraldeka. Kopuru absolutu eta erlatiboak. 2010

	Nafarroa Garaia	%		Araba	%		Gipuzkoa	%		Bizkaia	%		Guztira	%
Guztira	70.931	100		28.010	100		42.196	100		69.023	100		210.460	100
Maroko	9.572	13,5	Maroko	4.432	15,8	Portugal	4.328	10,3	Bolivia	9.949	14,4	Maroko	28.321	13,5
Ekuatore	9.394	13,2	Kolonbia	3.196	11,4	Errumania	4.246	10,1	Errumania	9.114	13,2	Errumania	25.985	12,3
Errumania	6.585	9,3	Aljeria	2.423	8,7	Maroko	4.242	10,1	Kolonbia	6.661	9,7	Kolonbia	19.939	9,5
Bulgaria	6.485	9,1	Portugal	2.256	8,1	Ekuatore	3.138	7,4	Maroko	5.712	8,3	Ekuatore	17.616	8,4
Portugal	5.892	8,3	Errumania	1.930	6,9	Kolonbia	2.937	7,0	Paraguai	3.390	4,9	Bolivia	14.171	6,7
Kolonbia	4.356	6,1	Brasil	1.193	4,3	Brasil	1.514	3,6	Brasil	3.089	4,5	Portugal	10.166	4,8
Bolivia	3.216	4,5	Ekuatore	1.162	4,1	Bolivia	1.437	3,4	Ekuatore	3.074	4,5	Aljeria	8.901	4,2
Aljeria	3.125	4,4	Paraguai	977	3,5	Argentina	1.349	3,2	Portugal	2.781	4,0	Brasil	8.243	3,9
Peru	2.271	3,2	Peru	732	2,6	Frantzia	1.188	2,8	Txina	2.704	3,9	Bulgaria	6.904	3,3
Brasil	1.867	2,6	Bolivia	676	2,4	Italia	991	2,3	Senegal	1.860	2,7	Peru	5.401	2,6
Dom. Err.	1.396	2,0	Txina	656	2,3	Ukrania	969	2,3	Peru	1.606	2,3	Txina	4.634	2,2
Ukrania	1.236	1,7	Dom. Err.	565	2,0	Txina	959	2,3	Aljeria	1.511	2,2	Paraguai	4.277	2,0
Frantzia	1.105	1,6	Nigeria	485	1,7	Peru	909	2,2	Argentina	1.221	1,8	Argentina	3.725	1,8
Nigeria	1.067	1,5	Argentina	405	1,4	Dom. Err.	891	2,1	Italia	958	1,4	Senegal	3.326	1,6
Italia	881	1,2	Italia	347	1,2	Aljeria	739	1,8	Nigeria	879	1,3	Frantzia	2.850	1,4
Gainerakoak	12.483	17,6	Gainerakoak	6.575	23,5	Gainerakoak	12.359	29,3	Gainerakoak	14.514	21,0	Gainerakoak	46.001	21,9

Datu orokor hauek ikusita, immigrazio berriak zer egiten du Euskal Herrian, arazo berriak ekarri ala zeudenak intentsifikatu? Ba, bietatik zerbait. Alde batetik, azaleratu egiten ditu oinarrian dauden erronkak eta bestetik zenbait arazo intentsifikatu egiten du. Eskertzekoa da etorreraren ondorioz zeuden hainbat erronka berrikusi eta birpentsatu behar izatea. Kontua da nondik hasi eta nola identifikatu eta mailakatu erronkak immigrazio politikak planteatzeko ahalmen politikorik ez dagoenean, identitate arazoak dirautenean, hizkuntza oso ahul baten berreskurapena geldotua dagoenean, eta errekonozimendu gradu ezberdineko hiru lurralde berezitu, hiru administrazio eta bi estatu daudenean. Ez dakigu egoera poliedriko honetan zer eusten ari garen, edo immigrazio bera edo eta beste zenbait arazo estruktural immigrazioaren etorreraren harira. Aniztasunak aniztasun:

7.- Latinoamerikarren pisua ehunekotan oso esanguratsua da Bizkaia eta Gipuzkoan. Immigrazio guztiaren laurden baten soslaia honakoa da: emakume eta latinoamerikarra. Bizkaian heren batera heltzen da. Bilbo eta Donostiako zenbait auzunetan %45 izatera heltzen da. Fenomeno honen atzean bi kausa daude: familiaren eraldaketa eta emakumearen enplegu mundurako inkorporazio masiboa. Estatu espainiarrean populazio aktiboa 1993. urtean 13 milioikoa zen eta 2008. urteko uztailean 23 milioikoa. Gertakari honen atzean 5 milioi emakume, milioi bat gazte eta lau milioi immigrari dago.

1. Hasteko, immigrazioak jarraitu egingo du, ez agian azken urteotako zenbakietan, baina hain zoru industrial sendoari maila sozialean ditugun premiak gainezartzen badizkiogu (gizartearen zaharkitzea, menpekotasunaren kudeaketa, emakumearen rol tradizionalaren errebisioa, indibiduo-tasunaren fenomenoa...), immigrazio kopuruak hurrengo urteotan hazten jarraituko du. Bikoiztu arte, agian? Seguruenik, bai, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoan. Gainontzeko lurraldeetan zailagoa izango da. Gainera etorreren jatorria parekatuz joango da: batzuk Estatuko gainontzeko erkidegoetatik etorriko dira eta besteak zuzenean atzerritik.
2. Integrazio kulturalerako arazo kritiko bat dago: euskara eta euskal kulturaren eta immigrazioaren geografiak paraleloak dira eransten diren mapetan ikus litekeen moduan[8] (ikus mapak). Are gehiago, hainbat eragilek aipatu izan du zenbait lan-gunetan (zaintza eta zerbitzuak) immigrazio latinoamerikarraren presentzia euskararen kaltera datorrela, baina hemen ere arazo ekidinezina agertzen da, gure gizarteko zaintza guneetara hobekien egokitzen den jatorria latinoamerikarra delako, bi hizkuntzetatik bat menderatzen duelako. Gainera, ez dago gure premia kulturaletara lehenetsi dezakegun jatorririk.
3. Integrazio politikoa ez da etorkinenganako arazoa, gizarte osoarena baino. Baliabide politikoen faltan, baleude ere zaila litzateke estrategia apropos bat eraikitzea, immigrazioaren kudeaketa arazo orokorraren zati bat baino ez da, oraindik ez baitago identitate adostu bat edo-eta identitate ezberdinekin euskaltasun eztabaidaezina sortuko duen estrategi komunik. Euskaltasun kultural eta aurre-politikoak permitituko luke leialtasun ariketak egin ahal izatea, baina euskaltasunak aukera gutxi ditu borroka elkar ukatzen duten nazionalismoen artekoa denean. Euskaltasunarekin elebitasunarekin gertatzen dena gertatzen da, posible da maila indibidualean baina zailagoa edo ezina maila sozialean. Egingarria balitz, euskaltasunak jendartean zabaltzeko fase ezberdinak jarraitu beharko lituzke: lehenengo egungo EAEn, gero agian Nafarroa Garaian eta noizbait Iparralden.
4. Egungo zatiketa administratibo eta politikoarekin immigrazioaren kudeaketak ezinbestean tokikoa izan behar du, ez da posible harago joatea. Euskal gizartean gutxienez hiru gatazka gune gurutzatzen dira, zaila delarik zehaztea non hasten eta bukatzen den bakoitza: identitate kulturalena, politikoa eta soziala. Lehen biek jite komunitarioa dute eta hirugarrenak indibiduala. Gizarte oso moderno batean bizi gara eta gutariko bakoitzak maila pertsonalean oso indibidualak gara, baina kontraesanaren kontzientzia eduki gabe eremu kultural eta politikoan joko komunitarioa exijitzen dugu.
5. Beraz, immigrazioak aukera berri bat eman behar digu herri gisa eta batez ere bere osakin kulturalekin zuhur eta modu estrategikoan ondo jokatu ahal izateko. Integrazioaz hitz egiten dugunean, galderak ugaritu egin litezke eta erantzunak urritu: Integratu nor? Nora? Non? Profita dezagun immigrazio berriaren etorrera herri honen geroaren zenbait ildo komun, komunean eta elkarrekin, berrasmatzeko. Helburu honetara abiatzeko ez da egokia analitikoki Espainiatik etorritako immigrazioa eta egungoa nahastea.

Integrazio kulturalerako arazo kritiko bat dago: euskara eta euskal kulturaren eta immigrazioaren geografiak paraleloak dira

8.- Erramun Osa eta Xabier Aierdi, "Immigrazio berria, hizkuntza arazo berririk?", Euskera 54,3, Euskaltzaindia, Bilbo, 2009, 1433-1452 orrialdeak

1 eta 2 mapak: Immigrazioaren eta euskararen geografiak eskualdeka



3 eta 4 mapak: Immigrazioaren eta euskararen geografiak udalerrika





5 mapa: Iparraldeko kantonamenduen immigrazio portzentajea



Urte gehiago eta gehiago kotizatuz

Grebak greba eta protestak protesta, erretiro adina atzeratu egingo da Euskal Herrian. Bizi itxaropena luzatu egin dela eta ondorioz, erretiratzeko adina ere automatikoki atzeratu egin behar dela argudiatu dute agintariek, baina krisiak diru zorro publikoetan eragindako zuloa da arrazoi nagusia.

Krisiaren ondorioz, zor eta defizit publikoek bat batean egin dute gora 2010ean eta horri aurre egiteko, gastu publikoa murrizteari ekin diote gobernuek. Erretiro adina atzeratzea proposatu zuen urte hasieran Europako Batzordeak: "Halakorik egin ezean, egoera ez da bideragarria izango. Hala jarraitzeaz, pentsio publikoak arriskuan daude". Mezua argia izan zen, eta zenbait gobernu estu hartu zituen Bruselak. Herrialde gehienek onartu zuten abisua, eta bide horri ekin diote askok, pentsio sistemak erreformatuz. Erretreta sistema aldatzeko erabakiek zuzen-zuzenean eragin dute Euskal Herrian.

Frantziako gobernuak udazkenean onartu zuen pentsio sistemaren erreforma. Greba orokor andanari aurre egin behar izan dio Nicolas Sarkozyren gobernuak, baina ez du amore eman, eta egin egin du erreforma. Ondorioz, 2018tik aurrera, Iparraldeko langileek 62 urterekin hartuko dute erretiroa. Orain 60 urtean dago erretiro adina, eta horrenbestez, bi urte atzeratuko da erreformaren ondotik. Modu progresiboan egingo da: 1951tik aurrera sortutako langileei, 2011ko uztailetik aurrera, urtero lau hilabetez atzeratuko zaie erretiro adina.

Pentsioa oso-osorik jasotzeko kotizatu beharreko epea ere igoko zaie Iparraldeko langileei. 2012an 41 urte kotizatu beharko dira, 2013an 41 urte eta hiru hilabete, eta 2020an 41 urte eta erdi. Eta kotizatu beharreko urte kopurua bete ez arren, pentsio osoa jasotzeko eskubidea, berriz, 65 urtetik 67 urtera luzatu dute.

Neurri hori sektore pribatuko langileentzat izateaz gain, erretreta eskubidea 60 urterekin duten funtzionarioentzat ere izango da. Sistema berezia duten funtzionarioei ere aplikatuko zaie arau berria, baina 2017tik aurrera. Orain arte, funtzionarioek eta langile pribatuek erretiro sistema ezberdina zuten, eta sektore publikoko langileek baldintza hobeak zituzten. Erreformarekin "ezberdintasunak berdinduko" direla adierazi du Frantziako gobernuak.

Erretreta sistema aldatzeko erabakiek zuzen-zuzenean eragin dute Euskal Herrian

Espainiako gobernuak ere esku artean izan du proposamena eta 2011 hasierarako onartu zuen. Bilerak eta negoziazioak ugari izan dira 2010ean, eta greba orokor bat ere izan da, baina erreforma gauzatu egin da. 2013tik 2025era bitartean, Hegoaldeko langileen erretiro adina 65 urtetik 67ra atzeratuko da, eta kotizazio urteak ere luzatu egingo dira. Orain, erretiro pentsioa jasotzeko gutxienez 15 urtez kotizatu behar da, eta kasu horretan soldataren erdia jasotzen du erretiratuak. Aldi hori luzatu ahala, pentsioa ere handitu egiten da: 15 eta 25 urte bitartean, urtean %3, eta hortik gora %2. Pentsio osoa jasotzeko, 35 urtez edo gehiagoz kotizatu behar da. Gutxienez kotizatu beharreko urte kopurua 15 urtetik 20 edo 25era luzatu du pentsio erreformak.

Estitxu Elduaien

ERRETIRATZEKO ADINA, EUROPAN

Alemania: 2007an onartu zen 2012tik aitzina erretiro adina pixkanaka 65 urtetik 67ra aldatzea. Hala, 1963tik aurrera jaiotakoak 67 urterekin erretiratuko dira. 45 urtez kotizatuz gero, 65 urterekin erretiratzeko aukera izango dute.

Belgika: 65 urte da erretiratzeko adina, baina 60rekin ere egin daiteke, 35 urtean lana eginez gero.

Danimarka: 2006an onartu zen 2024 eta 2027 bitartean erretiro adina 65 urtera atzeratzea.

Erresuma Batua: Gobernu berriaren helburua da erretiratzeko adina 65 urtetik 66 urtera atzeratzea 2016tik aurrera.

Italia: Ezberdintasunak daude emakume eta gizonezkoen artean. Emakumeak 60 urterekin erretira daitezke, eta gizonak 65ekin. Administrazio publikoetan aritzen diren emakumeen erretiro adina 65 urtera atzeratu nahi dute.

Suedia: 61 urtetik aurrera erretiratzeko aukera dago, 67 urtera arte. 67 urtera arte lanean jarraitzea erabakitzen dutenek %60 pentsio handiagoa jaso dezakete.

Testuaren jatorrizko hizkuntza: gaztelania

Erretiro-adina Euskal Herrian

Mikel de la Fuente
UPV/EHUko Irakaslea

Erretiro-adinaren araubidea, edo, hobeto esanda, erretiro-adinena, aldatzen ari da, eta okerrerako, bai Euskal Herriko Iparraldean, bai Hegoaldean. Aldaketa horiek egin dira, batetik, Frantziako estatuan onartu den "erreforma" baten bidez, eta Espainian, bestetik, gizarte-hitzarmen baten ondorioz; zehazki, 'Hazkunderako, Enplegurako eta Pentsioen Bermerako Hitzarmen Sozial eta Ekonomikoa' izeneko hitzarmenaren bidez, Espainiako gobernuak, CEOE patronalak eta Comisiones Obreras eta UGT sindikatuek izenpetu dutena. Hitzarmen hori ez da oraindik lege bihurtu, baina legea datozen hiletakoren batean argitaratzekoa da. Idatzi honetan, adinaren aferari erreparatuko diogu nagusiki, baina pentsioen beste alderdi batzuk ere aldatu nahi dira erreforma-prozesu horietan, pentsio-eskubidea nabarmen kaltetzen dutenak. Erretiro-pentsioa kalkulatzeko denbora-epearen aldaketa da, Hegoalden, aldaketa nabarmen horietako bat; izan ere, 15 urtetik 25 urtera igoko da denbora hori, eta horrek, lanbide-ibilbidearen arabera, %4 eta %10 bitartean murriztuko du pentsioen zenbatekoa. Espainiako gobernuak kalkulatu du erreformaren inpaktu ekonomikoa, 2040. urtean, Barne Produktu Gordinaren %3koa izango dela erreformarik gabeko egoerarekiko; hau da, pentsioek, urte horretan, BPGaren %14ko kostua izango dutela, %17koa izan beharrean.

Erretreta-adinaren araupena Iparralden

Frantziako estatuan, langile guztiei osatzen zaizkie pentsioak AGIRC eta ARRCO erregimenetako lanbide-pentsio osagarriekin. Lan-negoziazio kolektiboen ondorioz sortutako osagarriak diren arren, legeak orokortu egin ditu langile guztientzat, eta pentsioen diru-sarreren zati nabarmen bat dira gaur egun, batik bat soldata handiak izan dituzten langileen kasuan, baina ez dugu horiei buruz hitz egingo idatzi honetan. Pentsio publikoen esparruan, bereiztekoak dira erretretarako eskubidea eskuratzeko adina eta "tasa osoko" erretreta-adina. Pentsioak erreformatzeko 2010eko urrian onartu den legeak 60 urtetik 62 urtera igo du lehendabiziko erretreta-adina, eta 65 urtetik 67ra bigarrena. Legeak, halaber, sektore publikoak eta pribatuak erretretaren gai-esparruan dituzten arauen arteko harmonizazioa indartzeari ekin dio, baina, bide hori jorratzeko, sektore publikoan aplikatu ditu sektore pribatuko arau murriztaileagoak. Erreforma egiteko eman den arrazoia demografikoa dela esaten den arren, ez da nabarmendu 59 urte dituzten pertsonen enplegu-tasa %40koa dela; izan ere, kontuan izan behar da erretreta-adina igotzeak handitu egingo duela lana egiteari utzi eta erretreta hartu arteko denbora, eta horrek murriztu egingo duela pentsioen diru-zenbatekoa, décote edo koefiziente zigortzaileak aplikatuko baitira, kotizazio-epeak behar bestekoak izan ez diren kasuetan.

Erreforma egiteko eman den arrazoia demografikoa dela esaten den arren, ez da nabarmendu 59 urte dituzten pertsonen enplegu-tasa %40koa dela

Erretreta-eskubidea eskuratzeko adina. Erretreta-adina, 1983. urtean, 60 urtetan finkatu zen gutxienez 150 hiruhileko (37,5 urte) kotizatu zuten pertsonentzat, diru-zenbatekoa %50ekoan ezarriz; horrekin batera, 65 urtetan finkatu zen, denbora-baldintzarik gabe, *tasa osoko* erretreta, %50ean. Urte horretan, 1983an, ez zen erretreta-adina arautu, baina 40 urtera igo zen sektore pribatuan tasa osoko erretreta hartzeko kotizatu beharreko urte-kopurua, eta décoteak ezarri ziren baldintza hori betetzen ez bazen, eta erretreta 65 urte bete baino lehen hartzen bazen. Neurri hori sektore publikora zabaldu zen 2003. urtean egin zen *Fillon erreformaren* ondorioz, eta sektore publikoan nahiz pribatuan kotizazio-denbora 41 urtera igotzea adostu zen 2012rako. Lege berriak, 2010ean, 60 urtetik 62ra igo du erretreta-adina, lau hileko igoera eginez, belaunaldika, 1951etik aurrera jaio diren pertsonentzat; hala, 62 urteko erretreta-adina aplikatuko zaie 1956ko urtarrilaren 1etik aurrera jaio diren pertsonei. 2010eko legea garatzeko dekretuek 41 urte eta hiruhileko batera igo dute erretreta osoa 62 urterekin hartzeko kotizazio-epea 1953an eta 1954an jaio diren belaunaldientzat, eta iragartzen dute epe hori hiruhileko bat igo daitekeela 1955etik aurrera jaio diren belaunaldientzat. Erretreta *tasa osoan* hartzeko adina. Erretreta *tasa osoan* hartzeko adinak ere gora egingo du, lau hil luzatuko baita urteko, 2016ko uztailaren 1etik 2023. urtera.

Gizarte-segurantzari kotizatutako lau pertsona-talde hauek eutsi egingo diote 65 urteko erretreta-adinari:

- Hiru seme-alaba izan edo zaindu dituzten pertsonak, baldin eta, beste baldintza batzuen artean, beren lan-jar-

duera profesionala eten badute horietako bat jaio edo adoptatzean, haiek zaintzeko.
- Minusbaliotasunak dituzten seme-alaben gurasoek, baldintza jakin batzuk betetzen badituzte.
- Lan-jardun profesionala familia zaintzeko eten behar izan duten pertsonak.
- Minusbaliotasunak dituzten pertsonak.

Lanean jarraitzeko pizgarriak. *Fillon erreformak*, 2003. urtean, %0,75eko surcote edo hobaria ematea erabaki zuen hiruhileko bakoitzeko 40 urte kotizatu dituzten langileei (41 urte izan beharko dira 2012an), baldin eta 60 urtetik aurrera lanean jarraitzen badute. Lege batek, 2009. urtean, %1,25era igo du surcoteen balioa hiruhileko bakoitzeko, eta malgutu egin ditu enpleguaren eta erretretaren arteko bateragarritasun-aukerak; izan ere, tasa osoko pentsioa jasotzen duten pertsonek aukera izango dute erretreta-pentsioa osorik metatzeko eta berriro lanean hasteko.

Zigor-tasak jasan beharra kotizazio-urteak osatzen ez badira eta adinak errespetatzen ez badira. Legeak 2003an ezarri zuen erreformaren ondoren, Gizarte Segurantzara kotizatu duen pertsona ez bada iristen %50eko tasa osora, zigor-koefiziente edo décote bat jasan beharko du, tasa osoko erretretarako kotizatu behar den denbora osatzeko falta zaion hiruhileko bakoitzeko edo 65 urte egiteko falta zaion hiruhileko bakoitzeko (bi gertakari horiek batera ematen badira, denbora-epe txikiena hartuko da kontuan). Legearen 2010eko erreformaren ondoren, décotea baliogabetzeko adinak gora egiten du, modu progresiboan, 65 urtetatik 67 urtetara, lehen adierazi ditugun lau taldeen kasuan izan ezik, horiek eutsi egingo baitiote 65 urtetako adinari. Koefiziente murriztaileak behera egiten du, modu progresiboan, jaiotze-dataren arabera: %1,25ekoa izango da hiruhileko bakoitzeko 1944-01-01a baino lehen jaio direnentzat, hau da, surcotearen zenbateko berekoa izango da, eta %0,625ekoa izango da 1952. urtetik aurrera jaiotakoentzat. Funtzio publikoan, %1,25ekoa da. Azterlan ofizial batek adierazten du surcote aktuarial neutroa %6,7koa litzatekeela urtean, egungo %5ekoa baino handiagoa, eta décotearena %3,8koa litzatekeela, arautu den %5ekoa baino txikiagoa. Koefiziente aktuariala neutroa izango da, surcoteen kasuan, lan-jardun profesionala urtebetez luzatzearen ondorioz jasotzen den pentsioaren jasotze-denboran haren zenbatekoa handitzen den kopurua baliokidea bada Gizarte Segurantzako sistemak jasotzen duen etekin-kopuruarekin, hau da, baldin eta urte horretan langileak ordainduko dituen kotizazioen eta urte horretan ordainduko ez zaion pentsioaren kopuruen baliokidea bada. Bestalde, décoteen kasuan, neutroa izango da lan-jardun profesionala aurretiaz uzteak pentsioan eragiten duen murrizpena baliokidea denean sistemari eragiten zaion galerarekin, kotizazioak jasoko ez dituelako eta urte horretan pentsio bat ordaindu beharko duelako. Laburbilduz, zigortze-tasak neutraltasun aktuarialeko ehunekoak baino handiagoak dira, baldin eta lan profesionala ezarrita dauden adinak bete aurretik uzten bada eta tasa osoko pentsioa jasotzeko behar direnak baino kotizazio-urte gutxiago betetzen badira, eta, kontrako noranzkoan, neutraltasun aktuarialeko ehunekotik gorako hobari-ehunekoak aplikatzen dira, baldin eta langileak lan-ibilbideko urteak luzatzen baditu.

Erretreta-adina aurreratzea kotizatzen *ibilbide luzeak* egin direlako. Legegileak ikusi zuen 40 urte baino gehiago kotizatu duten langileek ez lituzketela, sistema horrekin, beren pentsio-eskubideak hobetuko; beraz, 2003ko erreformak erabaki zuen erretreta 60 urte bete baino lehenago hartzeko aukera izango dutela 168 hiruhileko (42) kotizatu dituzten langileek. Arau horren onuradun izan dira, oro har, trebakuntza gutxiko eta nekagarritasun handiko lanak egin dituzten langileak; izan ere, 100.000 onuradun baino gehiago izan dira Frantziako estatuan, 2004 eta 2006 urteetan. Gerora, ordea, nabarmen okertu dira onura horiek eskuratzeko baldintzak; hala, 2009an, 43 urtera igo da erretreta hartzeko eskatzen den lan-denbora, eta, ondorioz, erdira jaitsi da arau hori baliatuz erretreta hartu duten pertsonen kopurua. Lege berriak 58 urtera atzeratu du gutxieneko adina 1952an jaio diren pertsonentzat, eta 57 urtera 1953an jaiotakoentzat (lehen 56 urterekin har zezaketen), eta kendu egin da erretreta 59 urterekin hartzeko aukera. Kotizatzeko epea hiruhileko bat luzatzen da (43 urte eta hiruhileko bat) 1953 eta 1954ko belaunaldientzat. Neurri horien guztien ondorioz, nabarmen mugatuko dira erretreta arrazoi horregatik hartzeko aukerak.

Erretreta-adina aurreratzea egindako lanaren nekagarritasunarengatik. Pentsioa tasa osoan eskuratuko du langileak

Hegoalden pentsioaren %100a lortzeko 37 urte kotizatu beharko dira erreforma berria onartzean

lanaren nekagarritasunarengatik, dekretuz arautzen diren baldintzak betetzen dituenean. Arau horren onuradun izango dira ezintasun iraunkorra aitortzen zaien langileak, baldin eta gaixotasun profesional baten edo lan-istripuren baten ondoriozkoa izan eta *ezintasun-maila* %20koa bada gutxienez. Ezintasun-maila txikiagoak dituzten langileek (%10aren ingurukoak, ziur asko) derrigorrezkoa izango dute frogatzea 17 urtez aritu direla gutxienez, arrisku profesionaleko faktore baten edo batzuen eraginpean lan egiten, eta lotura bat dagoela arrisku horien eta beren ezintasunaren artean. Arau horrek banaka neurtzen du ezintasuna erretreta hartzeko unean, baina ez ditu kontuan hartzen nekagarritasun handiko baldintzetan lan egin baina ezintasun aitorturik ez duten langileen kasuak. Itxura batean, gihar-hezurdurako perturbazioak eta buru-nahaste larri atzeraezinak dituzten pertsonek (mota horretakoak izaten dira buru-nahaste larri atzeraezinen %40) izaten duten batez besteko ezintasun-maila %8,5ekoa izan ohi da, eta, ondorioz, ezin izango dute baliatu erretreta-adina aurreratzeko aukera hori.

Erretiroaren araupena Hegoalden

Erretiro-adin arrunta. Erretiro-adin arrunta araubide zaharrarekin 65 urtetan zegoen finkatuta, baina araubide berriak bi adin ezarriko ditu: 67 urteko erretiro-adin orokorra, eta 65 urterekin hartuko dena, baldin eta 38 urte eta erdi kotizatu baditu langileak (kotizazio-denbora hori osatu dute egun erretiratuta dauden pertsonen %45ek eta soldatapean lan egiten duten langileen %50ek, baina ehuneko horiek askoz ere txikiagoak dira emakumeen artean). Kasu batean zein bestean, 37 urte kotizatu beharko dira pentsioaren %100a jasotzeko, eta ez 35 urte, orain arte bezala. Azken aurreikuspen hori modu progresiboan ezarriko da, 2013 eta 2027 urteen bitartean. Horrenbestez, Hegoaldean (Espainiako estatuaren araubidepean) ez da "tasa osoko" erretirorik, edo, bestela esanda, erretiroa hartzeko adina edozein izanda ere, pentsioaren %100a lortzeko 35 urte kotizatu behar ziren orain arte, eta 37 urte kotizatu beharko dira erreforma berria onartzean. Datuek esaten dute, 2010eko abuztuan, pentsiodunen %40,03k hartu dutela erretiroa 35 urte baino gutxiago kotizatu ondoren, eta, logikoa denez, ehuneko nabarmen handiago batek ez ditu 37 urte kotizatuko, eta ez dute pentsio osorik jasoko. Ehunekoak aldatu egiten dira erregimenetik erregimenera, eta oso txikiak dira prekariotasun handiko lan-kolektiboengan: 35 urte baino gutxiago kotizatu dituzten pertsonen portzentajea %28,46koa da erregimen orokorrean, baina %94,60koa da etxeko langileen erregimenean.

Kalkuluen arabera, pertsonen %60 izango da, lege-baldintza berriekin, erretiroa 65 urterekin hartzeko moduan. Ehuneko hori gero eta txikiagoa izango da, jendea gero eta beranduago hasten baita lanean, eta denbora gehiago izaten baita lanik gabeko egoeratan; azken kasu horietan, gutxi izaten dira erretirorako kotizazioak egiteko aukera ematen duten egoerak eta denbora laburretarako gainera. Proportzio horien banaketa ez da berdintasunezkoa, gizonezkoena askoz ere handiagoa baita emakumeena baino. Gizonezkoek baino denbora gutxiago kotizatu ohi dute emakumeek, azken horiek lan-etenaldiak egiten baitituzte seme-alabak eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko; gainera, lanaldi partzialeko enplegutan, emakumezkoak izan ohi dira langile gehienak.

Erretiro-adin berria, 67 urtetan finkatua, modu progresiboan ezarriko da; izan ere, egungo erretiro-adina, 65 urtekoa, igotzen joango da 2013 eta 2027 urteen bitartean. Hilabetez igoko da urte bakoitzeko 2018ra arte, eta bi hilabetez urte bakoitzeko 2019tik 2027ra.

Erretiroa 65 urterekin hartzeko bete behar den kotizazioaldia 35 urtetatik 38 urte eta sei hilera igaroko da 2013. urtetik 2027. urtera bitartean, eta hiru hileko igoera-erritmoa izango du urtero.

Espainian adostu den gizarte-hitzarmenak erabaki du kotizatutako denboratzat hartuko direla prestakuntza- eta ikerketa-programak egiten emandako denbora eta seme-alabak jaio edo adoptatzeagatik hartzen diren bajak. Denbora hori 2 urtekoa izan daiteke gehienez.

Erretiro-adina iritsi aurretik hartzea erretiroa. Arau orokorrak agintzen du langileek 63 urterekin har dezaketela erretiroa, baldin eta 33 urtez kotizatu badute gutxienez. Aurrerapen-urte bakoitzeko %7,5eko koefiziente murriztaile bat aplikatuko da, kasu bakoitzean aplikatzekoa den erretiro-adin arruntarekiko. Horiek horrela, langileren batek lau urte lehenago hartzen badu erretiroa, %30 murriztuko zaio pentsioa.

Krisi-egoeratan, gutxieneko erretiro-adina *61 urteko adinera arte murritz daiteke, krisi-egoeren ondorioz*; beraz, erretiroa hartu ahal izango da langileak 61 urte betetzen dituenetik hasita, baldin eta 33 urte kotizatu baditu. Koefiziente murriztailea %7,5ekoa izango da, eta ezingo du izan oinarri arautzailearen %33koa baino txikiagoa edo %42 baino handiagoa.

Erretiro partziala hartzea. Gaur egun, langileak erretiro partziala har dezake, 61 urte izan eta 30 urtez kotizatu badu. Bete beharreko baldintza da erretiro partziala hartu edo txanda ematen duen langileak %25 eta %75 bitartean murriztea bere lanaldia, eta haren txanda lanaldi partzial baterako kontratatutako langile batek (txanda-hartzaileak) hartzea, txanda eman duen langileak utzi duen lanaldi berean gutxienez. Orain arte, behin betiko erretiroa hartzean izango duen pentsioa kalkulatzeko, txandatua izan den langileak %100ean kotizatu du erretiroa hartu bitarteko lan-denbora; beraz, langile horiek pentsio-eskubideari eutsi izan diote, lanaldi osoko lanaren antzeko baldintzetan. Bidean den erreformak aurreikusten du enpresek, modu progresiboan eta 15 urteko gehienezko epe batean, osorik hartu beharko dituztela beren gain txanda eman eta hartzen duten langileen kotizazioak; horrenbestez, pentsatzekoa da nabarmen jaitsiko dela txanda-kontratuen kopurua. Hala gertatzen bada, desagertu egingo da erretiro-adina aurreratzeko Hego Euskal Herrian gehien erabiltzen den bideetako bat; izan ere, lan-denborak lehen urtean pilatu edo metatzeko joera nagusitu izan da orain arte kontratu-mota horretan.

Nekagarritasuna. Orain arte, langile-talde gutxiri eman zaio aukera erretiro-adina lanaren ezaugarriengatik eta penalizazio edo murrizketarik gabe aurreratzeko, eta nabarmentzekoa da aitortu izan diren lan horiek presentzia urria dutela Hegoalden; horien artean daude hegazkin-konpainien hegaldietako langileak, ikatz-meatzeetako langileak, itsasoko langileak, zezenketetako artistak eta profesionalak, trenbideetako langileak eta ertzainak. Onartze-bidean den lege-aurreproiektuak zerrenda batean adieraziko du zer lanbidetan *aztertuko* den erretiro-adina aurreratzeko aukera, baldin eta lanbidearen eta sistemaren batez bestekoa baino nekagarritasun, arrisku eta istripu-tasa handiagoak badituzte. Dena den, lanbide horietako langile-kolektiboak handitzeko erabakiak luzatu egingo dira denboran, azken urteetan gertatu izan den moduan.

Erretiro berezia hartzea 64 urterekin. Erreformak kendu egingo du erretiroa 64 urterekin hartzeko aukera langilearen ordez lanik gabe dagoen langile bat hartu delako.

Lan-ibilbidea borondatez luzatzeko pizgarriak. Orain artekoak baino pizgarri handiagoak ezarri nahi dira, pentsioen kobrantza-denbora murriztu eta kotizazio-aldiei eusteko helburuz. Pizgarri horien kalkulua egiteko, erretiroa hartzeko adinaren ondoren lan egiten den urte bakoitzari erreparatuko zaio (erretiro-adina 65 edo 67 urtetakoa izango da, langileak kotizatu dituen urteen arabera). Lanean 25 urte baino gutxiago egin dituzten langileen kasuan, koefizientea %2koa izango da 67 urteko adinetik aurrera. Langilearen lan-ibilbidea 25 eta 37 urte bitartekoa bada, pizgarria %2,75ekoa izango da urteko 67 urteko adinetik aurrera, eta %4koa izango da urteko lan-ibilbidea osorik egina duten langileentzat 65 edo 67 urteko adinetik aurrera.

Ideia orokorrak. Nabarmendu beharreko ideia da zer ondorio ekarriko duten martxan diren erreformek, langabezia-tasa handiek eta soldata gero eta apalagoek; izan ere, ondorio horien intentsitatea zehaztea zaila bada ere, argi dago langileen zati batek luzatu egin beharko duela, egoerak behartuta, bere lan-ibilbidea, eta jaitsi egingo direla pentsioen zenbatekoak, nahiz eta, gaur egun, horiek nahikoa apalak diren, batik bat sektore batzuetan: 2010eko abenduan, erregimen orokorreko pentsioen batez besteko diru-zenbatekoa 1.347,16 eurokoa zen hilean Euskal Autonomia Erkidegoan, eta 1.244,2 eurokoa Nafarroa Garaian; aitzitik, zenbateko horiek 504,16 eurora eta 488,20 eurora jaisten dira etxeko langileen erregimenean. Euskal Herriko iparraldeko (Frantziako Estatuko) erregimenarekin konparatuta, erretiro-adina aurreratzeak oso penalizazio edo zigor handiak dakartza Hegoalden (Espainiako Estatuan), eta aintzat hartuta langabezia-tasak handiak direla garaiotan eta adineko langileek, iraizpen edo kaleratze indibidualen eta kolektiboen ondorioz, erretiro aurreratuak hartzera behartuta ikusten dutela beren burua, agerikoa da, erretiro-adina igoz gero, pentsioen diru-zenbatekoa nabarmen jaitsiko dela, bai Iparralden, eta bai, batik bat, Hegoalden. Gainera, Hego Euskal Herrian, lan-ibilbidea luzatzeagatik ematen diren hobariak ez dira Iparraldekoak bezain handiak.

Lan-ibilbidea luzatzeko pizgarriek ez dute erretiro-adina atzeratzerik lortu, ez Iparralden, ez Hegoalden; gainera, Hegoalden pentsioak zenbateko apalekoak dira, eta oso zabaldua dago erretiroa ahal den bezain pronto hartzeko nahikundea. Gogo edo nahikunde horrek, gainera, lotura zuzena du lanaren intentsitatearekin eta nekagarritasunarekin.

Langileak irmo azaldu dira erretiro-adina igotzeko asmoen kontra, eta horren erakusle dira igoera horien aurka egin diren mobilizazioen munta eta jarraipen handiak, Euskal Herriko hegoaldean nahiz iparraldean.

Argi dago langileen zati batek luzatu egin beharko duela, egoerak behartuta, bere lan-ibilbidea, eta jaitsi egingo direla pentsioen zenbatekoak



Eztabaida foroa

Giza garapenaren indizea Euskal Herrirako

GGIren kalkulu hori hurbilpentzat hartu behar badugu ere1, ikus dezakegu EAEri eta Nafarroa Garaiari dagozkien balioak (0,875) oso handiak direla. Norvegiak du 2010eko txostenean GGIren baliorik handiena, 0,938. Frantzia 14. tokian azaltzen da (0,872) eta Espainia, berriz, 20.ean (0,863). Hegoaldeko lurraldeek Frantziak eta Espainiak baino balio zertxobait handiagoak dituzte GGIn; Akitania, ostera, pixka bat beherago gelditzen da. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoen artean aldeak txikiak dira; Araba EAEko balioaren gainetik geratzen da, Gipuzkoa batez bestekoan, eta Bizkaiak du baliorik txikiena.

Norbaitek egunkarietako hemeroteketara joko balu, 2007ko datuekin EUSTATek esaten zigun EAEren GGI 0,981 zela eta Espainiarena, berriz, 0,955. Lehenengo tokian Norvegia azaltzen zitzaigun orduan ere, 0,971 balioarekin. Garapenean atzera egin al dugu? Ez, baina 2010ean GGI kalkulatzeko modua eta gutxieneko eta gehieneko balioak aldatu egin dira, eta adierazleak balio txikiagoa du herrialde guztietarako.

Testuen jatorrizko hizkuntza: euskara

GGI eta lan duineko indizea

Pedro Mari Olaeta
C.E.O. INGEINNOVA GROUPeko Koordinatzaile Nagusia

Ez da frogabide handirik behar egiaztatzeko globalizazioak aldaketa handiak eragin dituela lan-harremanen esparruan. Aldaketa horien joera nabarmenena izan da galtzen ari direla, pixkanaka, borrokaren bidez eta denboran zehar eskuratu diren lan-eskubideak; beraz, Giza Garapeneko Indizea kalkulatzeko formulari lan duineko adierazle bat gehitu beharko litzaioke, bermatzeko Europar Batasunean eskuratu diren eskubideak behar bezala jasoko direla etorkizuneko garapen globaleko ereduan eta haren adierazleetan.

Lan duinaren definizioa litzateke "gizon eta emakumeei aukerak ematea lan duin eta produktibo bat lortu ahal izateko, askatasunezko, ekitatezko, segurtasunezko eta giza duintasunezko baldintzetan", eta berariaz dago sei alderdi hauetan oinarrituta:

- Lan-aukerak izatea, lan egin nahi duten pertsonek lana topa dezaten.
- Lana askatasunez egitea, lana askatasunez erabakitzeko gaitasuna izatea.
- Lan produktiboa izatea, bizirauteko bitartekoak izateko.
- Ekitatea lanean, bidezko tratua eta ekitatezko aukerak izateko.
- Lan-segurtasuna, osasuna zaintzea, pentsioak gordetzea, gaixotasunak sendatzea, etab.
- Lan-duintasuna, adierazpen-askatasuna eta erabakietan parte hartzea.

Lehen bi alderdiek adierazten duten helburua da enplegu-kopuru nahikoa izan behar duela gizartean eta enplegu horiek gutxieneko baldintza egokiak izan behar dituztela, eta beste lau adierazleek azaleratzen dute noiz den lana *duina* eta askatasunez onartua. Ezaugarri horiek guztiak bat datoz, neurri handi batean, Europar Batasunaren parametroetan *kalitatezkoa den enpleguaren* ezaugarriekin. Alderdi horiez gain, garrantzi handia du ingurune sozioekonomikoak, horrek erabakiko baitu, neurri batean, gizarte jakin baten ustez zer den lan *duina*, eta zer neurritan lan duinaren maila eskuratzeak hobetzen dituen herrialdeen emaitza ekonomikoak, sozialak eta lan-merkatukoak.

GGI kalkulatzeko formulari lan duineko adierazle bat gehitu beharko litzaioke, bermatzeko EBn eskuratu diren eskubideak behar bezala jasoko direla

Adierazle bat egitea proposatzen da, 11 kategoria hauetan banatutako azpi-taldez osatua:

- Enplegu-aukerak
- Lan onartezina
- Ordainsari nahikoak eta lan produktiboa
- Lanaldi duina
- Enpleguaren egonkortasuna eta segurtasuna
- Lana eta familia-bizitza bateratzea
- Bidezko tratua jasotzea lanean
- Segurtasuna lanean, lan segurua
- Gizarte-babesa
- Lan-arloko elkarrizketa eta lan-harremanak
- Ingurune sozioekonomikoa eta lan duina

Testuen jatorrizko hizkuntza: euskara

Genero Desberdintasunaren Indizea (GDI)

Mertxe Larrañaga Sarriegi · Ekonomia Aplikatua I, UPV/EHU

GDIk gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak direla eta lorpen gabeziak neurtzen ditu hiru dimentsioetan: ugalketa-osasunean, ahalduntzean eta lan-merkatuan. Eta hiru dimentsio horiek aztertzeko bost indikatzaile erabiltzen dira: lehenengorako amen heriotza-tasa eta nerabeen ugalkortasun-tasa, bigarrengorako gutxienez bigarren hezkuntza dutenen portzentajea eta parlamentuko eserlekuen portzentajea eta hirugarrenerako jarduera-tasa. Bost indikatzaile hauek aukeratzeko orduan datuak erraz eskuratu ahal izatea funtsezkoa izan da baina genero desberdintasunak indikatzaile gutxi hauetara mugatzean emakumeentzako oso garrantzitsuak diren hainbat eta hainbat faktore ez dira kontuan hartu, besteak beste, denbora banaketa ezberdinak, biolentzia eta errenta desberdintasunak.

Indize berri honek, aurrekoak ez bezala, bakarrik genero desberdintasunak azaltzen ditu eta beraz ez du loturarik garapen maila orokorrarekin, hau da, Giza Garapenaren Indize (GGI) altua duen herri batek genero gabezia handia, hau da, GDI altua izan dezake baita.

Komeniko al litzateke horrelako indizea Euskal Herrirako kalkulatzea? Noski baietz, beti interesgarria da ikustea non gauden nazioarteko sailkapenetan. Parte-hartze ekonomiko eta ahalduntze dimentsioa adierazteko indikatzaileak oso arruntak dira eta lortzeko errazak baina behar bada ez da horrela gertatzen osasun indikatzaileekin.

Indize berria Euskal Herrirako kalkulatzea oso ondo legokeela pentsatzen dugun arren, gure ustez GDI, batez ere herri pobreetan pentsatuta diseinatu da. Eta horrela dela diogu alde batetik Iparraldeko herrietan, adibidez, hezkuntzan desberdintasun kuantitiboak desagertuta daudelako eta amen hilkortasuna oso oso txikia delako. Eta bestalde ahalduntzean eta lan-merkatuan dauden desberdintasunak azaltzeko aukeratu diren indikatzaileak sinpleak, behar bada sinpleegiak direlako: parlamentuan emakumeen eserlekuek azaleko botere banaketa azaltzen du eta jarduera-tasa berriz ez da inolaz ere nahikoa lan merkatuan dauden desberdintasun ugariak erakusteko.

GGI egokitzeko aukeren inguruan

Mikel Zurbano · Ekonomian Doktorea. EHUko Irakaslea

Giza Garapenaren Indizeak osasuna, hezkuntza eta errentaren arloko aldagaiak aintzat hartzeak biztanleko BPGaren adierazlea gaindituko zuen indize alternatiboa osatzea ekarri zuen. Honekin garapenaren adiera berriak hazkunde ekonomikoaren ikuspegi ortodoxoa alboan utzita gaitasunak hedatzeko urratsa jorratu zuen. Nolanahi ere, aldagai gehigarriak erabili arren herrialde batzuetako posizioa ez da askorik higatzen biztanleko BPGetik GGIa erabilita. Funtsean GGIaren eraikuntzan oraindik sarreren eta arlo ekonomikoaren gehiegizko pisuaz ohartarazten du honek. Hori da, Nazio Batuen Erakundeko Egitasmoak berak onartzen duena zera baieztatzen duenean alegia, GGI garaiak ez duela halabeharrez eragin positiborik zertan izan demokrazia, ekitate edo jasangarritasunean. GGIa osatzeko ekarpenak ugariak izan dira azkenaldian, gehienek osagai ekonomikoaren pisua gutxitzeko eragina dute. Horietako bat Demokraziarekiko sentikorra den GGIa litzateke. Indize honek aditzera ematen du demokrazia –askatasun zibila eta politikoa- gaitasunak handitzeko prozesuko funtsezko osagaia dela. Euskal Herrian azken hamarkadetako gatazka armatuaren testuinguruan demokraziaren kalitatearen narriadura nabarmena nozitu da eta zalantzarik gabe horrek GGI honek beherantz zuzenduko luke jatorrizkoa. Ongizaterako ezinbestekoa izan arren jatorrizko GGIak jaso ez duen beste arlo bat gizartearen eta ekonomiaren iraunkortasuna da. Ildo honetan ingurugiroarekiko sentikorra den GGIa eraikitzeko ahalegina beharrezkoa da. Indize horren eraikuntzak herrialdeak ikuspegi ekologikotik irauteko duen ahalmena kontuan hartuta doitu beharko luke GGIa. Indizea doitzeko aldagaien artean ingurugiroan egindako isuriak edota aztarna ekologikoa aipatzen dira gehien. Hego Euskal Herriko aztarna ekologikoa mundukoa bikoizten duenez GGIaren beheranzko zuzenketa esanguratsua ekarriko luke hau aintzat hartzeak.

Testuaren jatorrizko hizkuntza: gaztelania

Zer ezkutatzen du Barne Produktu Gordinak eta zer ahazten Giza Garapeneko Indizeak?

Nekane Jurado
Ekonomian eta zientzia aktuarialetan lizentziatua eta psikologoa.

Arima indigenako emakume batek galdetu zidan ea zergatik ekonomistok esaten dugun bere herria garatu gabea dela, baldin eta biziak egunero oparitzen diena konpartitzen badute eta bere komunitateko pertsonak, haur zein adineko, babesturik eta arimaren bakardaderik sentitu gabe bizi badira. Galderari eman beharreko erantzunaz hausnartzean, konturatu nintzen Barne Produktu Gordinaz hitz egin behar niola, hau da, BPG ospetsuaz.

Moneta-adierazle bat da BPGa, eta merkatuan negoziatzen den jarduera guztia adierazten du. Gizarte garatu batek segurtasunik ez badu kaleetan, gastu handiak egingo ditu defentsan eta barne-babesean, eta horrek BPGa igoko dio, eta horixe bera gertatuko zaio pertsona asko baditu gaixo, BPGa igoko baitzaio, botika asko kontsumitu beharko duelako. Bizi-kalitateak, zoriontasunak eta BPGak ez dute zertan noranzko beretik joan; are, eguneroko bizitzak erakusten digu gutxitan egiten dutela bide bera.

Ildo horretatik, egia da Euskal Herriak BPG altua, bizi-itxaropen luzea eta hezkuntza-maila handiak dituela (adierazle horiek zehazten dute, hain justu, Giza Garapeneko Indizea), baina agerikoa da, era berean, bizi-kalitatea, hainbat faktoreren eraginez, etengabe ari dela okertzen.

Garapen-kontzeptu berri bat sortu behar da, gaur egun fede itsuz jarraitzen diren hazkunde ekonomikoko ereduei aurre egiteko, oso inpaktu handiak baititu ingurumenean (ekosistemak degradatzen ditu, baliabideak agortzen, etab.) eta gizartean (langabezia sortzen du, marjinazioa, dualizazioa, gerrak, etab.). Kontzeptu berri hori sortzeko, ezinbestekoa da "egungo garapen-prozesuak aldatzea, eta, batik bat, orain arte ekonomiaz izan den buruera edo ikuspegia aldatzea. Aldaketa horien bidez, jarduera-ildo berriak ezarri behar dira nazioartean, eta garapen-eredu berri bati jarraitu behar zaio, Ipar-Hego mailako desberdintasunak desagerrarazteko, munduaren etorkizun ekologikoa bideragarria izan dadin, eta gizarte-parametroak bidezkoak izan daitezen" (Rioko Goi Bilera -1991).

Egia da Euskal Herriak BPG altua, bizi-itxaropen luzea eta hezkuntza-maila handiak dituela baina bizi-kalitatea, hainbat faktoreren eraginez, etengabe ari da okertzen

Ikuspegi hori hartzen du, neurri batean, "Giza garapenaren" kontzeptuak, garapen-maila neurtzeko metodo berri bat ezarri baitu, bereziki aztertzen dituena orain arte aintzat hartzen ez ziren zenbait alderdi; hala nola, pertsonen osasun-egoera eta jakintza-maila. Hala ere, kontzeptu horrek alde batera uzten ditu zenbait adierazle giltzarri; kasu, aberastasunaren banaketa, laneratze-aukerak eta lanaren kalitatea, ingurumenaren egoera, integrazio kulturala, etxebizitza-beharrizanen estaldura-maila eta pertsonen premia psikiko eta afektiboak.

Baina giza garapenaren esparrua hori baino zabalagoa da, eta haren baitan sar daitezke beste aukera asko; hala nola, askatasun politiko, ekonomiko eta sozialak garatzea, eta sortzaile eta ekoizkor izateko aukera lantzea, giza eskubideen errespetua behar bezala bermatuz. Euskal Herrian giza garapena bultzatuko bada, egiazko demokrazian sakondu behar da, eta, hortik abiatuta, eredu ekonomiko berri bat bilatu eta gauzatu. Eskura dauden giza baliabideak eta baliabide naturalak modu arrazionalean eta harmoniaz erabiltzea lehenetsi behar du eredu horrek, pertsona guztien beharrizan indibidualak eta kolektiboak asetzeko. Hori guztia egin behar da geroko belaunaldiei beren premiez arduratzeko aukera eragotzi gabe.Gizarte bat egiaz iraunkorra edo jasangarria izango bada, ezaugarri hori izan behar du bai alderdi fisikoan (hau da, baliabideen erabilera iraunkorra egin behar du), bai alderdi sozialean (hots, gainditu egin behar ditu desberdintasun sozialak eta lurraldeen artekoak). Ekitaterik gabe, ezin dira oraina eta geroa sustengatu. Gizarte iraunkor batek garapena jarriko du hazkundearen aurretik, alderdi kualitatiboak (bizi-kalitatea) jarriko ditu alderdi kuantitatiboen (bizi-mailaren) gainetik, eta elkartasuna edo solidaritatea, lehiakortasunaren aurretik. Demokrazia ekonomikoaren zabalkuntza izan daiteke gizarte-balio handi eta osoena, baldin eta askitasunez, justiziaz eta ekitatez hedatzen bada. Dena den, Barne Produktu Gordinaren egitekoa ez da egoera hori neurtzea, ezta haren zuzentzaile izan nahi duen Giza Garapeneko Indizearena ere.



Hamaika erronka, hamahiru erantzun

Aldaketa globala zein lokalen garaia da, eta aldaketa horiek zuzen-zuzenean eragiten diote Euskal Herriari. Horren aurrean, Euskal Herriak etorkizunera begira dituen erronka sozioekonomikoak aztertzen ditu ikerlan honek. Euskal Herriko ekonomia eta gizarte gaietan entzute handia eta ibilbide guztiz ezberdina duten 13 lagunen iritziak biltzen ditu horretarako, eta, ondorioz, ikuspegi anitza eta zabala eskaintzen du.

Aldaketa garai honetan, zein erronka sozio-ekonomiko ditu Euskal Herriak? Galdera horri erantzun asmo dio *Euskal Herriak: Erronka sozio-ekonomikoak* Gaindegiaren argitalpenak. Galdera bakar bati hamahiru erantzun ematen dizkio, ordea. Euskal Herriaren etorkizunarekin konprometituta dauden hamahiru pertsonaren iritziak jasotzen ditu, ibilbide eta ikuspegi oso ezberdineko hamahiru adituren erantzunak.

Jon Azua, E-novatinglabeko lehendakaria, Michel Etchebest Artzainak lantegi taldearen buru eta Mauleko auzapeza, Ainhoa Etxaide LABeko idazkari nagusia, Anjeles Iztueta matematikaria, Nekane Jurado Ekonomian, Zientzia Aktuarial eta Finantzieroetan eta Psikologia klinikoan lizentziatua, Antxon Lafont enpresaria, Juan Carlos Longas NUPeko ekonomia aplikatuko irakaslea, Adolfo Muñoz ELAko idazkari nagusia, Paul Nicholson EHNEko kidea eta Mixel Berhokoirigoin EHLGrako lehendakaria, Koldo Saratxaga K2K emocionandoko kidea, Pedro Luis Uriarte Ekonomia, Estrategia eta Enpresa lehendakaria eta Eduardo Zubiaurre Adegiko presidentearekin elkarrizketa bana biltzen ditu argitalpenak. Aditu horien ibilbidea ikusita, argi dago askotariko irudiak biltzen dituela eta ikuspegi ezberdinak jasotzen dituela. Orain arte ikusi gabeko irudi bat ikusteko aukera eskaintzen du, ikuspegi ugari biltzen dituelako, eta bere erreferentzia esparrua, aurreneko aldiz, Euskal Herria delako. Originala da bildutako aditu multzoa, eta are originalagoa solasaldien haria: Euskal Herriko lurraldeek hainbat arazo komun dituzte eta horiek konpontzeko lurraldeen arteko kohesioa handitu behar da.

Gaindegiak topiko batekin hautsi nahi du lan honekin, euskaldunona izena bai baina izanik ez duen herria denaren ustea apurtzea. Argi ikusten du Euskal Herriko lurraldeek elkarren beharra dutela, eta etorkizuneko erronkei erantzuteko haien arteko kohesioa eta lankidetza sustatzea ezinbestekoa dela. Horregatik, lan honekin Euskal Herriaren garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzeko giltzarriak bistarazi nahi ditu.

Elkarrizketa liburua da eta ekonomia eta gizarte gaietan aditu diren euskal kazetariek egindako elkarrizketak biltzen ditu. Txotxe Andueza, Joxerra Bustillo, Carlos Etxeberri, Xabier Lekuona, Iñaki Lekuona, Sabino Ormazabal, Ivan Santamaria, Joxerra Senar, Amaia Ugarte eta Bego Zubia kazetariek egin dituzte, hain zuzen ere, elkarrizketa horiek. Liburuak banan-banan eta elkarren segidan jasotzen ditu solasaldiak. Elkarrizketa bakoitza 12-14 orri bitartekoa da, galdera erantzunak modu zuzenean daude, eta entresaka batzuk ere aterata ditu, esaldi esanguratsuenekin. Argitalpenaren erdian elkarrizketa guztietan bildutako esaldi nabarmenen bilduma ere biltzen du, eta elkarrizketen amaieran solasaldietan ateratako zenbait argazki ere bai. Euskaraz eta gaztelaraz eginda daude elkarrizketak, modu ulergarri eta irakurterrazean.

Izenburua:
Euskal Herriak: erronka sozioekonomikoak

Argitaratzailea: Gaindegia
Egilea: Gaindegia
Hizkuntza: euskara/gaztelania
Orrialde kop.: 188
Argitaratze data: 2010
Ikus: *www.gaindegia.org/eu/liburua/Euskal-Herriak-erronka-sozio-ekonomikoak*

Argazkia, datutan

Ipar Euskal Herri sozio-ekonomikoki erakargarri, dinamikoa eta aukera handikoa. Argazki hori ateratzen dio Ipar Aldeko Zenbakiak 2010 ikerlanak, izenak adierazten duen moduan, 2010eko datu eta zenbaki sozio-ekonomiko klabeak erabiltzen argazki hori ateratzeko. Taula eta infografiatan oinarrituta, irakurketa azkar eta argia egiteko aukera eskaintzen du.

Populazioa, enplegua, enpresak, jarduera sektoreak (nekazaritza, arrantza, industria, artisautza, merkataritza, turismoa eta zerbitzuak), etxebizitza, hezkuntza eta formazioa, eta komunikazio azpiegiturak. Alor horiek aztertzen ditu Ipar Aldeko Zenbakiak 2010 azterlanak. Ganberak azken urteetan urtero publikatzen duen azterketa da eta urtetik urtera Iparraldeko egoera zertan den eta zertan aldatzen ari den konparazioa egiteko modua eskaintzen du.

2010eko datuak eskuan, honako argazkia atera dio Iparralderi ikerlanak:

- Demografia biziko lurraldea da, bizitzeko erakargarria. 2007tik %7,4 hazi da populazioa, eta 2020ra arte hazten joango dela aurreikusten dute.
- Langabezia tasa Akitania eta Frantziaren batez bestekoaren azpitik dago. Frantzian %9,1ekoa da tasa, Akitanian, %8, 7koa eta Iparralden %8,1ekoa.
- Enpresetan ekintzaile kultura handiko lurraldea da. 1.000 biztanleko 114 enpresa daude. 2008tik 2009ra %5,9 hazi da enpresa kopurua.
- Nekazaritzan, bertako lan egiteko modua baloratzen hasi dira, AOC eta IGP kalitateko labelekin. Arrantzan, Ziburuko portuko enkantea Frantziako 18. postura iritsi da. Industria, berriz, hirugarren jarduera ekonomikoa bihurtu da, lanpostuen %10,5arekin. Hiru sektoretan oinarritzen da industria: aeronautika, agroalimentazioa, itsas-kirolak eta metala. Artisautzan, berriz, eraikuntza da jarduera nagusia. Merkataritzari dagokionez, Akitaniaren adinako baliabide-komertzial ditu. Turismoan, GOazen klusterrean jada 580 enpresa daude batuta, eta zerbitzuetakoa da ekonomiaren jarduera nagusia da, lanpostu gehien dituena.
- Etxebizitzak bost urtean 15.827 etxebizitza gehiago egin dira.
- Hezkuntza eta irakaskuntzan etorkizunerako potentzialitate handia dagoela erakusten du, 30.000 eskolarizatu daudelako.
- Komunikazio azpiegituretan berriz, lurraldea oso ondo kokatua dagoela ondorioztatzen du. L-63 errepidea da gehien erabiltzen dena, Baionako tren geltokiaren erabiltzaileak %4,1 hazi dira, Miarritzeko aireportua Akitaniako bigarren garrantzitsuena da, eta Baionako portua Frantziako lehen portu desentralizatua da, eta kalitate-segurtasun eta ingurumen ziurtagiria duen aurrena ere bai.

Datu eta infografia bidez eskaintzen du informazioa azterlanak: taula eta grafikoetan oinarritzen da argitalpena, eta bakoitzaren ondoan agertzen ditu ondorio nagusiak. Oso modu bisualean erakusten du informazioa, eta oso modu eskematikoan jasotzen ditu ondorio nagusiak. Horrez gain, azken zati berezi bat ere badu: lehiakortasun poloek eta klusterrek dituzten proiektu handi eta nagusiak biltzen du, eta Akitania-Euskadi-Nafarroak euro-erregioa proiektua garatzeko erronkak ezartzen ditu.

Izenburua:
Le Pays Basque en Chiffres/
Ipar Aldeko Zenbakiak

Argitaratzailea: Baionako Merkataritza Ganbara
Egilea: Baionako Merkataritza Ganbara
Hizkuntza: frantsesa
Orrialde kop.: 26
Ikus argitalpena: *www.bayonne.cci.fr*

Independentzia, behar ekonomikoa ere bai

Independentzia aldarrikatzeko arrazoi historikoak erabili dira normalean. Arrazoi historikoez gain, behar ekonomikoak ere badirela erakutsi nahi du ikerlan honek. Egungo eredu sozio-ekonomikoa agortu dela sinistuta, eredu berri bat proposatzen du: Euskal Sozialismo Identitarioa, eta horretarako independentzia ezinbestekoa dela aldarrikatzen du.

Krisiak argi erakutsi du: egungo eredu sozio-ekonomikoak porrot egin du, Euskal Herrian eta mundu osoan, eta horren aurrean ezinbestekoa da beste eredu bat martxan jartzea. Tesi horretatik abiatzen da Independentzia; aldarri historikotik behar ekonomikora liburua.

Eredu ekonomiko solidarioagoa bat, aberastasuna behar bezala banatuko duen eredu bat, gehiengoaren beharrak aseko dituena, gizartearen parte-hartzea sustatuko duena, eta langabeziari aurre egingo diona. Hori da Euskal Herriak behar duena, Nekane Juradoren ikerlanaren arabera, Euskal Sozialismo Identitarioa, hain justu. Eredu hori behetik gora ezartzea proposatzen du, Euskal Herritik, mundura, eta eragileak herritarrak izan behar dutela dio, bereziki langileria, emakumeak, etorkinak eta behartsuenak.

Ikerlanak hamar kapitulu ditu, eta bi zati nagusitan banatzen da. Lehen partean lau ikuspegi aztertzen ditu: aldaketa soziala egiteko ideologiak duen garrantzia, egun globalizazioak lehenetsi dituen baloreak (kontsumismoa benetako beharren gainetik), balore horiek gailentzeko klase borrokak izandako bilakaera, eta emakumeak izandako papera klase eta genero borrokan.

Izenburua:
Independencia: de reivindicación histórica a necesidad económica

Argitaratzailea: Txalaparta
Egilea: Nekane Jurado
Hizkuntza: gaztelania
Orrialde kop.: 243
Argitaratze data: 2010
Ikus argitalpena: *www.gureliburuak.com*

Bigarren zatian, berriz, egungo marko sozio-ekonomikoarekin subirautza ekonomikoa ezinezkoa dela azaltzen saiatzen da. Horretarako, Hegoaldeko autonomismoak eta Iparraldeko jakobismo zentralistak lortu dezaketen gehiengoa aztertzen dute. Orain arte Euskal Herrian egin diren bi proposamenak ere aztertzen ditu: EAJrena (Ibarretxe) eta ezker abertzalearena. Horien ondotik, eredu solidarioago eta justuago baten zutabeak aurkezten ditu, Euskal Sozialismo Identitarioaren zimentarriak izango liratekeenak.

Zimentarri horiek eraikitzeko erabakiak hartzeko ahalmen osoa beharrezkoa dela nabarmentzen du: lan politikak, zergak, aurrekontuak eta errentak erabakitzeko ahalmena, hain justu. Azken zati horretan jasotako hausnarketak azken hogei urteotan Euskal Herriaren eraikuntzan egindako bilakaera biltzen duela dio egileak.

Egungo ereduari kritika egitetik harago joan nahi du argitalpenak. Egungo sozialismoak egungo eredua barneratuta onartzen du, eta aurreneko lana horri aurre egitea izango dela onartuta, aldaketarako ordua iritsi dela uste du. Subjektu sozialak aldatuta, eredu berrira salto egiteko modu bakarra independentzia dela aldarrikatzen du.

Txalapartak argitaratu duen argitalpena Nekane Juradok egin du. Ekonomia eta Enpresa zientzietan, Finantza eta Zientza Aktuarialetan eta Psikologia klinikoan lizentziatua da Jurado, eta ezker abertzalearen sozio-ekonomia saileko kide da 1988tik. Santi Duñaiturria eta Eusebio Lasaren laguntza izan du liburua egiterakoan, eta Alkartasuna fundazioaren eta Elkartzenen babesa du lanak. Pedro Mari Olaeta eta Oskar Matutek egin dute prologoa.

Zorpetzeari adi

Fiskalitatea, etxebizitza sektorearen bilakaera eta familien zorpetzea. Hiru elementu horien arteko erlazio zuzena, eta elkarri egiten dieten erasana aztertzen ditu *Etxebizitza eta fiskalitatea. Zorpetzearen ikuspegiak ikerlanak*. Orain arteko hazkunde garaiak amaituta, berankortasunari adi egoteko premia nabarmentzen du.

Etxebizitza eta higiezinen merkatuaren bilakaeran zerikusi handia izan du zerga sistemak. Orain artekoak, prezioak garestitzea ekarri du, eta sektorea indartsu egotea. Bestelako egoera utzi du, ordea, krisiak: administrazio publikoak diru gutxiago ari dira jasotzen, eta familien zorpetzea eta berankortasuna handitzen ari da. Bilakaera hori eta egungo erronkak aztertzen ditu *Etxebizitza eta fiskalitatea. Zorpetzearen ikuspegiak ikerlanak*.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako egoera aztertzen ditu, Espainiako sistemarekin alderatuta. Euskal Autonomi Erkidegoko hainbat erakunde publiko eta finantzariok egindako lan eta ikerketak erabili ditu bibliografia gisa Aitziber Etxezarreta EHUko irakasleak. Bera da lanaren egilea.

Horretarako higiezinen zikloa eta egungo egoera ekonomikoaren harreman zuzena aztertzen du aurrena. Gero, etxebizitzen zerga politikak aztertzen ditu: zerga bilketaren eboluzioa aztertzen du, egungo unera iritsi arte, eta horrek udalen zorpetzean duen eragina adierazi. Hirugarrenik, aurreko faktore horien eraginez familien zorpetzeak azken urteetan izandako eboluzioa aztertzen du.

Azterketa guzti horiek eginda, honako ondorioak ateratzen ditu ikerlanak:

- Ekonomia eta finantza krisia higiezinen zikloarekin eta burbuilarekin zuzenean lotuta dago. EAEn Espainian baino eragin samurragoa du, etxebizitzak eta eraikuntzak pisu gutxiago dutelako bertako ekonomian. Halere, eraikuntzaren sektoreak hazkunde negatiboak ditu 2008tik.
- Etxebizitza politikei dagokionez, zerga edo fiskalitate sistema oso garrantzitsua izan da orain arte. Laguntza fiskalek herritarrak etxebizitza eskuratzera bultzatu ditu, baina aldi berean garestitu egin ditu etxebizitzen prezioak, eta jabetzan oinarritutako etxebizitza sistema sustatu du. Aipatzekoa da pertsona fisikoen gaineko errenta. Etxebizitzak eskuratzeak zerga horretan zuen kenkariaren ondorioz, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako diputazioek 468 miloi euro ez zituzten jaso, adibidez, 2006an. Zerga hori desagertu egin da ordea, 2011rekin batera.
- Higiezinen eta bestelakoek krisiaren ondorioz, administrazio publikoek diru gutxiago jaso dute. Batik bat udaletako altxorrek utzi diote zergak jasotzeari, hirigintza eta eraikuntza lan gutxiago eginda horregatik kobratzen dena jaitsi egin baita.
- Ekonomia zikloaren eta etxebizitzaren zerga sistemaren ondorioz, areagotu egin da familien zorpetzea. Egia da krisiaren ondorioz kreditu gutxiago eman dituztela finantza erakundeek azken bi urteetan, baina ala ere zorpetze maila %130ekoa da. Horren ondorioz, berankortasun eta ordain ezintasun tasek gora egin dute. Zorpetze tasa handiegia arriskutsua dela ohartarazi dute zenbait erakundek, baina kreditua murriztuta gizarteko zenbait sektore baztertzeko arriskua ere badago, sektore batzuk etxea eskuratzeko aukerarik ez luketelako izango.
- Interes tasei adi egon beharko da, igoera handiek zordunei ondorio larriak ekarriko dizkietelako.
- Etxebizitzen prezioak beherantz doaz, baina baliteke joera hori gelditzea. Eta horrek nabarmen eragin diezaioke ekonomiaren errekuperazioari, familia eta enpresen aurrezte eta inbertsio ahalmenari zuzenean eragiten diolako.

Izenburua:
Etxebizitza eta fiskalitatea. Zorpetzearen inguruko alderdi batzuk.

Argitaratzailea: EKITEN-Thinking-erako egindako artikulua
Egilea: Aitziber Etxezarreta Etxarri
Hizkuntza: gaztelania
Orrialde kop.: 27
Argitaratze data: 2010
Ikus ikerketa: *www.ekitenthinking.org*



Prentsan jasotakoa

- Nafarroako atzeralditik kanpo exportazioei esker.
- Zorraren krisia.
- Iparralden erretreta.
- Pentsioen erreforma.
- Bihartean+euskalerrilan
- Enplegurako politika aktiboak.
- Greba orokorra.

Iparralden: erretreta

• Erretreta sistema aldatzeko asmoen kontra, protestekin hasi zuten urtea Iparralden eta Frantzian. Urteko lehen greba orokorra maiatzaren 27an egin zen eta, sindikatuen arabera, Baionako manifestazioan 5.800 lagunek hartu zuten parte. Ekainean aurkeztu zuen lege proposamena Frantziako Gobernuak eta berehala etorri zen urteko bigarren greba orokorra, hilaren 23an. Izan sektore pribatuan ala publikoan, greba mugimendua aurreko protestetan baino sendoagoa izan zen, eta Baionako manifestazioan 10.000 lagundik gora.

• Pentsio erreforma Asanblada nazionalera iritsi zen irailean, eta protestak indartzen hasi ziren. Hilabete bakarrean beste bi greba egun egin zituzten sindikatuek, bata irailaren 7an, eta bestea 23an. 15.000 lagundik gora bildu ziren Baionako manifestazioetan.

• Urrian izan zuten indarraldi handiena protestek, lege proposamena orduan bozkatu baitzen asanblada nazionalean. Hainbat protestaldi eta bi greba orokor egon ziren astebeteren buruan, 12an eta 19an, eta inoizko protesta jendetsuenak egin ziren Baionan, 17.000 lagundik gorako manifestazioekin. Ikasleek langileekin bat egin zuten eta erregaiak eta bideak blokeatu zituzten.

• Azaroan onartu zen legea, behin betiko, eta horrekin batera, gutxituz joan ziren protestak. Ekimen ugari egin ziren hilabete horretan, baina apurka-apurka erantzuna gutxitzen joan zen.

Erretreten erreforma, amaitu gabeko norgehiagoka

Estatu frantses osoan bezala, 2010ean erretretaren erreforma Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako gizartea izugarri astindu duen gaia izan da. Baby-boom izeneko belaunaldia jubilatzeko atarian zegoela, krisi ekonomikoaren eragina eta bizi-itxaropena luzatzearen ondorioz sortutako arazo demografikoa aitzakia hartuta, egungo sistemaren jasangarritasuna kinka larrian zegoela argudiatu zuen Gobernuak. Apirilean Nicolas Sarkozyk erretreta-sisteman aldaketa sakonak egingo zituela iragarri bezain laster langile-sindikatuak asaldatzen hasi ziren, batez ere, jubilatzeko adina 60 urtetik 62ra (65etik 67ra pentsio osoa jasotzeko kotizazio urteak osatu ez dituenentzat) igaroko zela jakin zutelarik.

Kexuen antzutasunaren ondotik eta Gobernuak bere asmoak bururaino eramateko azaldu zuen tinkotasunaren aitzinean, estatu mailako sindikatu nagusiek (CFDT, CGT, CFTC, UNSA, FSU, Solidaires) bat egin zuten hilabeteak iraungo zuen norgehiagokan. Mobilizazioak berehala hasi ziren. Uda aurretik milaka lagun, –sektore publikoko edo pribatuko langile, jubilatu edo ikasle izan–, karrikaratu ziren Baionan. Irailetik goiti, Asanblea Nazionalak legearen eztabaida hasi zuelarik, lanuzteak eta mobilizazioak emendatuz joan ziren. Kalean gero eta jende gehiago metatzea zen sindikatu nagusien presio-tresna. Hala, Iparralden urteetan ezagutu ez diren manifestazio jendetsuenak burutu ziren Baionan, batez ere, urrian. Nabarmentzekoa da 2006an agintari frantsesek CPE (lehen enplegu kontratua) ezarri nahi izan zutenean ez bezala, oraingoan unibertsitateko ikasleak ez zirela apenas inplikatu erretreta sistemaren defentsan. Alta, lizeotakoak gogotik lotu zitzaizkion sindikatuek aste batzuk lehenago hasitako borrokari. Manifestazio handi guztietan parte hartu ez bazuten ere, protesta dinamika propioa eraman zuten. Hala, lizeo nagusiak, izan hezkuntza orokorrekoak zein lanbide hezkuntzakoak, kostaldekoak edo barne aldekoak, blokeatuak izan ziren zenbait astetan. Gobernua tinko mantentzen zela-eta, "presioa" nola areagotu ika-mika ere sortu zen sindikatuen artean. Batzuk –CGT eta FO sindikatuek edota Appel Retraites Pays Basque kolektiboak, esaterako– greba orokorraren alde egin zuten. Oldartu, ezkerreko gizarte-mugimendu eta sindikatuak batzen dituen plataformak (LAB sindikatua tartean da), berriz, bi urte lehenago Martinika eta Guadalupe irletan egin zutena eredu hartuta, esparru guztietara –eta ez soilik langile alorrera– zabalduko zen dinamika eraikitzea bultzatzen zuen. Edozein modutan, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan oso gutxitan ezagutu diren mobilizazio eta protesta-motak egin ziren: okupazioak, UMPko diputatuen egoitzen aurrean elkarretaratzeak, autopistetako peajeak blokeoak, joera politiko eta sindikal askotarikoen batzar bateratuak... eta, jakina, ez ohiko manifestazio jendetsuak, behin baino gehiagotan ibilbidea luzatzera behartu zituztenak. Gainera, Baionan ez ezik, lurralde guztietan ere kale-mobilizazioak izan ziren (Hazparne, Kanbo, Donapaleu, Maule, Donibane Lohizune, Donibane Garazi, Hendaia...).

Alta, urriaren amaieran Senatuak eta Asanblea Nazionalak legea onartu zutenean, mobilizazioak beheranzko joera hartu zuen. Abenduaren 9an Kontseilu Konstituzionalaren oniritzia jasota, Sarkozyk dekretua sinatu zuenean mobilizazioak itzali egin ziren. Horren aurrean, erretreta sistema publikoa eta elkarkidea defenditzeko norgehiagokan Gobernua garailetzat jotzea litzateke normalena. Hala eta guztiz ere, biltzar legegilerako eta Presidentziarako 2012ko hauteskundeek emango dituzten emaitzak ikusi beharko dira hori ziurtatzeko, langile, funtzionario edota ikasle askoren ahotan baitzegoen zigorbotoaren aukera.

Arantxa Manterola / Gara, Baiona

Pentsioan erreforma

• Erretiro adina atzeratzea proposatu zien urte hasieran Europako Batzordeak Europako estatuei, eta halakorik egin ezean pentsio publikoak arriskuan zeudela ohartarazi zuen.

• Frantziako gobernuak udazkenean onartu zuen pentsio sistemaren erreforma.

• Espainiako gobernuak egina du erretiro adina luzatzeko eta kotizazio urte kopurua handitzeko proposamena.

• Europako gainerako herrialdeetan ere egin dira pentsio sistemak aldatzeko ahaleginak.

Pentsioen erreforma

Pentsioen sistema publikoen erreforma izan da krisiak Europan oro har eta, bereziki, Euskadin izan duen ondorio kaltegarrienetako bat. Erreforma horiek atzeratu egin dute erretiro-adina, murriztu egin dituzte etorkizuneko prestazioak, eta pentsio bat kobratu ahal izateko baldintzak gogortu dituzte. Beste behin ere, alde handiak daude Euskal Herriko iparraldearen eta hegoaldearen artean, Frantziako eta Espainiako estatuekiko duten loturaren ondorioz. Iparralderen kasuan, sistemaren erreformak bi urtez igo du erretiro-adina, eta 62 urtekoa da gaur egun; hala ere, pentsioaren zenbateko osoa jasotzeko, langileek 67 urterekin hartu beharko dute erretiroa. Pentsioen erreforma sakonagoa egin du Espainiako estatuak, eta bere helburu bakarra izan da diru gutxiago bideratzea etorkizuneko pentsioak ordaintzeko. Egia da Espainiako banaketa-sistemarengan eragin handia izan duela bizi-itxaropena handitzeak eta erretiroa hartutako pertsona bakoitzeko kotizatzen duten langileen proportzioa murrizteak, eta beharrezkoa zela erreforma bat egitea, baina egia da, era berean, erreforma horrek nabarmen kaltetzen dituela lan-jardun aktiboan dauden pertsonak. Pentsioen zenbatekoak murriztearen ondorioetako bat izango da handitu egingo direla pentsio-fondo pribatuetara egindako ekarpenak, eta horrek ase egingo du, bide batez, banka handiaren aspaldiko irrika hori. Erreforma berriak pentsiodun izango diren pertsonentzat dakarren aldaketa nabarmenetako bat da langile askok ezingo dutela erretiroa 65 urterekin hartu, 67 urte izan beharko baitituzte horretarako. Hori da Espainiako gobernuak bultzatutako aldaketaren alderdi deigarriena, baina alderdi garrantzitsuena da langileek 37 urte kotizatu beharko dituztela pentsioa osorik jasotzeko, eta ez 35 urte orain arte bezala.

Xabier Aja / Deia

Bihartean + euskalherrilan

• Urriaren 15ean Bihartean proiektua aurkeztu zuten Gipuzkoako eta Baionako Merkataritza Ganberek, "lurraldeon garapen ekonomikoa indartzeko". Iparraldeko eta Gipuzkoako lurraldeetako enpresen arteko lankidetza bultzatzen eta erlazio hori laguntzeko helburuarekin sortu zutela adierazi zuten. BIHARTEAN AEIE izena jarri zioten elkarteari, eta Europako Elkarte gisa eratu ziren. Helburu ekonomikoekin sortu zen muga arteko Europako lehen elkartea da, eta Europako Batasunak lagundu egingo du bera finantzatzen.

• Azaroan, berriz, Euskalherrilan proiektua aurkeztu zuten Hemen elkarteak eta Eusko Jaurlaritzak.

Mugaren muga

Instituzioek akuilaturiko muga-gaindiko harremanik ba ote da? 1999an sortu zen Baiona-Donostia muga-gaindiko eurohiriaren garapen agentzia. Solasaldi ederrak, helburu handiak eta gibelean deus gutxi. Harrezkero Bidasoako mugaren arraildura txikitu beharrean, sakondu dela iruditzen zait. Hauteskundeen bezperetan Kontseilu Orokorreko kontseilariek eta Diputazioko arduradunek prentsara ateratzen duten gaia da muga-gaindiko harremanen kontua: prentsaurreko bat, bazkari bat han hemenka, eta hurrengora arte. Mami gutxi, irudi asko eta borondate politikoan, eskas.

Iparraldeko politikariek behin eta berriz errepikatzen dute Frantziako instituzionalizazio sistema arrunt zentralizatua dela eta erabakiak hartzea zaila egiten zaiela. Hori egia izanik, bada beste arazo bat: Bidasoaz bestaldetik etortzen denaren mesfidantza. Hegoaldeko politikariek ere ez dute siniste n muga-gaindiko harremanetan: Iparralde ez dute ezagutzen eta bistakoa da, boz gutxi lortzen dutela politika hauek bultzatuz. Politikarien bide beretik doaz ere enpresariak. Iparraldeko merkatua txikiegia da eta industrializazioa gutxi garatua da; izatekoan ere, Frantziara sartzeko ate gisara ikusten dute Iparralde. Gipuzkoako eta Baionako Merkataritza Ganberek Bihartean egitura sortu dute, elkarrekin garapen proiektuak akuilatzeko. Egitura hau sortu aitzin egin den inkestak bi ondorio argi erakusten ditu: pertsonek ez dute elkar ezagutzen, eta bigarrenik, hizkuntzaren ez-ezagutzak sekulako traba sortzen du harremanetarako. Badakigu beraz nondik hasi behar dugun zubiak eraikitzen.

Jose Luis Aizpuru
Euskal Irratietako erredaktore burua

Enplegurako politika aktiboak

• Hilabeteetako zurrumurruen ostean, Iñigo Urkullu EAJko presidenteak onartu zuen Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako gobernuburuarekin bildu zela Madrilen, eta ekonomia gaiak eta euskal autogobernua izan zituztela mintzagai. Hitz horiek esan eta hilabete gutxira, irailean, lan politika aktiboen transferentzia hitzartu zuten EAJk eta PSOEk.

• ELA eta LAB sindikatuek ez zuten begi onez ikusi akordioa.

• Kritika kritikak, urriaren 15an akordioa sinatu zuten EAJk eta PSOEk.

Errenuntzia politiko larria

Enplegu-politika aktiboak Euskal Autonomia Erkidegora ekarri ziren EAJ alderdiak Espainiako gobernuarekin adostutako hitzarmenaren ondorioz. Hitzarmen horren kontraprestazioa zen EAJk aldeko botoa emango ziela Estatuaren 2011ko aurrekontu orokorrei. Akordio horrekin, ordea, errenuntzia politiko larri bat egin da. Zergatik?

Lehenik, ez delako enplegu-politika aktiboen transferentziarik egin; hau da, ez delako politika horien irizpideak finkatzeko ahalmena eskualdatu. INEM erakundeak betetzen zituen funtzio batzuen gestioa soilik transferitu da. Horrenbestez, gai-alor horretako erabakiak hartzeko ahalmena ukatu zaie euskal erakundeei, Espainiako estatuak erabakitako politiken kudeatzaile eta laguntzaile izatera mugatuko baitira.

Bigarrenik, uko egin zaiolako Ekonomia Itunaren irizpideekin bat datorren finantzazio-bide bati. Horrek galera ekonomiko handi bat dakarkigu, eta banatu egiten ditu enplegu-politika aktiboen gestioa (enpleguaren sorrera eta bilaketa sustatzea eta horretarako pizgarriak ematea) eta enplegu-politika pasiboena (kotizazioak eta langabezia-prestazioak).

Eta, azkenik, iruzur bat delako enplegu-politika propioak erreklamatzen dituztenentzat, kalitatezko enplegu osoa lortzen saiatzeko eta, politika horien bidez, gure Herriaren egiazko beharrizanak asetzen ahalegintzeko. Laburbilduz, transferentzia hori enplegu-politika aktiboen gestioa deszentralizatzera mugatzen da, eta, hori eginez, traizionatu egiten da Lan Harremanetarako eta Gizarte Babeserako Euskal Esparrua.

Juan Mari Arregi
Argia

Greba orokorrak

• Ekainaren 29an greba orokorra egin zuten Hegoaldean, ELA, LAB, EHNE, ESK, EILAS eta HIRU sindikatuek deituta. Espainiako Gobernuaren lan erreformaren aurkako protesta izan zen, eta zalantza askoren ostean, CCOOk ere bat egin zuen lanuztearekin. Handik hiru hilabetera, irailaren 29an, CCOO eta UGTk Espainiarako deitu zuten lanuztearekin bat egin zuten sindikatu horietako Hegoaldeko ordezkariek Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian.

• Iparralden, urte hasieratik izan ziren protestak, baina udaran bereziki indartu ziren. Frantziako deialdiekin bat eginda lau hilabetean sei greba orokor egin zituzten maiatzetik urrira bitartean.

2010 eko Greba Orokorra Euskal Herrian

2010 greba orokorren urtea izan da. Greba orokorrak guztiak, baina, hala ere, izen berdina izanagatik izaera desberdinekoak. Iparralden, pentsioen erreforma errefusatzeko Estatu frantsesean egindako deialdien karietara izan dira grebak, oso arrakastatsuak denak, eta horien bitartez agerian geratu da oraindik ere izen abizen frantsesak dituzten sindikatuek dutela indar handiena. Hala ere, euskal gizartean erroak dituen sindikalgintzak bidea egin dezakeela ikusi da, LAB sindikatuak, eta berarekin batera beste hainbat eragilek, mobilizazio dinamika propioa aurrera atera baitute. Esan liteke 2010ean Iparraldeko langileriak astindua jaso duela, eta nahiko ondo erantzun diola erronkari. Eta bide batez, euskal sindikalgintzak urrats nabarmenak eman ditu dagokion tokia bereganatzeko. Hegoaldean, ekainaren 29an eta irailaren 29an izan dira hitzorduak, Gobernu espainolak onartutako lan merkatuaren erreformaren kontra. Helburu komun horrek, dena den, ez du ezkutatu langile borroka planteatzeko bi ereduen arteko talka. Izan ere, euskal gehiengo sindikalak ekainean deitutako grebak, aurreko urtean egindakoaren aldarrikapen kutsuari eutsi dio, Zapateroren Exekutiboak agertutako asmoen kontra. Elkarrizketa soziala delakoaren mezuari entzungor egin, eta langileen eskubideen kontrako erasotzat jotzen duenaren kontra ñabardurarik gabe ekin dio gehiengo sindikalak. CCOO eta UGTk, aldiz, erreforma legea onartuta zegoenean egin du greba, hilabete luzez Gobernuarekin negoziatzen ibili ostean eta, askoren iritziz, bere sinesgarritasunaren mesedetan beste erremediorik ez zutelako. Bi eredu hauek lehian jarraituko dute 2011an.

Iker Bizkarguenaga / Gara



@eragile sozio-ekonomikoen oinarrizko gida

Ekonomia Soziala

ANEL- Asociación Navarra de Empresas Laborales
Río Alzania, 29 -1.A, 31006
Iruñea (Nafarroa Garaia)
(0034) 948 24 04 00
general@anel.es
www.anel.es/

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua
Nafarroako Errege-
Erreginen kalea 51,
01013 Gasteiz (Araba)
(0034) 945 12 11 55
info@csce-ekgk.coop
www.csce-ekgk.coop

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa
Nafarroako Errege-
Erreginen kalea 51,
01013 Gasteiz (Araba)
(0034) 945 12 20 53
ekk@konfekoop.coop
www.konfekoop.coop

Euskadiko Nekazari Kooperatiben Federazioa
Nafarroako Errege-
Erreginen kalea, 51 Behea
01013 Gasteiz, (Araba)
(0034) 945 25 70 88
info@euskadi.coop
www.euskadi.coop

Euskadiko Kontsumo Kooperatiben Federazioa
Nafarroako Errege-
Erreginen kalea, 51 Behea
01013 Gasteiz (Araba)
(0034) 945 12 11 27
kontsumo@ekkf-fecoe.coop
www.ekkf-fecoe.coop

ERKIDE - Euskadiko Lan Elkarteen, Irakaskuntza eta Kreditu Kooperatiben Federazioa
Nafarroako Errege-
Erreginen kalea, 51Behea
01013 Gasteiz (Araba)
(0034) 945 12 20 50
erkide@erkide.coop
www.erkide.coop

Euskadiko Garraiolari Kooperatiben Federazioa
Nafarroako Errege-
Erreginen kalea, 51 Behea
01013 Gasteiz (Araba)
(0034) 945 00 80 05

Elkar-Lan, S.Coop. - Kooperatibak Sustatzeko Elkartea
San Vicente kalea, 8- 9. Ezk.
Albia Eraikina II
48001 Bilbo (Bizkaia)
(0034) 94 470 37 60
elkarlan@elkarlan.coop
www.elkarlan.coop

ASLE - Euskadiko Elkarte Laboral Taldea
Ercilla 3, 48009
Bilbo (Bizkaia)
(0034) 94 435 47 30
asle@asle.es
www.asle.es

Centro Formación Bilbao
Ugazko, 1-3-5
48009 Bilbo (Bizkaia)
(0034) 94 447 14 20
ipl@asle.es
www.asle.es

ASLE Donostia
Gernikako Arbola ibilbidea,
24 20006 Donostia
(Gipuzkoa)
(0034) 943 44 58 69
asle-ss@asle.es
www.asle.es

ASLE Gasteiz
Pedro Asuakoa, 57 - Behea
01008 Gasteiz (Araba)
(0034) 945 21 41 25
asle-vi@asle.es
www.asle.es

Enpresa Elkarteak

ADEGI - Gipuzkoako Enpresarien Elkartea
Mikeletegi ibilbidea, 52 -
Miramon Teknologi Elkartegia
20009 Donostia (Gipuzkoa)
(0034) 943 30 90 30
adegi@adegi.es
www.adegi.es

AED - Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartea
Ercilla, 24- 3, 2. Bulegoa,
48011 Bilbo (Bizkaia)
(0034) 94 416 81 14
aed@euskalnet.net
www.aednet.net

AJEBASK País Vasco - Federación de Asociaciones de Jóvenes Empresarios del País Vasco
Naipes plaza, 13-15 Behea
01006 Gasteiz (Araba)
(0034) 945 12 19 29
(0034) 945 12 19 30
ajebaskalava@ajebaskalava.es
www.ajebaskalava.es/

AJEBASK Bizkaia - Asociación de Jóvenes Empresarios/as de Bizkaia
Santa Ana, 7- 1.a, 10. Bulegoa
48940 Leioa (Bizkaia)
(0034) 94 441 77 80
ajebaskbizkaia@telefonica.net
www.ajebaskbizkaia.com

AJEBASK Álava - Asociación de Jóvenes Empresarios/as de Alava
Naipes plaza, 13-15 Behea
01013 Gasteiz (Araba)
(0034) 94 512 19 29
ajebaskalava@ajebaskalava.es
www.ajebaskalava.es

AJEBASK Guipuzcoa- Asociación de Jóvenes Empresarios/as de Guipuzcoa
Portuetxe 23B,
Cemei Eraikina 4.º solairua
20018 Donostia (Gipuzkoa)
(0034) 943 21 90 61
www.ajebaskgipuzkoa.es

Alava Incoming - Asociación Empresarial para la Promoción de Congresos y Turismo de Álava
Eduardo Dato 38, Arabako
Merkataritza eta Industria
Ganberako eraikina,
01005 Gasteiz (Araba)
(0034) 945 14 18 00
info@alavaincoming.com
www.alavaincoming.com

AMPEA - Arabako Profesional eta Enpresari Emakumeen Elkartea
Errekatxiki, 29 - Behea
01003 Gasteiz (Araba)
(0034) 945 12 50 50
ampea@ampea.es
www.ampea.es

APD - Asociación para el Progreso de la Dirección
José María Olabarri, 2 - Behea
48001 Bilbo (Bizkaia)
(0034) 94 423 22 50
apd@bil.apd.es
www.apd.es

Bizkaia Ostalaritzako Elkartea
Gran Via, 38 - 2.a
48009 Bilbo (Bizkaia)
(0034) 94 435 66 60
aehv@asociacionhosteleria.com
www.asociacionhosteleria.com

CEV - Círculo de Empresarios Vascos
Ibañez de Bilbao, 28 - 5. D
48009 Bilbo (Bizkaia)
(0034) 94 424 34 71
mcarranza@infonegocio.com

CEBEK - Bizkaiko Enpresarien Konfederazioa
Gran Vía, 50 - 5.a
48011 Bilbo (Bizkaia)
(0034) 94 400 28 00
idelbusto@cebek.es
www.cebek.es

CEN - Confederación de Empresarios De Navarra
Pedro I, 1- Solairuartea,
31007 Iruñea
(Nafarroa Garaia)
(0034) 948 26 33 00
(0034) 948 25 07 78
cen@cenavarra.es
www.cenavarra.es

CONFEBASK - Euskal Entrepesarien Konfederakuntza
Gran Via, 45 - 2.a
48011 Bilbo (Bizkaia)
(0034) 94 402 13 31
confebask@confebask.es
www.confebask.es

FAPYMEN - Consejo de Pequeña y Mediana Empresa
Pedro I, 1- Solairuartea,
31007 Iruñea
(Nafarroa Garaia)
(0034) 948 26 33 00
(0034) 948 25 07 78
cen@cenavarra.es
www.cenavarra.es

MEDEF- Mouvement des Entreprises de France
55 Avenue Bosquet F-75330
Paris Cedex 07
(0033) 01 53 59 19 19
www.medef.fr

SEA - Arabako Enpresariak
Posta pasabidea, 32 - 6.a
01001 Gasteiz (Araba)
(0034) 945 00 04 00
sea@sea.es
www.sea.es

USSE- Unión de Selvicultores del Sur de Europa
Larrauri, 1 B - 6.a
48160 Derio, (Bizkaia)
(0034) 94 474 78 26
usse@usse.es
www.usse.es

Estatistika Erakundeak

EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea
Donostia 1N eraikina,
01010 Gasteiz (Araba)
(0034) 945 01 75 12
www.eustat.es
webmaster_eustat@eustat.e

IEN, Nafarroako Estatistika Institutua
Karlos III, 36, 2. Esk. 31001
Iruñea (Nafarroa Garaia)
(0034) 848 42 34 00
www.cfnavarra.es/estadistica/
estadistica@cfnavarra.ess

INE Estatistika Institutu Nazionala / Araba
Eduardo Dato, 44 -
01005 Gasteiz (Araba)
(0034) 945 15 47 30
www.ine.es
info@ine.es

Gipuzkoa
Jose Maria Soroa, 23 -
20013 Donostia (Gipuzkoa)
(0034) 943 29 36 66
www.ine.es
info@ine.es

Bizkaia
Zabalgune Plaza, 3.
48009 Bilbo (Bizkaia)
(0034) 94 410 61 00
www.ine.es
info@ine.es

Nafarroa Garaia
Barañain Etorbidea,
11, Atzealdea, 31008 Iruñea
(Nafarroa Garaia)
(0034) 948 36 67 24
www.ine.es
info@ine.es

INSEE, Estatistika Institutu Nazionala eta Ekonomia Azterketetakoa
18, Bulebar Adolphe Pinard.
F-75675 Paris Cedex 14
(0033) 141 17 50 50
www.insee.fr

Fundazioak

ADEGIFOR - Fundación para la Formación Empresarial
Avda. Tolosa, 111-9º
20018 Donostia (Gipuzkoa)
(0034) 943 30 91 70
adegifor@adegi.es
www.adegifor.ne

Aic Automotive Intelligence Center Fundazioa
Parque Tecnológico. Edificio
101 40170 Zamudio. (Araba)

Antonio Aranzabal
C/ Marina, 1-6º F
20007 Donostia (Gipuzkoa)
(0034) 943 42 25 06
www.fundacionantonioaranzabal.org

Art4pax fundazioa
Carlos Gangoiti, 16 – 2º
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
mail@art4pax.org
http://art4pax.org

Aspaldiko
Polígono La Florida, s/n
48920 Portugalete (Bizkaia)
(0034) 944 62 50 00
aspaldiko@aspaldiko.org
www.aspaldiko.org

AZARO Fundazioa
Xemein Etorbidea, 19
48270 Markina (Bizkaia)
(0034) 946 16 91 72
azaro@leartik.com
www.azarofundazioa.com

AZTI Fundazioa
Isla de Txatxarramendi s/n
48395 Sukarrieta (Bizkaia)
(0034) 946 02 94 00
rgerenu@suk.azti.es
www.azti.es

Bagabiltza Fundazioa
Grupo Sagarminaga, bajo 16-
17, 48004 Bilbo (Bizkaia)
(0034)944 73 14 44
www.bagabiltza.com

Basque Know How Fundazioa
Lapurdi, 20 – Bajo,
48960 Galdakao (Bizkaia)
(0034) 944 56 57 83
info@basquefundazioa.org
www.basquefundazioa.org

B.B.K. Gazte Lanbidean Fundazioa
Gran Vía, 30-32
48009 Bilbao(Bizkaia)
www.bbk.es

Bilbao 700 – Milenium Fundazioa
Edificio La Alhóndiga
Iparraguirre, z/g
48010 Bilbo (Bizkaia)
www.bilbao700.com

Biofisika Bizkaia Fundazioa
Sarriena, z/g,
48940 Leioa (Bizkaia)
(0034) 946 01 83 97
www.fundacionbiofisicabizkaia.org

BIZKAILAN
Barrio San Antolín, 16
48070 Zamudio (Bizkaia)

Centro de Tecnologías Aeronáuticas
Parque Tecnológico de Alava,
01510 Miñano(Araba)
www.ctaero.com

Centro Europeo de Empresa e Innovación de Navarra CEIN
Pol. Ind. Mocholí.
Plaza CEIN, 5. 31110, Noáin
(Nafarroa Garaia)
(0034) 848 42 60 00
www.cein.es

CIDETEC
Parque Tecnológico
de Miramón, Paseo
Miramón, 196,
20014 Donostia (Gipuzkoa)
(0034) 943 30 90 22
cidetec@cidetec.es
www.cidetec.es

ELHUYAR Fundazioa
Zelai Haundi, 3,
Osinalde Poligonoa,
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
(0034) 943 36 30 40
elhuyar@elhuyar.com
www.elhuyar.org

EMAUS Fundación Social
Gurutzegi, 16 (Pol. Belartza)
20018 Donostia (Gipuzkoa)
(0034) 943 36 75 34
fundacion@emaus.com
www.emaus.com

Enpresa Zuzenbide eta Antolakuntzarako Institutua
C/ José Mari
Arizmendiarrieta, 5, 20500
Arrasate (Gipuzkoa)
(0034) 943 77 93 07
ezai@mcc.es
www.lankidetza.info

Escuela de Ingenieros de Bilbao
C/ Alameda de Mazarredo,
69-2º 48013 Bilbo (Bizkaia)
bivbaugc@bi.ehu.es
www.fundacioningenierosbilbao.com

European Virtual Engineering Fundazioa
Avda. de los Huetos, 79
01013 Gasteiz (Araba)
(0034) 945 22 92 00
zoaza@eurocabos.com
www.eurocabos.com/

Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa
1.204 Postakutxa 20080
Donostia (Gipuzkoa)
(0034) 943 21 94 27
fundazioa@elkar.com
www.elkarfundazioa.org

Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa
Jose Elosegi alkatearen
etorbidea, 275
20015 Donostia (Gipuzkoa)
(0034) 943 21 23 69
asmoz@asmoz.org
www.asmoz.org

Eusko Ikaskuntzaren Euskomedia Fundazioa
Villa Asunción, Avenida del
Alcalde José Elósegui, 275
20017 Donostia (Gipuzkoa)
(0034) 943 32 22 96
euskomedia@euskomedia.org
www.euskomedia.org

DÉDALO Fundación
Alberto Pelairea 9 (sarrera
Paseo Queiles z/g), 31500
Tutera (Nafarroa Garaia)
(0034) 948 08 80 44
info@fundaciondedalo.org
www.fundaciondedalo.or

Deier Behatokia Fundazioa
Heros, 7 -1º Ext. Drcha.
48009 Bilbao (Bizkaia)
(0034) 902 54 05 90
deier@deier.org
www.deier.org

DERANDEIN Fundazioa
Avda. Iparraguirre, 59
48980 Santurtzi (Bizkaia)
(0034) 944 93 92 27
fundazioa@derandein.org
www.derandein.org

DEUSTO Fundazioa
Universidad de Deusto,
Avda. de las Universidades,
24, 48007 Bilbao (Bizkaia)
(0034) 944 13 90 00
secretaria@tecnologico.deusto.es
www.tecnologico.deusto.es

Donostia International Physics Center
Ibaeta auzoa, z/g
Donostia (Gipuzkoa)
(0034) 943 01 53 68
dipcinfo@ehu.es
http://dipc.ehu.es/index.php

FORMETAL
Plaza de Euskadi 9,
48009 Bilbo (Bizkaia)
(0034) 944 39 64 69
www.fvem.es

Fundación ARTEAGA
Paseo Oriamendi 170
20009 Donostia (Gipuzkoa)

Fundación BALUARTE
Plaza del Baluarte. 31002
Iruñea (Nafarroa Garaia)
(0034) 948 06 60 66
baluarte@baluarte.com
www.baluarte.com

Fundación Bizkaia Bizkaialde
Alda Rekalde, 30 - 1º
48009 Bilbo (Bizkaia)
(0034) 944 06 87 85
info@bizkaialde.net
www.bizkaialde.net

Fundación Centros Tecnológicos para el Fomento de la Tecnologia
Parque Tecnológico -
Edificio 101,
48170 Zamudio (Bizkaia)
(0034) 94 420 94 88
www.fundacioncentrostecnologicos.org

Fundación CIDEMCO Área Anardi, 5
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
(0034) 943 81 68 00
cidemco@cidemco.es
www.cidemco.es

Fundación CIE I+D+I
Iparraguirre, 34- 2º dcha.
48011 Bilbao (Bizkaia)
(0034) 946 05 62 00

Fundación Empresa Universidad De Navarra
Edificio Central. Campus
Universitario. 31080 Iruñea
(Nafarroa Garaia)
(0034) 948 425 618
feun@unav.es
www.unav.es

Fundación de Estudios Neurológicos - Ilundain Fundazioa
Avda. Tolosa, 80-7º C
20018 Donostia (Gipuzkoa)

Fundación de la Ingenieria para el Desarrollo de la Investigación, la Tecnología y la Innovación (Ingenia Fundazioa)
Zubieta, 38 Bajo
20007 Donostia (Gipuzkoa)
http://ingenia-fundazioa.com

Fundación ELIKA
Granja Modelo, s/n
01192 Arkaute (Araba)
(0034) 945 12 21 70
berri@elika.net
www.elika.net

Fundación European Software Institute
Parque Tecnológico de
Zamudio, Edificio 204
48170 Zamudio (Bizkaia)
(0034) 944 20 95 19
info@esi.es
www.esi.es

Fundación EUSKALTEL
Parque Tecnológico,
Edificio 101,
48170 Zamudio (Bizkaia)
(0034) 944 01 12 09
fundazioa@euskaltel.es
www.euskaltel.es

Fundación GOKAI
Fuente de la Salud, 10 Bajo
01003 Gasteiz (Araba)
(0034) 945 12 16 17
fgokai@gokai.com
www.gokai.com

Fundación LASSOA
Alameda Mazarredo, 19
Dpto. 6 48001 Bilbo (Bizkaia)
(0034) 946 61 12 18
fundacionlassoa@fundacionlassoa.org
www.fundacionlassoa.org

Fundación Navarra para la Calidad
Avenida de Barañáin nº 10 - 1º C. 31008 Iruñea (Nafarroa Garaia) (0034) 948 19 01 11
info@qnavarra.com
www.qnavarra.com

Fundación MORAZA
Pescadores de Terranova, 21 - entreplanta-A
20011 Donostia (Gipuzkoa)

Fundación Nuevo Futuro De Bizkaia
Alameda Recalde, 5-pral.
48009 Bilbo (Bizkaia)

Fundación para el Desarrollo de Iniciativas Empresariales y Sociales
C/ Luis Morondo 4,
bajo trasera 31006 Iruñea (Nafarroa Garaia)
(0034) 948 29 12 71
anelformacion@anel.es
www.anel.es

Fundación para la Innovación en la Gestión y el Liderazgo desde los Valores (FIGEVA)
Cientoetxe, 11
48993 Getxo (Bizkaia)
informacion@sorlekua.com

Fundación para la Inserción Profesional (ADEGILAN)
Parque Tecnológico de Miramón, Paseo Mikeletegi nº 52, 20009 Donostia (Gipuzkoa)
www.adegilan.com

Fundación para la Investigación y Desarrollo de la Empresa-Emilio Soldevilla
C/ Cardenal Gardoqui Nº 7-4º 48008 Bilbao (Bizkaia)
www.feside.org

Fundación Rafael Escola
Avenida Lehendakari Aguirre, 3, 48014 (Bilbao)
(0034) 944 79 76 76
info@rafaelescola-fund.org
www.rafaelescola-fund.org

Fundación SORTEK
Gaviria, 82-84
20305 Irún (Gipuzkoa)

Fundación SUSTALDE
Ribera de Axpe, 11 Edificio D-1, Local 208
48950 Erandio (Bizkaia)
www.sustalde.org

Fundación TECNALIA
Parque Tecnológico de Zamudio, Edificio 101
48170 Zamudio (Bizkaia)
(0034) 944 04 14 44
info@tecnalia.info
www.tecnalia.info

Fundación UNED Bergara
Real Seminario, C/ Plaza San Martín de Aguirre.
20570 Bergara (Gipuzkoa)
(0034) 943 76 90 33
info@bergara.uned.es
www.uned.es/ca-bergara

Fundación vasca de Innovación e Investigación Sanitarias
Departamento de Sanidad
Donostia, 1
01010 Gasteiz (Araba)
www.bioef.org

Fundación vasca para el Desarrollo de las Tecnologías Energéticas
Parque Tecnológico de Alava
01510 Miñano (Araba)
(0034) 943 71 24 00
per@ikerlan.es
www.ikerlan.es

Fundación ZEHARO
Illarra Bidea, 4
20018 Donostia (Gipuzkoa)

GAIKER
Parque Tecnológico, Edificio 202, 48170 Zamudio (Bizkaia)
(0034) 946 00 23 23
www.gaiker.es

GAZTELAN
Gaviria, 82-84, 31014 Iruñea (Nafarroa Garaia)
(0034) 948 136 020
gaztelan@gaztelan.org
www.gaztelan.org

GAZTENPRESA Fundazioa
Paseo José María Arizmendiarrieta, z/g
20500 Arrasate (Gipuzkoa)
(0034) 900 10 11 43
gipuzkoa@gaztempresa.com
www.gaztempresa.com

Herrien Europa Institutoa Euskal Fundazioa
Palacio Isasi Markeskua,
C/ Otalora Iribidea,
1 Eibar (Gipuzkoa)
inst-europ@inst-europ.org
http://inst-europ.org

HOBETUZ- Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa
C/ Gran Vía, 35-6ª planta.
48009 Bilbao (Bizkaia)
(0034) 944 15 08 08
bizkaia@hobetuz.com
www.hobetuz.com

IKERBASQUE Fundazioa
Donostia, 1
01010 Gasteiz (Araba)
(0034) 944 05 26 60
info@ikerbasque.net
www.ikerbasque.net

INASMET
Camino de Portuetxe nº 12
20009 Donostia (Gipuzkoa)
(0034) 943 00 37 00
inasmet@inasmet.es
www.inasmet.es

Ingurugiro Etxea Fundazioa
Foru Ibilbidea, 18
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)

Instituto de Investigación Biomédica y Desarrollo Tecnológico (INBIOMED)
Donostia-ko Teknologi Elkartegia, Paseo Mikeletegi, nº 61 bajo
20009 Donostia (Gipuzkoa)
(0034) 943 30 90 64
inbiomed@inbiomed.org
www.inbiomed.org

Instituto de Transporte, Comercio y Marketing del Bidasoa
Colegio Público Anaka (Parvulario) C/ Pagogaina, 18
20301 Irún (Gipuzkoa)

IPAR-HEGOA
C/ Colón de Larreategui, 31-3º izda 48009,
Bilbao (Bizkaia)
iparhegoa@labsindikatua.org
www.labsindikatua.org/formakuntza/iparhegoa

Joxe Mari Kortaren Bidetik Fundazioa
Erkizketa Baserria, Arroa Behea 20740 - Zestoa (Gipuzkoa)

Joxemi Zumalabe Fundazioa
Avda. Ametzagaña, 19 bajo
20012 Donostia (Gipuzkoa)
(0034) 943 27 55 61
orokorra@joxemizumalabe.org
www.joxemizumalabe.org

Juan Urrutia Elejalde
C/ Zugazarte, nº 33-1º dcha.
48990 Getxo (Bizkaia)
www.urrutiaelejalde.org

Kalitatea
Bº de Muntsaratz, 17-A
48220 Abadiño (Bizkaia)
(0034) 946 03 03 30
www.euskolabel.net

KURSAAL Fundazioa
Avda. Zurriola, 1
